



euskadiko eskola
kontseilua consejo
escolar de euskadi

EUSKADIKO HEZKUNTZARI BURUZKO TXOSTENA, 2008-2010

1. atala: HEZKUNTZA SISTEMAREN PLANGINTZA
2. atala: EBALUAZIOA
3. atala: IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA ETA IKASTETXEETAKO BERRIKUNTZA
4. atala: FINANTZIAZIOA ETA BALIABIDEAK

2012/01/17an Osoko Bilkuran onetsitako testua

1. atala. HEZKUNTZA SISTEMAREN PLANGINTZA

Sarrera

- 1.1. Jaiotza kopurua Euskadin
- 1.2. Eskola matrikula. Eskaintzaren nahikotasunaren analisia.
 - 1.2.1. Haur Hezkuntzako 1. zikloa (0-3 urte)
 - 1.2.1.1. 0-2 tartea
 - 1.2.1.2. Bi urtekoen irakasmila
 - 1.2.2. Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza
 - 1.2.3. Itunpeko ikastetxeen elkarterik handien finkatzea
 - 1.2.4. Hezkuntza-eskaintza eta udalerriko biztanleriaren tamaina
- 1.3. Ekonomia, gizarte eta kultura adierazleak
 - 1.3.1. Euskadiko adierazle sozio-ekonomikoak
 - 1.3.1.1. Banakako errenta
 - 1.3.1.2. Pobrezia
 - 1.3.2. ISEK adierazleak ikastetxeetan
 - 1.3.2.1. ISEK indizea PISA ebaluazioan eta ebaluazio diagnostikoan
 - 1.3.2.2. Dirulaguntzadunen kopurua ehunekoetan
 - 1.3.2.3. Atzerritar jatorriko ikasleak
- 1.4. Euskararen adierazleak
 - 1.4.1. Euskararen 2006ko mapa soziolinguistikoa
 - 1.4.2. Euskara etxeko hizkuntza
 - 1.4.3. Irakasteredu elebidunen bilakaera.
- 1.5. Ikastetxeen plangintzari buruzko arauak
- 1.6. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP) eta Eskolatze Osagarriko Programak (EOP)
- 1.7. Lehen ataleko ondorioak eta proposamenak

2. atala: EBALUAZIOA

Sarrera

- 2.1. Euskal hezkuntza sistematik kanpoko ebaluazioa
 - 2.1.1. 2009ko PISA proba
 - 2.1.2. 2009ko Ebaluazio diagnostiko orokorra (EGD)
- 2.2. Barne ebaluazioa: 2009 eta 2011ko ebaluazio diagnostikoa (ED)
 - 2.2.1. Ebaluazio diagnostikoaren ezaugarriak
 - 2.2.2. Hezkuntza sare - irakasteredu elebidun geruzetako emaitzak
 - 2.2.3 Ebaluazio diagnostikoaren beste zenbait alderdi eta faktore garrantzitsu
 - 2.2.4 Hobekuntza prozesuak ikastetxeetan
- 2.3. Ebaluazio erakundeak euskal hezkuntza sisteman

2.3.1 ISEI-IVEI

2.3.2 Beste ebaluazio erakunde batzuk

2.4. Ondorioak eta proposamenak

3. atala: IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA ETA IKASTETXEETAKO BERRIKUNTZA

3.1. Irakasleen etengabeko prestakuntza eta ikastetxeetako berrikuntza

3.1.1. Prestakuntza eta berrikuntza jarduera nagusiak

3.1.1.1. Ikastetxeetako prestakuntza eta berrikuntza proiektuak

3.1.1.2. Berritzeguneen prestakuntza jarduerak

3.1.1.3. Garatu planaren ikastaroak

3.1.2. Zenbait proiektu eta plan garrantzitsu

3.1.2.1. Hezkuntza Marko Hirueleduna

3.1.2.2. Eskola 2.0 proiektua

3.1.2.3. Bizikidetza plana

3.2. Irakasleen hasierako prestakuntza

3.2.1. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Irakasle Graduak

3.2.2. Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate Masterra

3.3. Ondorioak eta proposamenak

4. atala: FINANTZIAZIOA ETA BALIABIDEAK

4.1. Testuinguru sozio-ekonomikoa

4.1.1. BPGaren bilakaera Euskadin

4.1.2. Langabeziaren bilakaera Euskadin

4.1.3. Euskadiko herri administrazioen diru-sarrerak

4.1.4. Herri administrazioen zorrak

4.2. Hezkuntzako gastua eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak

4.2.1. Hezkuntzako gastu publikoa BPGaren ehunekoetan

4.2.2. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuak

4.2.3. Ikastetxe pribatuekiko ituna

4.3. Ikastetxe publikoetako irakasle plantilak

4.3.1. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasle/ikasgela ratioaren analisisa

4.3.2. Ikastetxe publikoetako plantilen bilakaera

4.4. Ondorioak eta proposamenak

4 ATALETAKO ERANSKINAK

Kristau Eskola ikastetxe kontzertatuen elkarteak aurkeztutako boto partikularra

1. atala. HEZKUNTZA SISTEMAREN PLANGINTZA

Sarrera

Atal honetan zehar hezkuntza sistemaren plangintza egin ahal izateko beharrezkoak diren zenbait aldagai aztertzen dira.

Lehenengo eta behin, jaiotza kopuruaren bilakaera jasotzen da, etorkizunean beharrezkoak izango diren eskola-plazak aldeztetik erakusten baititu. Oinarrizko irizpide demografiko horrekin batera, migrazio-mugimenduen bilakaerak ere eskaintza behar hori handitzen laguntzen du.

Gero, matrikulazioaren banaketa aztertzen da hezkuntza etapa bakoitzean, eskola-plazaren eskaintza urria edo txikiegia deneko lekuak aipatzen dira, bai termino orokorretan, baita ikastetxe publikoetako eskaintzari dagokion heinean.

Bigarren multzoak ikasleen ekonomia, gizarte eta kultura mailaren adierazleak aztertzen ditu, ebaluazioari eskainitako atalean ikusiko den bezala. Adierazle horiek emaitzak estatistikoki aurreikusteko tresna erabilgarriak dira: indizea oso apala deneko lekuak identifikatzeak baliabideak egokitzeko balio du, eta, baita ere, eskola atzerapenaren hasierako seinaleak ager daitezten ekiditeko. Hezkuntza arloko ISEK bezala, zentzu hertsian, PISA probetan eta ebaluazio diagnostikoan erabiltzen dena hartu da. Txostenean hezkuntzaren arloko beste zenbait adierazle erabili dira osagarri gisa, hala nola dirulaguntzadunen kopurua edo atzerritar jatorriko ikasle kopurua ehunekoetan.

Hezkuntza arloko ISEK adierazle horiekin batera, ekonomia arloko antzeko beste adierazle batzuen banaketa (errenta, pobrezia...) aztertzen da testuinguruan kokatzen laguntzeko.

Hezkuntza sistemaren euskalduntzeari dagozkion hiru indize ere aztertzen dira, aurreko kasuan bezala ikasleen ebaluazioaren emaitzetan eragin handia izaten baitute.

2008-2010 Txostenaren ekarpen berrietako bat Bilbo hiriko 8 barrutien arabera egindako ikerlana da, gaur egun erabiltzen ez diren maparen 6 zonaldeen arabera egindako sailkapen desegokia erraz gainditzen duelarik.


Daturik garrantzitsuenak ezagutu ondoren, gai horien inguruko araurik behinenak biltzen dira, bereziki eskola-maparen dekretua eta onartze-prozesuaren dekretua, 2009koa eta 2008koa hurrenez hurren.

Azken aztergaia aniztasuna tratatzeko bi modalitate dira, eskola graduatuaren titulua lortzeko eragozpen handiak dituzten ikasleentzakoak: Hasierako Lanbide

Prestakuntzarako Programak (HLPP) eta Eskolatze Osagarriko Programak (EOP). Azken txostenean, 2006-2008koan, nolabaiteko informazioa jaso zen, eta oraingo honetan gaia sakontzeko asmoa dugu.


1.1. Jaiotza kopurua Euskadin

Jaiotza kopurua ia etengabe handitu da Euskadin 1994tik 2008ra bitartean, tarte horretan % 40ko igoera metatua izan delarik. 2009an, ekonomia krisialdiaren egoeran, jaiotza kopurua jaitsi egin zen 21.315etik 20.831ra, baina 2010ean berriro igo zen 21.053 jaiotzatara. Estatuan, aldiz, beheranzko joera izan zen.




Beste alde batetik, periodo honetan inmigrazioaren igoera izan duen Estatuko erkidego bakarra Euskadi izan da.


Hiru hiriburuei dagokienez, 1992 urtetik orain arteko denboraldi luzean, Vitoria-Gasteizen kasuan urteko jaiotza kopuruaren igoera handia ikus daiteke, 1.800etik 2.500era, joera goranzkoa izanik. Bilboren kasuan ere urteko jaiotza kopuruaren igoera nabarmena izan da, 2.500etik 2.900era. Donostian, berriz, jaiotza kopurua egonkor mantendu da (ikus 1.1 eta 1.2 eranskinak).



Jaiotza kopuruaren bilakaera ez da berdina izan Bilboko barrutietan. Ikaragarri handitu da Ibaiondon, urtean 400 jaiotzatatik 700etara igo baita. Errekalden, Basurtu-Zorrotzan eta Begoñan ere igo da, baina bereziki Abando eta Txurdiaga-Otxarkoaga barrutietan jaitsiera bat izan da.



Jarraian orain edo etorkizunean eskola-plazen urritasuna aurreikus daitekeeneko beste udalerrri batzuetako jaiotza kopuruaren bilakaera aztertzen da. Barakaldon azken hamar urteotan urteko jaiotza kopurua 600etik 1.000ra baino gehiagora pasa da, eta joera mantendu egiten da Vitoria-Gasteizen kasuan bezala. Biztanleria ertaineko edo handiko beste zenbait udalerritan (Irun, Sopelana edo Etxebarri kasu) haur biztanleria nabarmenki handitu da.



Gaur egungo krisialdiak etorkizunean izango duen bilakaera ezagutu gabe, oso zaila da Euskadiko jaiotza kopuruaren etorkizuneko joera iragartzea. Planteamendu makroekonomikoek, produkzio-sarearen eta gizarte-zerbitzuen garapena bermatu ahal izateko, jaiotza kopurua maila altuan mantentzea eskatzen dute.

Abagune honetan, Justizia, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren *Pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkesta (2008)* azterlanaren emaitzen azterketa oso argigarria izan daiteke. Emaitzak 1.3.1.2 azpiatalean jasotzen dira, eta pobrezia ezkutuak jaiotza kopuruan duen eraginaz honela dio:

“Pobreziaren azterketari lotutako beste problematika bat dago, hots, kolektibo batzuek, gazteek bereziki, bizitza independente bat hasteko baliabide ekonomikoen urritasunagatik izaten duten zailtasuna.

Hori dela eta, PGDI 2008 inkestan 126.199 pertsonak erantzun dute etxe independente berri bat eratu nahi dutela. Pertsona horien artean, 107.300ek adierazi dute baliabide ekonomikoen faltagatik ezin dutela holakorik egin”.

“Modu independentean bizi nahi duten eta baliabide ekonomikoen faltagatik oraindik ezin duten pertsonen bereizgarri sozio-demografiko nagusia gaztetasuna da: independizatzeko arazoak dituzten pertsonen % 82,7 35 urtetik beherakoa da”.

“Hala ere, 2008ko egoeran alderdi berri bat antzeman zen, kontratazio egonkorraren garrantzia alegia.

Ildo horretatik, eta aurreko urteetan ez bezala, inkestatutako pertsonen artean gaur lan merkatuan lanpostu egonkorra duen biztanleriak garrantzi handia du. 2000n eta 2004an antzeman zen bezala, aipatutako problematika 2008an langabeziari edo lanpostuaren ezegonkortasunari ez ezik, enplegu egonkor batzuetako soldata urriei ere lotzen zaie”.

“Bizitza independentea egiteko atzerapenaren arrazoi nagusi bezala etxeak lehentasuna galdu duen arren, problematika hori orain arte aurkeztutako kopuruek adierazten dutena baino handiagoa da”.

Bukatzeko inkestak honela dio: “egoera ekonomiko berria, bestalde, ez da oso lagungarria izango euskal gizarteak duen egitura-arazo horri irtenbide egokia eta arina emateko”.

Txosten honen helburuei dagokienez, azken 3 edo 4 urteetako jaiotza kopuruaren datuak baliagarriak dira hezkuntza etapetan 5, 10 edo 15 urteren buruan izango diren beharren iragarpen orokor bat egiteko, jaiotza kopuruaren etorkizuneko bilakaera edozein izanik ere.

1.2. Eskola-matrikula. Eskaintzaren nahikotasunaren analisia.

Ahalegin berezia egin da Haur Hezkuntzako lehen zikloko matrikula aztertzeko, hasierako ikastetxearen hautaketa egonkorra izaten baita epe luzean, bereziki ikastetxea 2 urtekoen irakasmilian hautatzen denean, matrikula sarritan irakasmila horretan finkatzen delako. Jarraian ikasleen matrikula orokorra eta hezkuntza-sareen arteko banaketa aztertzen da.

Hasierako irakasmiletan eskaintza urria antzematen deneko herrietan, eskaintzaren nahikotasuna aztertzeko oinarrizko irizpide gisa, etapa bakoitzean (DBHraino) konparazio bat egiten da eskaintako plazen eta herri horietan etapa horiei dagozkien urteetan jaiotako haurren artean. Jaiotza kopuruaren datua adinaren arabera eskolatzeko indizea kontuan izanik zuzentzen da. Indize horrek bi faktore eranstu ditu: orokorki migrazioaren joera eskualdean; eta Lehen Hezkuntzako 2. irakasmilatik aurrera, irakasmila errepikatzea.

1.2.1. Haur Hezkuntzako 1. zikloa (0-3)

Hasierako zikloa bi tartetan antolatzen da: 0-2 tartea 0 urtekoak (4 hilabetekoak baino haur nagusiagoak baino urtebetekoak baino gazteagoak) eta 1 urtekoak biltzen ditu; eta aparte 2 urtekoen irakasmila. Zikloa hainbat ikastetxe publikok zein pribatuk eskaintzen dute.

1.2.1.1. 0-2 tartea


Zikloa irakasten duten ikastetxe publikoen artean Haurreskolak partzuergoa eta udal haur-eskolak daude. Sare pribatuan, haur-eskola pribatuak daude eta baita ziklo hori gainontzeko etapekin batera irakasten duten itunpeko ikastetxeak ere.

Azken bi urteotan tarte horretan 1.317 eskola-plaza berri sortu eta bete dira, haien arteko 711 ikastetxe publikoetan, bereziki Haurreskolak partzuergoetan. Azken urteotako jaiotza kopuruaren igoera kontuan izanik (2007-08 ikasturtean tarte horretan 2006an eta 2007an jaiotako haurrak eskolatu ziren, eta 2009-10 ikasturtean 2008an eta 2009an jaiotakoak), eskola-plaza kopuruaren igoerak betetze-tasan izan duen eragina ez da izan jaiotza kopuru egonkor batekin espero zitekeena bezain handia, % 33,1etik % 35,5era pasa delarik. Matrikula berdintsu banatzen da ikastetxe publikoetan (% 17,4) eta ikastetxe pribatuetan (% 18,1) (1.3 eranskina).

Matrikularen bilakaera 0-2 tartean Euskadi osoan hezkuntza-sarearen arabera.

	2007-08		2009-10		Δ azken 2 ikasturteetan	
	Matrikula	Estaldura %	Matrikula	Estaldura %	Matrikula	Estaldura %
Publikoa	5.427	% 16,1	6.138	% 17,4	711	% 1,3
Pribatua	5.751	% 17,0	6.357	% 18,1	606	% 1,1
Guztira	11.178	% 33,1	12.495	% 35,5	1.317	% 2,4

Gure aurreko txostenak aztertzen zuen denbora tartearekin konparaturik (2005-06 ikasturtetik 2007-08 ikasturtera), oraingo denbora tartean igoera ehunekoetan txikiagoa izan dela ikus daiteke. Aurreko denbora tartean igoera % 7,3koa izan zen, eta oraingoan % 2,4koa.




Gogoratu beharrekoa da duela hamar urte Haur Hezkuntzako 1. zikloa arautzen zuen erakundeen arteko planaren helburua 2 urtetik beherako haurren % 40 eskolatzea zela. Oraindik balio horretatik 4,5 puntutara gaude.

Kontseiluaren txostenetan jasotzen diren datuak ikasturte hasierako matrikula ixteko garaioak dira, eta 0-2 tarte horretan haur eskola berriak etengabe sortzen ari dira, eta matrikula etengabe handitzen da. Horregatik, datuen zehaztasuna eta informazioaren kalitatea hobetzeari begira, aurreko txostenetan eskaintza-urritasuna antzeman deneko udalerrien kasuan datu eguneratuak erantsiko dira, 2009-10 ikasturtearen bukaerakoak, abian dauden ekimenak azpimarratzeko asmoz.

Haur Hezkuntzako 1. zikloa arautu baino lehenagoko askotariko esperientzien ondorioz, eskaintzaren oraingo errealitatea asko aldatzen da lurralde, eskualde eta udalerrri batetik bestera.

Hiru lurraldeetan azken bi urteotan izan den bilakaera sei zutabe bikoitzetan adierazten da hezkuntza-sareen arabera; ikastetxe publikoak berdez adierazten dira, eta ikastetxe pribatuak, urdinez; 2009-10eko balioak, kolore ilunagoan.

Ikastetxe publikoetako matrikula Araban (% 25) eta Gipuzkoan (% 24) askoz handiagoa da Bizkaian (% 11) baino; ikastetxe pribatuetan alderantziz gertatzen da. Edozein kasutan ere, eskolatutako haurren kopurua ehunekoetan asko aldatzen da lurralde batetik bestera: % 41 Gipuzkoan, % 36 Araban eta % 32 Bizkaian.



Datuak horrela banatzeari esker, igoerarik handiena (% 5) Araban gertatu dela ikus daiteke.

Matrikularen bilakaera 0-2 tartean hiru lurraldeetan hezkuntza-sarearen arabera.


		2007-08		2009-10		Δ azken 2 ikasturteetan	
		Matrikula	Estaldura %	Matrikula	Estaldura %	Matrikula	Estaldura %
Araba	Publikoa	1.126	% 23	1.343	% 25	217	% 2
	Pribatua	418	% 8	595	% 11	177	% 3
	Guztira	1.544	% 31	1.938	% 36	394	% 5
Bizkaia	Publikoa	1.629	% 10	1.877	% 11	248	% 1
	Pribatua	3.337	% 20	3.659	% 21	322	% 1
	Guztira	4.966	% 30	5.536	% 32	570	% 2
Gipuzkoa	Publikoa	2.672	% 23	2.918	% 24	246	% 1
	Pribatua	1.996	% 17	2.103	% 17	107	% 0
	Guztira	4.668	% 40	5.021	% 41	353	% 1

Banaketa geografikoa edo eskualdekoa zehaztasun handiagoaz aztertzen denean, askotariko egoerak argiago ikus daitezke. 2002-2004 Txostenetik hona Kontseiluak hainbat analisi egin ditu –mapa koloreztatuetan aurkezten dira– 1996ko eskola-mapan finkatu ziren 56 zonaldeetako banaketaren inguruan. 1.6 azpiatalean azaltzen den bezala, 56 zonaldeak mantendu egiten dira 2009ko dekretuan. Banaketa horri dagokionez, Bilboko 6 zonaldeak 8 barrutiek ordezkatu dituzte, atal honen hasieran adierazi den bezala.

1. mapak 0-2 tarteko matrikula adierazten du, eta agerian uzten du Bizkaiko eskaintza publikoaren urritasuna. Bilboko hainbat zonaldeetan eta ibaiaren bi aldeetako udalerrietan % 10 (baita % 5 ere) baino urriagoa da, eta Euskadiko batez bestekoa, berriz, % 17,4.

2009-10 ikasturtean zehar haur eskola berriak sortu dira Bilboko hainbat zonaldeetan, Donostian, Leioan, Santurtzin, Eibarren, Uribe-Kostan eta Arrigorriagan eta, beraz, leku horietako ehunekoak mapan azaltzen direnak baino handiagoak dira.

1. mapa. 0-2 tartea. Jaiotako haurren ehuneko ikastetxe publikoetan. 2009-10 ikasturtea (2009ko urria)



1.2.1.2. Bi urtekoen irakasmaila

Haur Hezkuntzako 2 urtekoen irakasmaila gainerako hezkuntza etapak eskaintzen dituzten ikastetxe publikoetan eta pribatuetan eskaintzen da batez ere, eta kasurik gehienetan ikastetxean eskolatze osoan zehar eskola-plaza bat bermatzen duen irakasmaila izaten da. Horregatik, eskola-plaza bat eskatzen duten pertsonei eskola-plaza hori bermatu beharra azpimarratu du Kontseiluak, Saileko hurrenez hurrengo arduradunek beren programetan jaso duten bezala.


Irakasmaila hori haur eskola pribatuetan ere eskaintzen da eta hainbat udal eskoletan.

Azken bi urteotan 2 urtekoen irakasmailako 974 eskola-plaza sortu dira, haietako 571 ikastetxe publikoetan. Matrikula maila dagokion urtean (2007) jaiotako haurren % 93,2ra igo da.


Matrikularen bilakaera 2 urtekoen irakasmailan Euskadi osoan hezkuntza-sarearen arabera

BI URTEKOEN IRAKASM		2007-08		2009-10		Δ azken 2 ikasturteetan	
		Matrikula	Estaldura %	Matrikula	Estaldura %	Matrikula	Estaldura %
Euskadi	Publikoa	10.440	% 53,0	11.011	% 53,5	571	% 0,5
	Pribatua	7.751	% 39,3	8.154	% 39,6	403	% 0,3
	Guztira	18.191	% 92,3	19.165	% 93,1	974	% 0,8

Irakasmaila hori eskaintzen duten ikastetxe publikoen kopurua handiagoa denez, ikastetxe publikoetako matrikula handiagoa da (% 53,5) ikastetxe pribatuetakoa (% 39,6) baino.



Lurralde mailan, ikastetxe publikoetako matrikula handiagoa da hiru kasuetan, Araban bi hezkuntza-sareen arteko aldea handiagoa delarik.



Datuen azterketan, Bizkaiko ikastetxe publikoen kuotaren jaitsiera azpimarratu behar da eskariari erantzun txikiena lurralde horretan ematen baitzaio, bereziki ikastetxe publikoetan, geroago ikusiko den bezala.

Beste alde batetik, Gipuzkoako ikastetxe pribatuen kuota % 3 jaitsi da, ikastetxe publikoena % 2 igo delarik.


Matrikularen bilakaera bi urtekoen irakasmilan hiru lurraldeetan hezkuntza-sarearen arabera

2 URTEKOEN IRAKASMAILA		2007-08		2009-10		Δ azken 2 ikasturteetan	
		Matrikula	Estaldura %	Matrikula	Estaldura %	Matrikula	Estaldura %
Araba	Publikoa	1.690	% 61	1.912	% 61	222	% 0
	Pribatua	784	% 28	926	% 29	142	% 1
	Guztira	2.474	% 89	2.838	% 90	364	% 1
Bizkaia	Publikoa	5.281	% 52	5.263	% 51	-18	% -1
	Pribatua	3.903	% 39	4.196	% 41	293	% 2
	Guztira	9.184	% 91	9.459	% 92	275	% 1
Gipuzkoa	Publikoa	3.469	% 51	3.836	% 53	367	% 2
	Pribatua	3.064	% 45	3.032	% 42	-32	% -3
	Guztira	6.533	% 96	6.868	% 96	335	% 0

Bi urteko ikasleen *eskolatze-indizea*, hots, bizitokia zonalde batean duten eta bertako ikastetxe batean eskolatuta dauden haurren (2007an jaiotako) ehunekoa, eskola-zonaldeen arabera aztertzen bada (2. mapa) Euskadi osoan batez beste % 93,1ekoa da, eta zonaldeen hiru laurdenetan % 90 baino handiagoa. Zonalde batzuetan % 100eko gehieneko indize teorikoa gainditzen da, eta horrek biztanle kopuruaren igoera bat adierazten du, migrazio arrazoiengatik edo etxe berriak eraikitzeagatik, edo, baita ere, bizitokia beste zonalde batzuetan duten haurren etorreragatik.

Bizitokiaren zonaldetik eskolatze-zonalderako eskola migrazioen edo lekualdatzeen zenbatekoa zehazten ez denez, eskaintza benetako beharrei egokitze-lana zaildu egiten da. Edozein kasutan ere, begi bistakoa da eskolatze-indize apala duten zonaldeetan eskaintza ez dela nahikoa izaten. Kasu horretan daude Bilboko zonalde batzuk (Basurtu-Zorrotza, Errekalde, Ibaiondo eta Begoña) eta, baita ere, Erandio, Uribe-Kosta, Arrigorriaga, Santurtzi eta Bidasoa.

2. mapa. Bi urtekoen irakasmaila. Eskolatzte-indizea: 2007an jaiotako haurren artean eskolatutakoen kopurua ehunekoetan. 2009-10 ikasturtea



Eskaintzaren nahikotasunaren beste adierazle bat aintzat hartzen badugu, 2 *urtekoen ikasgelen okupazio-tasa ikastetxe publikoetan* (3. mapa eta 1.4 eranskina), oro har hasierako ustea egiaztatu egiten da. Ikastetxe publikoak bereziki aztertzen dira, ikastaldeetako ikasle kopurua ikastetxe pribatuetakoa baino txikiagoa izan ohi delako. Ehunekoa kalkulatzeko, gehieneko okupaziotzat (% 100) 18 ikaslekoa hartu da ikastaldeko, legeak ezartzen duenaren arabera.

Zenbait ikastetxe publikotan, ikastetxean edo inguruko ikastetxeetan ikasgela gehiago antolatzea ezinezkoa izaten denez, zilegia izaten da ikastaldean 23 haur egotea, irakasle kopuruari gehigarri bat eransten zaiolarik. Horregatik zenbait zonaldeetan batez besteko ehunekoak % 100 baino handiagoak dira.

Horrez gain, gogoratu behar da zonalde bakoitzeko ehuneko orokorra kalkulatzeko irakasteredu guztietako ikasgelak kontuan hartzen direla; A eta B irakastereduetako ikasgelen okupazio-tasa, normalean, D eredukoetakoena baino txikiagoa izaten dela kontuan hartzen badugu, eredu horretako ehunekoak 3. mapan jasotzen direnak baino handiagoak dira. Hartara, Vitoria-Gasteizen batez besteko okupazio-tasa % 93koa da, baina D ereduan % 97raino igotzen da.


Argudio hori oinarri bezala harturik, 3. mapa begiratzen dugunean bi urtekoen irakasmilan eskaintza publikoan urritasun arazo bereziak hainbat lekutan izaten direla ikus daitezke: Bilbon (Ibaiondo, Errekalde, Begoña, Abando eta Deustu) eta Vitoria-Gasteizen, ezkerreko udalerrri guztietan (Barakaldo, Sestao, Portugalete eta Santurtzi), Erandion, Durangon eta Getxoko eta Leioako hainbat auzotan. Zonalde guzti horiek, Vitoria-Gasteiz izan ezik, Bizkaiko lurraldean daudela azpimarratu behar da.

Donostiak, berriz, eskaintza zabala du familiek ikastetxea hautatzen duteneko irakasmila horretan, kasu berezietan izan ezik. Antzerako egoeran daude Gipuzkoako barrualdeko zenbait zonalde eta kostalde osoa. Bi nukleo problematiko bereiz daitezke: Bilbo eta bere ingurua, eta Vitoria-Gasteiz.

Bi urtekoen irakasmilako *eskaintzaren nahikotasuna* aztertzeko hirugarren irizpide bezala, zonalde jakin batean eskaintzen diren plazen kopuru orokorra zonaldean adin horretako haur-biztanleriarekin konparatzen da. Lurralde mailan, aurreko emaitzak berresten dira: Gipuzkoan eskaintza biztanleria baino % 12 baino handiagoa da; Bizkaian, berriz, defizita % 5koa da, hots, haurren % 100 eskolatzeari begira eskaintza eta eskaria berdina daitezkeen 500 eskola-plaza baino gehiago beharko lirateke.

Benetako defizita handiagoa da, eskola-plaza kopuruan ez baitira irakasteredu elebidunak bereizten, ezta zonaldeak ere.

3. mapa. 2 urtekoen irakasmala. Ikastetxe publikoetako ikasgelen okupazio-tasa. 2009-10 ikasturtea. (Gehieneko kopurua: 18 plaza ikasgelako)



Bi urtekoen irakasmila. Eskaintzaren nahikotasuna lurraldeen arabera. 2009-10 ikasturtea

	Jaiotzak 2007	Sortutako eskola-plazak			Eskola-plazak/jaiotzak balantzea	
		Ikastetxe publikoetan*	Itunpeko ikastetxeetan*	Guztira *		
Araba	3.140	2.187	972	3.159	19	% 1
Bizkaia	10.287	5.490	4.284	9.774	-513	% -5
Gipuzkoa	7.171	4.680	3.384	8.064	893	% 12
Euskadi	20.596	12.357	8.640	20.997	401	% 2

Plaza kopurua ikasgelako: 18

Hirigune nagusiak aztertzen baditugu, 12 zonaldeetan 2 urtekoen irakasmilako plazaren eskaintza ez da heltzen bertako haurren % 100era. Urritasun hori 500 plazakoa izatera heltzen da Bilbon (Errekalde, Ibaiondo, Basurtu-Zorrotza eta Begoña, 1.19, a eranskinean azaltzen den bezala), ehun eskola-plazakoa baino handiagoa da Vitoria-Gasteizen, Santurtzin, Erandion eta Irunen, eta handi samarra Basaurin, Barakaldon eta Sestaon ere (1.5 eranskina).

Bi urtekoen irakasmila: Jaiotza kopurua baino eskaintza txikiagoa duten udalerriak. 2009-10 ikasturtea

	Jaiotzak 2007	Sortutako eskola-plazak			Eskola-plazak/jaiotzak balantzea	
		Ikastetxe publikoetan*	Itunpeko ikastetxeetan*	Guztira *		
Bilbo	3.071	1.224	1.332	2.556	-515	% -17
Vitoria-Gasteiz	2.468	1.566	756	2.322	-146	% -6
Barakaldo	895	504	306	810	-85	% -9
Irun	652	16	14	540	-102	% -16
Basauri	465	288	90	378	-87	% -19
Santurtzi	439	162	162	324	-115	% -26
Mungia	285	144	126	270	-15	% -5
Erandio	267	126	36	162	-105	% -39
Galdakao	238	198	36	234	-4	% -2
Sestao	237	117	54	171	-66	% -28
Arrigorriaga	211	144	36	180	-31	% -15
Sopelana	176	90	72	162	-14	% -8

Plaza kopurua ikasgelako: 18

Bukatzeko, 2010-11 ikasturterako aurre-matrikula prozesua aztertzen badugu, 2 urtekoen irakasmilan bete gabe geratu diren matrikula-eskaera kopururik handiena ikastetxe publikoen kopururik handienean udalerrri hauetan izan dela ikus daiteke: Vitoria-Gasteiz, Bilbo (Abando, Ibaiondo eta Deustu), Barakaldo eta Erandio.

Horrez gain, ikastetxe publiko bakarria duten beste udalerrri batzuetan (Sopelana, Agurain, Zumaia) eskaera kopuru handia geratu da bete gabe.

1.2.2. Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza.

Hezkuntza etapa horietara sartzen diren haurren kopuruak lotura zuzena du azken urteotako jaiotza-tasaren kurbarekin. Jaiotza kopuruaren gutxienekoaren erpina 1994an gertatu zenez, eta haur haiek 2009-10 ikasturtean 15 urte zituztenez (DBHko 4. maila), beheragoko irakasmaitan eta hezkuntza etapetan ikasle kopurua handiagoa izaten da, eta handitzen noiz arte jarraituko duen aurreikus daiteke.


Lanbide Heziketan faktore bereizgarri bat antzeman daiteke, krisialdi ekonomikoari lotua hori ere.

1.2.2.1. Haur Hezkuntzako bigarren zikloa

61.140 ikasle daude matrikulaturik.



Oro har, ikastetxe publikoetako matrikula apur bat igo da hiru lurraldeetan, eta % 50,3ra heltzen da Arabako tasa handiari esker (% 57,9) (1.7.a eranskina).



3 urtekoen irakasmaitan Hezkuntza Sailak eskaera egiten duten pertsona guztiei ikastetxe publiko batean eskola-plaza bat eskaintzeko legezko konpromisoa du (ikus 1.6. azpiatala).

Eskaintzaren nahikotasunari buruzko azterketa egiteko, 2 urtekoen irakasmaitako eskaintzaren analisia errepikatu da. Eskaintako eskola-plazaren kopurua jaiotza kopuruarekin konparatzen da, jaiotza kopuruari buruzko datuak Euskadiko 3 urtekoen irakasmaitako batez besteko eskolatze indizearekin (% 101,3) gaurkotu ondoren. Indizeak adierazten du eskolatuta dauden haurren kopurua 2006an jaiotako haur kopurua baino % 1,3 handiagoa dela. Igoera hori migrazio-mugimenduen

ondorioa denez, % 1,3ko batez besteko hazkundera udalerriko ikasle etorkinen ehunekoarekin zuzentzen dugu (1.6.a eta 1.6.b eranskinak).

Beste alde batetik, kalkulu bikoitza egin da: aurtengo ikasturterakoa eta, azken urteotako jaiotza kopuruan oinarriturik, epe laburrerako proiektzioa. Kalkulu mota hori (eskolatze indize metatuaren hazkundera zonalde bakoitzean, oraingo balantzea eta etorkizunerako proiektzioa) berriro erabiliko da geroago Lehen Hezkuntzako eta DBHko hasierako irakasmailetan.

Eskariaren eta eskaintzaren arteko balantzea aztertuz gero, 3 urtekoen irakasmilan oraingo eta epe ertainerako defizitak antzematen dira 2 urtekoen irakasmilan aipatutako 12 zonaldeetako 7tan. Hirigunerik handienei dagokienez (Bilbo, Vitoria-Gasteiz, Barakaldo), bete gabeko bezala ageri diren eskola-plazak testuinguruan kokatu behar dira: zonaldeak eta irakastereduak kontuan hartzen ez direnez, benetako beharrak analisi orokorrean antzemandakoak baino handiagoak dira.

3 urtekoen irakasmila: Eskaintza urria edo ez-nahikoa duten udalerriak. 2009-10 ikasturtea.


Jaiotze data →	Eskolatu daitekeen biztanleria (beharrak)		Sortutako eskola-plazak			Eskola-plazak/premiak balantzea	
	2006	2006-2009 Batez bestekoa	Ikastetxe publikoetan*	Itunpeko ikastetxeak*	Guztira *	2009-10	2011-2012 proiektzioa
Bilbo	2.987	3.144	1.495	1.725	3.220	233	76
B4-Begoña	312	320	138	150	288	-24	-32
B5-Ibaiondo	726	739	299	250	549	-177	-190
B7-Errekalde	439	446	161	50	211	-228	-235
B8-Basurtu-Zorrotza	260	298	161	0	161	-99	-137
Vitoria-Gasteiz	2.204	2.344	1.380	1.050	2.430	226	86
Barakaldo	850	917	529	450	979	129	62
Irun	658	654	414	200	614	-44	-40
Santurtzi	429	418	184	200	384	-45	-34
Erandio	274	274	161	50	211	-63	-63
Sestao	240	242	150	75	225	-15	-17
Sopelana	178	171	92	75	167	-11	-4
Arrigorriaga	152	144	92	0	92	-60	-52
Etxebarri	113	129	115	0	115	2	-14

- Plaza kopurua ikasgelako: ikastetxe publikoetan, 23; itunpeko ikastetxeetan, 25.
- Sestaon Haur Hezkuntzan ikastalde gutxiago (beteta) sortu dira Lehen Hezkuntzan baino


Bukatzeko, 2010-11 ikasturterako *aurre-matrikula prozesua* aztertzen badugu, 3 urtekoen irakasmilan bete gabe geratu diren matrikula-eskaera kopururik handiena ikastetxe publikoen kopururik handienean udalerrri hauetan izan dela ikus daiteke: Vitoria-Gasteiz (51 eskaera 9 ikastetxetan), Bilbo (46 eskaera 8 ikastetxetan, batez ere Ibaiondokoetan), Barakaldo (29 eskaera 5 ikastetxetan), Irun (29 eskaera 4 ikastetxetan), Santurtzi (16 eskaera 3 ikastetxetan), Getxo (12 eskaera 4 ikastetxetan), Portugaleta eta Sestao.

1.2.2.2. Lehen Hezkuntza

113.335 ikasle matrikulatu dira, bi urteotako bakoitzean batez besteko % 3ko igoera izan delarik.



Ikastetxe publikoetako matrikula apur bat igo da % 49,9raino. Joera hori hiru lurraldeetan errepikatzen da, eta aurreko hezkuntza etapan Araban gertatzen zena berriro gertatzen da.



Udalerrian Lehen Hezkuntzako 1. mailan eskolatu daitezkeen haurren kopurua kalkulatzeko, jaiotza kopuruari irakasmilako Euskadiko batez besteko eskolatzeko indizea (% 104,3) aplikatzen zaio, udalerriko inmigrazio-ehunekoaren arabera zuzendurik (1.6 eranskina).

Lehen Hezkuntzako (1. mailako) eskaintzaren nahikotasuna eskaintzarik urriena duten udalerrietan (Ratioa: 25 ikasle/gela)


Jaiotze data →	Eskolatu daitezkeen biztanleria		Sortutako eskola-plazak			Balantzea plazak-eskolatu daitezkeen biztanleria	
	2003 (1)	2006-2009 batez bestekoa	Ikastetxe publikoetan	Itunpeko ikastetxeetan	Guztira	2009-10	2013-2014 proiektzioa
Bilbo	2.992	3.291	1.550	1.600	3.150	158	-141
Vitoria-Gasteiz	2.169	2.437	1.325	1.025	2.350	181	-87
Barakaldo	764	947	500	450	950	186	3
Irun	702	671	450	200	650	-52	-21
Santurtzi	424	428	200	200	400	-24	-28
Erandio	268	290	150	50	200	-68	-90
Sestao	258	251	200	75	275	17	24
Sopelana	142	176	75	75	150	8	-26
Arrigorriaga	128	148	75	0	75	-53	-73
Etxebarri	87	133	75	0	75	-12	-58

(1) 2003an jaiotakoak Lehen Hezkuntzako 1. mailan 2009-10 ikasturtean eskolatzen dira


Antzemandako beharrak (irakasmaila horretan eskolatu daitezkeen haurren kopurua) eskaintza errealarekin konparatzen baditugu, eskaintzaren urritasuna orokorra da aipatutako udalerrri guztietan (gogoratu beharrekoa da arestian udalerrri handietako eskola-plaza guztiak betetzeko ezintasunari buruz esandakoa), eta epe laburrean eta termino garbieran ez-nahikoa gertatzen da.

1.2.2.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

69.464 ikasle matrikulatu dira. Igoera txiki bat izan da, hurrengo ikasturteetan sendotzen joango dena.



Hezkuntza-sareei dagokienez, itunpeko ikastetxeek etapa horretan matrikula nabarmenki handiagoa dute ikastetxe publikoek baino, bien arteko aldea murriztuz doan arren. 2009-10 ikasturtean ikastetxe publikoetako matrikula Euskadin % 45,1ekoa izan da, eta Gipuzkoan % 46,2ra heldu da.



Lehen Hezkuntzatik DBHra pasatzerakoan matrikularen banaketan gertatzen den aldaketaren arrazoi bezala etapa horretan ikastetxe pribatuen kopurua ikastetxe publikoena baino handiagoa (3/2 proportzioan) izatea hartu izan da. Arabaren kasuan uste hori egiaztatu egiten da, sare publikoko matrikularen % 10eko galera Bigarren Hezkuntza bakarrik eskaintzen duten itunpeko bi ikastetxe handi egotearen ondorioa izan baita.

Etorkizunerako beharrak aurreikusterakoan, aztertzen den etaparen hasierako irakasmilan (DBH 1) eskolatzeko indizea oso altua da, irakasmaila horri dagokion 1997 urteko jaiotza-indizea baino 14,7 puntu altuagoa. Igoera horren arrazoa, hein batean, migrazioaren balantze positiboa da, eta beste hein batean, irakasmaila errepikatzea. Horren eraginez, errepikatu daitezkeen irakasmiletan (Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailak eta hortik aurrera Bigarren Hezkuntzako irakasmila guztiak) eskolatzeko indizeak altuagoak dira (1.6.a eta 1.6.b eranskinak).


DBHko (1. mailako) eskaintzaren nahikotasuna eskaintzarik urriena duten udalerrietan
(ratioa: publikoan, 25; pribatuan, 30)

	<i>Eskolatu daitekeen biztanleria</i>		<i>Sortutako eskola-plazak</i>			<i>Eskola-plazak/Premiak</i>	
	<i>1997 (1)</i>	<i>2006-2009 batez bestekoa</i>	<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>Itunpeko ikastetxeak</i>	<i>Guztira</i>	<i>2009-10</i>	<i>10 urterako proiektzioa</i>
Bilbo	3.084	3.676	1.525	2.190	3.715	631	39
Vitoria-Gasteiz	2.072	2.706	1.000	1.620	2.620	548	-86
Barakaldo	692	1.045	475	480	955	263	-90
Irun	533	736	425	270	695	162	-41
Santurtzi	383	470	175	300	475	92	5
Erandio	180	326	150	30	180	0	-146
Sestao	288	277	200	120	320	32	43
Sopelana	131	194	75	60	135	4	-59
Etxebarri	61	146	50	0	50	-11	-96

Epe laburrean edo ertainean eskaintza handitzeko beharra antzematen da aztertutako udalerrri gehienetan. Beheragoko etapetan aipatutako faktoreez gain, ikasleak Lehen Hezkuntzatik DBHra pasatzerakoan irakasteredu elebidun aldaketa bat gertatzen da zonalde askotan, eta ondorioz eskaintza egokitu egin behar da.


Derrigorrezko etapak batera kontuan harturik, ikastetxe publikoetako matrikula (% 48,1) itunpeko ikastetxeetakoa baino txikiagoa da, baina bien arteko aldea murriztuz doa, arestian ikusi ahal izan den bezala (4. mapa eta 1.12 eranskina). Banaketa asko aldatzen da eskola-zonalde batetik bestera, biztanle-gune nagusietan itunpeko ikastetxeak finkatuago baitaude, eta Bilboren kasuan, inguruko zonalde batzuek hartzaile funtzioa egiten baitute, adibidez Txorierrri (Derio, Zamudio eta Loiu udalerrriak), eta hein apalagoan Getxo, Leioa eta Amorebieta.

4. mapa. Derrigorrezko Hezkuntzan (6-16 urte) ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasle kopurua ehunekoetan 56-zonaldeetan. 2009-10 ikasturtea




1.2.2.4. Batxilergoa

Batxilergoko matrikulak beheranzko joera nabarmena izan du azken hamarkadan, eta joera hori lehenengoz 2009-10 ikasturtean eten da, 28.973 ikasle matrikulatu direlarik.




Hezkuntza-sareei dagokienez, ikastetxe publikoetan ikasleen % 52,4 matrikulatu da. Arabako lurraldean izan den beherakada nabarmena azpimarratu beharko litzateke.




1.2.2.5. Lanbide Heziketa

Euskadiko langabezia-tasa bikoiztu duen krisialdi ekonomikoaren egoeran, etengabe handitzen ari da lanbide gaitasuna hobetzera bideratutako ikasketen eskaria. Hartara, 2009-10 ikasturtean erdiko eta goi mailako zikloetako ikasleen matrikulak hazkunde handia izan du, % 9koa aurreko ikasturteko matrikularekiko, 27.647 ikasle matrikulatu baitira.




Hazkunde hori batez ere ikastetxe publikoetan gertatu da, eta kuota % 53raino igo da.




Etapen laburpena

Oro har, etapa ez-unibertsitarioetako matrikula 2003-04 ikasturteetik handitu izan da, azken bi ikasturteotan % 1,8ko eta % 2,4ko erritmoan hurrenez hurren (1.7.b eranskina).




Ikastetxe publikoetako matrikularen bilakaeraren laburpena etapa bakoitzean beheko grafikoan azaltzen da.



1.2.3. Itunpeko ikastetxeen elkarterik handien finkatzea

Euskadiko itunpeko ikastetxeen elkarterik handiena Kristau Eskola da, eta sare pribatuko matrikularen erdia baino apur bat gehiago hartzen du, hau da, hezkuntza sistema osoaren laurden bat baino apur bat gehiago. Kopuru orokorretan handitu bada ere (1.8 eranskina), ehunekoetan jaitsi egin da azken lau urteotan.


Ikastetxe pribatuen elkarteetan matrikulatutako ikasle kopurua, ikasle guztien ehunekoetan etapen arabera. 2005-06 eta 2009-10 ikasturte bitarteko bilakaera



Bigarren tokian Partaide dago. Urte horietan apur bat hazi da sistema osoaren % 11,4ko kuota lortu arte, ikastetxe pribatuen sarearen laurdena baino apur bat gutxiago.

Partaide elkarteak integraturik ez dauden kooperatibek hezkuntza sistemaren % 4,2 osatzen dute, eta beste elkarte txikien artean, Bizkaiko elizbarrutiko ikastetxeak daude (% 2,3) eta askotariko elkarte multzo bat, batzuk erlijiosoak, beste batzuk, batez ere Lanbide Heziketakoak, inongo elkarteko kide ez direnak (ikus ikastetxeen zerrenda bukaerako eranskinean).

Termino erlatiboetan, Kristau Eskola elkarteak batez ere DBHn finkaturik dago, etapa horretan ikastetxe kopuru handia baitu (% 32,3). Partaide elkarteak kuotarik handiena Haur Hezkuntzako 2. zikloan du (% 13,7), bere goranzko joeraren erakusgarri.



1.2.4 Hezkuntza-eskaintza eta udalerriko biztanleriaren tamaina

Ikastetxeen sarearen araberrako banaketa geografikoa ez da homoginoa. Biztanleria handiko hiriguneetan ikastetxe publikoen eta pribatuen eskaintza izaten da, baina hezkuntza-zerbitzuak dituzten biztanle gutxiagoko herrietan hezkuntza-eskaintza publikoa bakarrik izaten da.

Hartara, *Haur Hezkuntzako* eta *Lehen Hezkuntzako* etapetan Euskadiko 251 udalerrietatik hezkuntza publikoa 171 udalerritan eskaintzen da, eta hezkuntza pribatua 75 udalerritan. 10.000 biztanletik gorako hiriguneen artean bitan bakarrik ez da hezkuntza pribatua eskaintzen, eta bi sareen arteko eskaintza-aldeak handiagoak izaten dira 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan: horien arteko 105ek dute ikastetxe publiko bat edo gehiago, baina 16k bakarrik dute itunpeko ikastetxerik.

Hezkuntza-eskaintza publikoa eta pribatua Haur Hezkuntzako (2. zikloa) eta Lehen Hezkuntzako etapetan udalerriko biztanleriaren tamainaren arabera. Biztanleria-tarte bakoitzeko udalerrri eta ikastetxe kopurua. 2009-10 ikasturtea

Tamaina	Udalerrriak			Ikastetxeak	
	Guztira	Eskaintza publikoa dutenak	Eskaintza pribatua dutenak	Publikoak	Pribatuak
> 20.000	18	18	18	155	131
10.000-20.000	22	22	20	38	42
5.000-10.000	28	26	21	33	24
2.000-5.000	35	32	11	32	15
1.000-2.000	48	40	3	43	3
500-1.000	37	21	1	21	1
< 500	63	11	1	11	1
Guztira	251	170	75	333	217

Hala ere, tamaina ertaineko zenbait udalerritan ez dago hezkuntza-eskaintza publikorik etapa horietan, 2.000 biztanletik gorako 5 udalerritan hain zuzen ere: Zumarraga (9.866), Lazkao (5.247), Astigarraga (4.696), Ibarra (4.307) eta Loiu (2.477). Zumarraga eta Urretxuko udalek hitzartuta dute bi udaletako ikasleak Urretxun eskolatzea.

Bigarren Hezkuntzan egoera ezberdina da bi alderditan. Alde batetik, etapa horretako modalitate batean (DBH, Batxilergoa, Lanbide Heziketa) eskaintza publikoa duten udalerrriak (79) askoz urriagoak dira Lehen Hezkuntzaren kasuan (171) baino. Itunpeko hezkuntza-eskaintzan, berriz, ez dago alde handirik (72 udalerrri, 75 Lehen Hezkuntzan). Ondorioz, hezkuntza-eskaintza duten udalerrien kopurua erdira murrizten da.

Hezkuntza-eskaintza publikoa eta pribatua Bigarren Hezkuntzan udalerriko biztanleriaren tamainaren arabera. Biztanleria-tarte bakoitzeko udalerrri eta ikastetxe kopurua. 2009-10 ikast.

Tamaina	Udalerrriak			Ikastetxeak	
	Guztira	Eskaintza publikoa dutenak	Eskaintza pribatua dutenak	Publikoak	Pribatuak
> 20.000	18	18	18	97	170
10.000-20.000	22	22	20	38	41
5.000-10.000	28	23	21	25	27
2.000-5.000	35	12	10	13	16
1.000-2.000	48	3	2	3	2
500-1.000	37	1	1	1	2
< 500	63	0	0	0	0
Guztira	251	79	72	177	258

Beste alde batetik, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuen kopurua publikoena baino askoz handiagoa da: 258 ikastetxe pribatu eta 177 publiko. Aldea handiagoa izaten da udalerrri handietan; 20.000 biztanletik gorakoetan ikastetxe pribatuen kopurua (170) ikastetxe publikoen kopurua (97) baino ia bi aldiz handiagoa da. Alde horien banaketa geografikoa Kontseiluaren 2005-2006 txostenean aztertu zen (7. mapa, 2.2.1 puntuan).

1.3. Ekonomia, gizarte eta kultura adierazleak

Hezkuntzari buruzko ikerlanetatik ondorio nagusi bat atera daiteke: ikasketa-emaitei gehien eragiten dien faktorerik garrantzitsuena haurrek eta nerabeek familian duten egoera da, egoera horren barruan alderdi ekonomikoak, sozialak eta kulturalak sartzen direlarik.

Eragin horren nondik norakoak ikuspuntu estatistikotik ezagutu ahal izateko, nazioarteko erakundeek ISEK akronimoz ezagun den adierazlea diseinatu dute. Adierazle horrek askotariko aldagaiak biltzen ditu eta bere osaera, banaketa eta bilakaera 1.3.2. azpiatalean azalduko dira.

Horrez gain, badira ikasleriaren egoera ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren beste adierazle batzuk ere, besteak beste, ikastetxeetako dirulaguntzadunen kopurua (adierazle ekonomikoa) eta atzerritar jatorriko ikasleen kopurua, egoera sozialaz eta kulturalaz gain, sarritan egoera ekonomikoa ere islatzen duena. Bigarren mailako dei diezaiekegun adierazle horiek ISEK indizearen osagarriak dira eta laguntza handikoak indizea bere osotasunean ulertu ahal izateko. ISEK indizea Euskadin ISEI-IVEIk neurtu ohi du ikasleen PISA ebaluazioan eta ebaluazio diagnostikoan.

Testuinguruaren aldetiko faktoreei gagozkielarik, biztanleria orokorraren adierazle ekonomikoak eskualdez eskualde ikastetxeko eta eskualdeko ISEK indizearekin konparatzea ere baliagarria izaten da.

1.3.1. Euskadiko adierazle sozio-ekonomikoak


Eustatek 2006ko banakako errentari buruzko estatistika argitaratu du, udalerrien arabera sailkaturik eta hiriburuen kasuan auzoen arabera. Estatistikari horri esker, eskola-zonalde bakoitzeko batez besteko errenta kalkula daiteke.

Beste alde batetik, banakako errentarik urriena –batzuetan beharrik behinenak betetzeko nahikoa ez dena– dutenen kolektiboek dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak lau urtez behin argitaratzen du Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. Kontseiluaren 2005-2006 Txostenean 2004ko inkestaren emaitzak jaso ziren, eta oraingo honetan 2008ko inkestaren emaitzak jaso dira.

1.3.1.1. Banakako errenta

Gure erkidegoan errentarik handiena duten zonaldeak (5. mapa) honako hauek dira: Bilbo erdialdeko barrutia (Abando), Nerbioi ibaiaren eskuinaldeko udalerririk Erandio izan ezik, Donostiako eta Vitoria-Gasteizko zenbait zonalde, Gipuzkoako

5. mapa. Banakako errenta eskola-zonaldeen arabera. 2006. urtea (iturria: EUSTAT)



barrualdeko zonalde batzuk (Arrasate, Bergara, Oria Garaia eta Deba) eta Bizkaiko barrualdeko beste batzuk (Galdakao, Amorebieta-Etxano eta Igorre).

Errentarik apalena duten zonaldeak, berriz, honako hauek dira: Bizkaian, Nerbioi ibaiaren ezkeraldeko udalerrri guztiak, Bilboko bi barruti (Txurdinaga-Otxarkoaga eta Bilbo Zaharra), Erandio, Ermua eta Lea-Artibai; Gipuzkoan, Donostiako ekialdeko barrutia eta Errenteria, eta hein txikiagoan Hernani eta Andoain; Araban, ekialdeko landa-guneak.

1.3.1.2. Pobrezia

Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDI) Euskadi osorako % 4,7ko pobrezia-tasa erakutsi du, lau urte lehenagokoak baino puntu erdia txikiagoa, 2004-2008 urte bitarteko hazkunde ekonomikoaren ondorioz. Ondorengo urteetako tasak berriro haziko direla pentsa daiteke.

Eustatek eskualdeka egiten duen banaketan egiaztatzen da Bilbon “pobrezia-arriskuko egoeren presentzia” –horrela deitzen da adierazlea– (% 9,4) erkidegoko batez bestekoa baino bi aldiz handiagoa dela. Beste zonalde batek bakarrik gainditzen du Euskadiko batez bestekoa, Ezkeraldea alegia (% 5,2), baina Bilboko tasatik oso urrun.

Estutasun-egoera horietan dauden ikasleek, zalantzarik gabe, ISEK indize baxua eta ikasketak aurrera ateratzeko zailtasunak ere izango dituzte.

Pobrezia-arriskuko egoeren maiztasuna Euskadin. 2004. eta 2008. urteetan.


<i>Eskualdeak (Eustat)</i>	2004	2008
Vitoria-Gasteiz	3,8	4,0
Aiala	0,9	4,1
Eskuinaldea	5,5	3,0
Bilbo	11,5	9,4
Ezkeraldea	4,4	5,2
Bizkaia iparraldea	4,7	3,5
Durungaldea	2,6	3,6
Donostialdea	4,0	3,5
Tolosa-Goierri	3,7	1,8
Deba Garaia	2,4	0,5
Debarrena	2,6	2,5
Euskadi	5,2	4,7

Era berean, ikerlanak pobrezia-arriskuko egoera horiekin lotutako bi faktore erakutsi ditu, azpimarratu beharrekoak: adina eta herritartasuna.

Adin piramidearen barruan, heldu gazteek adinekoek baino arrisku handiagoa dute. Hartara, familiako “pertsona nagusia” 35 urtetik beherakoa deneko kasuetan pobrezia-tasa (% 10,9) batez besteko orokorra baino bi aldiz handiagoa da. Goragoko adin-tartean ere, 44 urte artekoen kasuan, pobrezia-tasak aise gainditzen du batez


besteko orokorra. Hezkuntza sisteman ikasten ari diren haurren guraso gehienak adin horietakoak dira, eta, beraz, eskolako ikasleen pobrezia-tasa tasa orokorra (% 4,7) baino nahiko handiagoa dela esan daiteke.

Pobrezia-arriskuko egoeren maiztasuna Euskadin, etxeko pertsona nagusiaren adinaren arabera. Familia etxeetako populazioa.



Pobreziaren maiztasunari gehien eragiten dion faktorea herritartasuna da. Euskadin, pobrezia-arriskua Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan jaiotako en artean Euskadin eta Estatuko gainerako erkidegoetan jaiotako en artean baino 10 aldiz handiagoa da.

Pobrezia-arriskuko egoeren maiztasuna Euskadin etxeko pertsona nagusiaren herritartasunaren arabera. Familia etxeetako populazioa



1.3.2. ISEK adierazleak ikastetxeetan

Ikasleen maila edo estatus ekonomikoaren, sozialaren eta kulturalaren adierazleak (ISEK) korrelazio estatistikoa izaten dute oinarrizko hezkuntza-gaitasunak ikaste eta eskuratze prozesuaren ebaluazioaren emaitzekiko. Hau da, behin ikasle baten edo ikastetxe bateko ISEK indizea ezagutuz gero, ebaluazioan nolako emaitzak izango dituen nolabaiteko errakuntza-tarte batekin aurreikus daiteke.

Planteamendu horren arabera, hezkuntza prozesuetan zehar batez bestekoa baino balio erantsi handiagoa sortzen duten ikastetxeek emaitza hobeak lortzen dituzte beren ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeenak baino. Beste muturrean, berriz, ikastetxe batzuk ez lirateke helduko beren ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeen emaitzetara. Horrek adieraziko luke ikastetxe horiek, besteak beste, beren

antolamendua, ikaste-irakaste prozesuen gauzapena, metodologia eta abar hobetu beharko lituzketela. Beraz, hezkuntzan operazio-ikerketarako esparru berri bat zabaltzen da, krisialdietako eraginkortasunaren paradigmen izenean baztertu ezin dezakeguna.

Ildo horretatik, Euskadiko Eskola Kontseiluak PISA ebaluazioak nazioarte mailan eta ebaluazio diagnostikoak gure esparruan duten balioa aitortzen du, ikerketa-ekintzaren ikuspuntu dinamikoa hezkuntza sistema osora zabaltzeko bide egokiak baitira. Dinamika horretan agente guztiak partaide sentituko dira, eta esperientziarik onenak guztiei jakinaraziko zaizkie, esperientzia ez hain eraginkorrak izan dituzten ikastetxeek beregana ditzaten.

Ondorengo atalean adierazlea deskribatuko dugu, geroago ebaluazioaz dihardugunean, emaitzekin duen lotura aztertu ahal izateko.

1.3.2.1. ISEK indizea PISA ebaluazioan eta ebaluazio diagnostikoan

PISAKo ISEK indizea pisu bereko hiru adierazle partzialek osatzen dute, honako hau neurtzen dutenak:


- Aitaren edo amaren ikasketa mailarik altuena
- Gurasoen lanbidea
- Baliabide kultural –material eta formal– jakin batzuen presentzia etxean.

Ebaluazio diagnostikoko ISEK indizea antzerakoa da, baina lau faktorek osatzen dute.

Beste alde batetik, bi ebaluazioen diseinuan hezkuntza-sareak eta irakasteredu elebidunak osatzen duten geruza ikerlanerako aldagai nagusitzat hartzen da. Hiru irakastereduak bi hezkuntza-sareekin konbinatzearen ondorioz sei geruza sortzen dira.

Ikastetxe pribatuen sareko hiru geruzetako ISEK indizea sare publikoko edozein geruzetako ISEK indizeak baino altuagoa da. Geruzen sailkapena ebaluazio guztietan zehar mantendu da geruzen arteko aldeak areagotzeko joerarekin, Kontseiluak 2006-2008 Txostenean 15 urteko ikasleek (1989an eta 1991n jaiোক) egin zuten PISA 2003 eta PISA 2006 ebaluazioak erkatzerakoan baieztatu zuen bezala.

Azken denbora-tarte honetan egindako ebaluazioei buruzko datuak erantsi ondoren (PISA 2009 ebaluazioa eta 2009ko eta 2010eko ebaluazio diagnostikoak) joera bera mantentzen dela ikus daiteke.



Aipatutako probak egin zituzten ikasleen jaioturtea kontuan hartzen badugu, ebaluazioen artean hiru edo lau urteko tartea dagoela ikus daiteke, taulak adierazten duen bezala.

Epe luzean, sare publikoko ikasleen batez besteko ISEK indizea balio negatiboan mantentzen da (-0,25), baina ikastetxe pribatuetako ikasleen ISEK indizea batez beste bi hamarren baino gehiago hazi da (0,01etik 0,24ra) 12 urteko tarte batean.

Horrez gain, ISEK indizerik altuena eta apalena duten geruzek haien arteko eta gainontzekoekiko aldeak handitu egin dituzte. Baliorik altuena izan duen geruza A eredu pribatua da, eta azken ebaluazioetan 0,58ko ISEK indizea izan du. Baliorik apalena A eredu publikoak izan du (-1,19).


Aldeak areagotzearen zergatia bi eredu horietan gero eta ikasle gutxiago egotea da; bereziki, A eredu pribatuak gaur egun Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 5 eskolatzen du, duela 13 urte % 26 eskolatzen zuelarik. Denbora aurrera joan ahala, geruzaren ezaugarriak bereiztu egiten dira: ikastetxe publikoetako A ereduko ikastaldeetan gero eta ikasle etorkin gehiago eskolatzen dira (derrigorrezko etapetan ikasleen erdia baino gutxiago); eta sare pribatuko A eredu gero eta gehiago lotzen zaio gizarte maila altuari.

Ikasleen ISEK indizearen bilakaera: PISA 2003, 2006 eta 2009. 2009ko eta 2010eko ebaluazio diagnostikoak

Proba mota →	PISA			Ebaluazio diagnostikoa			
	2003	2006	2009	DBH 2, 2009-2010	LH 4, 2009-2010		
Probaren urtea →	2003	2006	2009	DBH 2, 2009-2010	LH 4, 2009-2010		
Jaioturtea →	1988	1991	1994	1996-1997	2000-2001		
	Ikasleen %	ISEK	ISEK	ISEK	Ikasleen %	ISEK	
A publikoa	% 7	-0,30	-0,75	-0,71	-0,92	% 3	-1,19
B publikoa	% 9	-0,42	-0,44	-0,46	-0,41	% 7	-0,47
D publikoa	% 23	-0,17	-0,10	-0,22	-0,10	% 40	-0,14
A pribatua	% 26	0,10	0,18	0,29	0,21	% 5	0,58
B pribatua	% 16	-0,14	0,03	-0,04	0,10	% 23	0,18
D pribatua	% 19	0,00	0,09	0,11	0,19	% 22	0,22
Euskadi	% 100	-0,10	-0,04	-0,06	-0,03	% 100	-0,01
Publikoa guztira	% 38	-0,25			-0,24	% 50	-0,25
Pribatua guztira	% 62	0,01			0,16	% 50	0,24

(*) Irakasmila errepikatu ez badu

6. mapa. Ikasleen ISEK indizea zonaldeen eta barrutien arabera. 2009ko eta 2010eko lau ebaluazio diagnostikoetako batez bestekoa (LH 4 eta DBH 2)



ISEK indizea eskola-mapako zonaldeetan nola banatzen den aztertzeko (6. mapa eta 1.10 eranskina) 5. mapa –biztanleria osoaren errentaren adierazle ekonomikoa– erabil dezakegu konparazio gisa, errentarik handieneko eta apaleneko zonaldeen ezaugarrietan kidesunak eta ezberdintasun gutxi batzuk azaltzeko.

ISEK indizerik altueneko zonaldeen artean berriro aipatu behar ditugu Bilbo erdiko barrutia (Abando), Nerbioaren eskuinaldeko udalerrak Erandio izan ezik, eta Donostia eta Vitoria-Gasteiz hiriburuetakozko zonalde batzuk.

Bizkaiko eta batez ere Gipuzkoako barrualdeko zonalde batzuk, ordea, errentaren aldetiko sailkapenean goiko aldean egon arren, ISEK indizearen sailkapenean toki ertain altuan geratu dira.

Beste ezberdintasun nabarmen bat antzematen da: beste zonalde batzuetako ikasleak hartzen dituzten zonalde batzuek errentaren araberrako sailkapenean duten toki altua ISEK indizearen sailkapenean hobetu egin dute, haien artean Txorierrri lehenengo tokian (0,71) jarri delarik.

ISEK indizerik apalena duten zonaldeen artean, errentaren sailkapenarekin konparaturik, honako hauek mantentzen dira: Bizkaian, Bilboko Ibaiondo barrutia, Sestao, Erandio eta Ermua; Gipuzkoan, Donostiako ekialdeko barrutia, Andoain, Erreterria eta Hernani; eta Araban, ekialdeko landa-guneak.

Desberdintasunik nabariena Nerbioiren ezker aldeko udalerrien kasuan gertatzen da Sestaon izan ezik, ISEK indizearen araberrako sailkapenean toki altuagoan baitaude (maila ertain baxua) errentaren araberrako sailkapenean baino.

Txorierriren kasuan esandakoaren kontrapuntu bezala, Errekalderen eta Basurtu-Zorrotzaren kasuak ditugu, errentaren araberrako sailkapenean toki ertain baxuan egotetik ISEK indizearen araberrako sailkapenean azkenetakoak izatera pasa baitira. Zonalde horietan matrikularen eskaintzaren urritasuna alde zurreretik antzemanda zegoen.

Bi adierazleen arteko adostasun orokorraren barruan, errentaren adierazle ekonomikoaren eta ISEK indizearen arteko aldeei buruz ondoriorik atera behar bagenu, bi alderdi azpimarra litezke:

- Adierazle ekonomikoak puntu kopuru handiagoa ematen die landa-guneei, eta ISEK indizeak, berriz, hiriguneei.
- Zenbait zonaldeetako ikasleak hein handi batean beste zonalde batzuetan eskolatzen dira. Jatorrizko zonalde horietako ikastetxeetako ISEK indizea adierazle ekonomikoa baino apalagoa izaten da, beste zonalde batera mugitzen den ikasleriaren maila ekonomikoa zonaldekoa baino altuagoa baita. Alderantziz, eskaintza barneko eskaria baino askoz handiagoa duten zonaldeetan ISEK indizea adierazle ekonomikoa baino altuagoa izaten da.

1.3.2.2. Dirulaguntzadunen kopurua ikastetxeetan

Adierazle ekonomiko hutsa da, dirulaguntzaren zenbatekoa –kasu horretan eskola-materiala erosteko– familiaren diru sarrerek senide kopurua kontuan izanik baldintzatzen baitute. Hala izan zen 2004-05 ikasturteko erregistroan, gutxienez zentzu hertsian. Erregistro hura aurreko txosten batean jaso zen, eta oraingo honetan PISA ebaluazioko eta ebaluazio diagnostikoko ISEK indizearekiko kontraste gisa aipatzen da.

Alde horretatik errentaren adierazlea bezalakoa da, baina bakoitzak multzo ezberdin bat neurtzen du: dirulaguntzadunen kopurua eskola-adierazlea da –ISEK indizea kasu–, eta zonaldean eskolatuta dauden ikasleak kontuan hartzen ditu; errentaren adierazleak zonaldeko biztanleria osoa hartzen du kontuan.

Ildo horretatik, 1.11 eranskinean 3 adierazleen konparazio bat aurkezten da, ISEK indizearen eta errentaren adierazlearen arteko ezberdintasunak gainditzen dituen, kasu batean adierazle bati eta beste kasu batean besteari eransten zaiolarik, arestian deskribatu diren bi erlazioen arabera. Hartara, dirulaguntzadunen kopurua ehunekoetan aztertzean:

- Gipuzkoako eta Bizkaiko barrualdeko zonaldeak goiko aldeko tokietan daude berriro, errentaren adierazlearen kasuan bezala, alderdi ekonomikoa neurtzen duelako.
- Txorierrri eta Errekalde muturreko tokietan daude, ISEK indizearen kasuan bezala, zonaldean eskolatutako ikasleak kontuan hartzen dituelako.

1.3.2.3. Atzerritar jatorriko ikasleak

Atzerritar jatorriko ikasleei buruzko datuei nolabaiteko zehaztasuna falta izan zaie.

Aurreko txostenerako eta oraingo 2008-2010 txostenerako ere Kontseiluak atzerritar jatorriko ikasleei buruzko informazioa Hezkuntza Sailak Legebiltzarrari 2008ko ekainean eta 2010eko otsailean bidalitako dokumentazioan oinarritu du. Informazio hori bat dator Estatuko estatistiketan adierazle horri ematen zaizkion balioekin eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak argitaratutako dokumentazioarekin. Beraz, oso datu fidagarriak dira, batez ere azken denbora tartean izan den bilakaeraren analisisan. Erabateko ziurtasuna izatearren, kalkulua derrigorrezko hezkuntza etapetara (Lehen Hezkuntza eta DBH) mugatu da, Oinarrizko Hezkuntza izenburupean.


Kontzeptuaren egokitasunaren aldetik, adierazle hori ikastetxeetako ISEK indizearen barruan testuinguru-aldagai bezala sartzea justifika daiteke, adierazle ekonomikoek inmigrazioaren parterik handiena (Europako Ekonomia Erkidegotik kanpokoa) mailarik apalenetan kokatzen baitute; hain zuzen ere, pobrezia-arriskuko goeren maiztasuna jaso dugu, bertoko biztanleriaren artekoa baino 10 aldiz

handiagoa. Emaitzen aldetik, faktore horren garrantzia txosten honen 3. atalean egiaztatuko dugu.

a) Banaketa geografikoa


2009-10 ikasturtean Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen % 8,1 etorkina izan da, 2007-08 ikasturtean % 7 izan zelarik. Bizkaia (% 9) Arabaren mailara (% 10,2) hurbildu da, baina biak Gipuzkoako ehunekotik (% 5,9) urrun samar.

Oinarrizko Hezkuntzako ikasle etorkinen kopurua ehunekoetan, lurraldeen arabera. 2006-2010 urte bitarteko bilakaera




Hiriburuei dagokienez, lurraldeen kasuan ez bezala, Bilbo (% 12,6) Vitoria-Gasteizen aurretik (% 11) jarri da, Donostia (% 5,3) oso urrun dagoelarik.

Ikasle etorkinen matrikularen bilakaera hiru hiriburuetan. Oinarrizko Hezkuntza, 2006-2010



Aurreko bi banaketetan gertatu den bezala, 56 zonaldeetako mapan (7. mapa eta 1.12 eranskina) Bilboko zonalde batzuk azpimarratu beharko lirateke beste batzuekin batera (Erandio, Mungia, Igorre, Vitoria-Gasteizeko zonalde batzuk, Arabaren hegoaldea eta Gipuzkoako zonalde bakar bat, Donostiako ekialdeko barrutia, aurreko mapetan aipatu den bezala), ikasleen % 20 inguru etorkinak baitira.


7. mapa. Derrigorrezko hezkuntza-etapetako (6-16 urte) ikasle etorkinen kopurua ehunekoetan, eskola-maparen 56 zonaldeen arabera. 2010eko otsaila



b) Banaketa ikastetxe motaren arabera

Azken bi urteotako bilakaerak ikastetxe publikoetako eta ikastetxe pribatuetako ikasle etorkinen eskolatze-tasen arteko aldea handitu egin dela islatzen du. 2008. urtean tasa horiek, hurrenez hurren, % 9,3 eta % 5,0 ziren, eta aldea, beraz, 4,3 puntukoa zen, baina orain aldea 5,5 puntutara heltzen da; ikastetxe publikoetako tasa (% 11,0) ikastetxe pribatuetako orokorra (% 5,5) baino bi aldiz handiagoa da.

Ikasle etorkinen kopurua ehunekoetan Oinarrizko Hezkuntzan, hezkuntza-sareen eta lurraldeen arabera. 2008-2010 bilakaera.




Hezkuntza-sareen arteko aldea handiagoa da Araban, baina azken denbora tartean beste bi lurraldeak urrundu egin dira banaketa orekatu baten helburutik. Gipuzkoaren kasuan, hain zuzen ere, ikastetxe publikoetan ikasle etorkinen kopuruaren hazkundera ikastetxe pribatuetako kopuruaren hazkundera baino 5 aldiz handiagoa da.

Ikaslerik gehienak 1.6 azpiatalean deskribatuko diren Tokiko Eskolatze Batzordeek banatzen dituzte ikastetxeetan. Ondoren, matrikulazio arrunta egiteko garaian familiek aukeratzen dute ikastetxea. Tokiko Eskolatze Batzordeek 2008-09 eta 2009-10 ikasturteei buruz emandako dokumentazioa aztertzen badugu, urte haietan hezkuntza-sareen arteko banaketa orekatua lortzeko helburua ez zela lehentasunezkoa ikus dezakegu.

Hezkuntza-sare pribatuaren barruan, ikastetxe ia gehienak itunpekoak dira, eta alde nabarmena dago Kristau Eskola elkarte nagusiaren eta sektoreko gainontzeko elkarte edo patronalen artean, Kristau Eskolako eskolatze-tasa (% 7,6) Erkidegoko batez bestekotik hurbil dagoelarik.

Ikasle etorkinen kopurua ehunekoetan Oinarrizko Hezkuntzan, hezkuntza-sareen eta patronalen arabera. 2006-2010 bilakaera.



Hezkuntza-sare bakoitzak eskolatzen dituen ikasle guztien artean ikasle etorkinen ehunekoaren arteko ratioa kalkulatzen bada, Euskadi osorako 2 balioa kalkulatzen bada, udalerririk populatuena balioa ondoriozta daiteke. Hartara, arrazoi teknikoengatik batera aztertzen diren Getxo eta Leioa zonaldeetan, ikasle etorkinen tasa ikastetxe publikoetan (% 17,6) ikastetxe pribatuetan (% 3,3) baino 5,3 aldiz handiagoa da, hau da, banaketa ez da Euskadi osoan bezain orekatua edo bidezkoa.

Beraz, desoreka indize bat aipa daiteke (ekitate faltaren zentzuan) atzeritar jatorriko ikasleak bi hezkuntza-sareetan banatzen direnean.


Ikasle etorkinen kopurua ehunekoetan Euskadiko 6 hiririk handienetan ikastetxe motaren arabera eta publiko/pribatu ratioaren arabera (“banaketaren desoreka indizea”). 2009-10.

	<i>Ikastetxe publikoetan</i>	<i>Itunpeko ikastetxeetan</i>	<i>Guztira</i>	<i>Banaketaren desoreka indizea</i>
Bilbo	% 17,5	% 9,4	% 12,6	1,9
Vitoria-Gasteiz	% 17,6	% 5,4	% 11,0	3,3
Donostia	% 6,7	% 4,5	% 5,3	1,5
Barakaldo	% 12,1	% 7,1	% 9,4	1,7
Getxo + Leioa	% 17,6	% 3,3	% 8,7	5,3
Irun	% 10,3	% 5,8	% 8,6	1,8
Euskadi	% 11,0	% 5,5	% 8,1	2,0

Kalkulua eskola-mapako zonaldeetara zabaltzen badugu (ikus 8. mapa eta 1.13 eranskina), banaketa desorekatuagoa aurki dezakegu zenbait zonaldeetan (Galdakao, Amorebieta, Mungia, Txorierrri, Portugalete eta Sestao) eta arestian aipatutako herrietan, banaketaren desoreka tasa Erkidegoko batez bestekoa baino bi edo hiru aldiz handiagoa baitute.

Gipuzkoako zonalderik gehienetan eta Bizkaiko gutxi batzuetan, berriz, itunpeko ikastetxeetako tasak ikastetxe publikoetako antzekoak dira, zenbait kasutan handiagoak direlarik. Beste alde batetik, sarritan argudiatu izan da horrelako ikasleak ikastetxe jakin batzuetan kontzentratzeak ikas-helburuak lortzearen aldetiko itzaropenak ahultzea dakarrela eta, beraz, saihestu beharreko faktorea dela.

8. mapa. Ikasle etorkinen banaketaren desoreka indizea hezkuntza-sareen artean Oinarrizko Hezkuntzan (6-16 urte) 56 zonaldeetan. 2010eko otsaila



Ikasle etorkinak ikasle guztien % 40 baino gehiago direneko ikastetxeak udalerrien eta hezkuntza-sareetan nola banatuta dauden aztertzen badugu, zerrendako 34 ikastetxeetatik 26 publikoak eta 8 itunpekoak direla ikus dezakegu, eta lekuari dagokionez, 16 ikastetxe Bilbon daudela eta 9, Vitoria-Gasteizen.


Barakaldon, Leioan eta Getxon arazo bera gertatzen da, baina bigarren maila batean.

Atzerritar ikasleen ehuneko handia matrikulatzen duten ikastetxe gehien duten udalerrien zerrenda. 2009-10 ikasturtea

Udalerria	Ikastetxe publikoak		Ikastetxe pribatuak	
	> % 40	% 20-40	> % 40	% 20-40
Bilbo	11	10	5	2
Vitoria-Gasteiz	9	5		1
Leioa-Getxo	2	5		1
Barakaldo	1	4	1	
Donostia		2	1	1
Basauri	1	1		
Portugalete	1	1		
Erandio	1			
Urdaibai			1	
Bidasoa		5		
Arabako Errioxa		3		
Mungia		3		
(.../...)				
Euskadi	26	52	8	8

Irakastereduak konparatzerakoan, ikasle etorkinen tasa A ereduan, handia bazen ere, gainontzeko ereduetan baino askoz gehiago handitu dela ikus daiteke. ISEK indizea deskribatzean azaldu dugun bezala, horren arrazoi nagusia A ereduko ikasle kopuru orokorraren jaitsiera da.


Ikasle etorkinen kopurua ehunekoetan Oinarrizko Hezkuntzan (6-16 urte) irakasteredu lebidun bakoitzean. 2008-2010 bilakaera.



Hezkuntza-sareak bereizten baditugu, desoreka nabariago geratzen da. A eredu publikoaren geruzan matrikula oso txikia denez, ikasle etorkinen tasa oso handia da, % 48,8ra heltzen baita. B eredu publikoaren geruzako tasa ere (% 19,3) kontuan hartu

beharrekoa da, eta baita bi urtetan izan duen 4 puntu baino gehiagoko igoera ere. Gauza jakina da sare publikoko zonalde gehienetan A ereduko ikastetxerik ez dagoela, eta euskalduntze ez hain intentsiboa eskaintzen duen eredia B eredia dela. Beraz, antzerako ezaugarriak dituzten bi geruza daudela esan daiteke, baina intentsitate ezberdinekoak.

Ikasle etorkinen kopurua ehunekoetan Oinarrizko Hezkuntzan (6-16 urte) hezkuntza-sarearen eta irakasteredu elebidunaren arabera. 2008-2010 bilakaera.



ISEK adierazleen atalaren eranskin gisa, ikasketak aurrera ateratzeko itxaropenei zuzen eragiten dieten faktore guztiak aztertzerakoan, ezin dugu ahaztu gutxiengo etnikoen arazoa, eta bereziki *ijito etniako ikasleak*.

Ikasle horiek, 2005-06 ikasturteko gaurkotu gabeko datuen arabera, 3 eta 16 urte bitarteko ikasleen % 1,2 ziren, 2.700 ikasle inguru. Zonaldeen azterketari datu berri bat eransteke argigarriagoa izango da agian ijito etniako ikasleak ikasle guztien % 5 baino gehiago direneko zonaldeak aipatzea: Errekalde, Bilbo Zaharra eta Txurdinaga Bilbon, eta Sestao.

1.4. Euskararen adierazleak

Sarreran aipatzen zen bezala, ISEI-IVEIk bi hizkuntza-faktore lotzen ditu euskarazko gaitasun mailarekin: euskara etxeko hizkuntza bezala erabiltzea eta hautatutako irakasteredu elebiduna.


Bigarren tokian, eta ez garrantzi gutxiagokoa, hemen aztertzen diren derrigorrezko irakasmaitetako ikaslerik gehienek ikas-arloen erdia baino gehiago euskaraz ikasten dute, eta horrela, "komunikazio-hizkuntza" terminoaren hitzez hitzeko adieran, hizkuntza horrek ikasketa horiek bideratzen eta egituratzen ditu. Ildo horretatik, euskarazko gaitasun maila ona izateak hizkuntzak bideratzen dituen gainontzeko gaitasunak garatzea erraztuko du, gaitasunak, adierazpenaren bidez baino ezin baitira egiaztatu; PISA ebaluazioen eta ebaluazio diagnostikoen kasuetan idatzizko adierazpenaren bidez.

Bi erregistro horien artean, hizkuntzaren ezagutza maila neurtzen duen euskararen Mapa Soziolinguistikoa erabiltzen da, eta horrez gain, erabilitako eskola-adierazlearekiko (“euskara etxeko hizkuntza”) duen lotura aztertzen da.

1.4.1. Euskararen 2006ko mapa soziolinguistikoa


2001. urtetik 2006. urtera, 5 urtetik gorako euskal biztanleriaren artean, euskara ezagutzen zuten biztanleen kopurua 5 puntuz handitu zen, % 32,3tik % 37,5era pasa zelarik. Bizkaia Araba baino 5 puntu aurrerago dago, baina biak Gipuzkoatik oso urrun. Kopurua Gipuzkoan askoz gutxiago hazi da (1.14 eranskina).

Euskadiko biztanleria euskaldunaren bilakaera lurraldeen arabera. 1981-2006.



Hiriburuetan euskalduntze prozesua astiroago doa lurralde osoan baino, euskaldunen kopurua arinago hazten bada ere: 10 puntu Vitoria-Gasteizen, 9 puntu Bilbon eta 6 puntu Donostian.

Euskadiko hiru hiriburuetakoko biztanleria euskaldunaren bilakaera. 1981-2006



Adierazlearen banaketa eskola-mapako zonaldeetan ondoren zehaztuko diren beste bi adierazleekin lotzen da 1.16 eranskinean.

1.4.2. Euskara etxeko hizkuntza

Etxean normalean euskara erabiltzen duten ikasleen ehunekoaren adierazleak, ISEI-IVEIk 2009ko eta 2010eko lau ebaluazio diagnostikoetan neurtu duenaren arabera, Euskadirako % 18,7ko batez bestekoa eman du, 2006ko mapa soziolinguistikoak eskaini zuen euskaldun kopuruaren (% 37,5) erdia hain zuzen ere.

Euskararen erabilera etxeko hizkuntza bezala eskola-mapako zonaldeetan nola banatzen den aztertzen badugu, zerrenda batzuk ikus daitezke, kostaldearekiko paraleloak, euskararen erabilerarik handienetik txikienera markatzen dutenak. Hartara, erabilerarik handiena duten zonaldeak Lea-Artibai eta Urola Erdia dira, eta gero Tolosa, Kosta eta Urdaibai, guztiak % 50 baino gehiagorekin. Bigarren zerrendan Gipuzkoako eta Bizkaiko barrualdeko zonaldeak daude.

Euskara etxeko hizkuntza bezala gutxien erabiltzen deneko zonaldeak ekialdekoenak eta mendebaldekoenak dira, eta lau multzotan sailka daitezke:


- Nerbioiren ezkeraldea, salbuespenik gabe
- Bilboko barrutien erdia
- Arabako hegoaldeko zonaldeak
- 2 zonalde isolatu: Ermua, Bizkaian, eta Donostiako ekialdeko barrutia

Eskola-adierazle honen banaketa Mapa Soziolinguistikoarekin (1.16 eranskina) erkatzen badugu, adostasun handia nabaritzen da bietan, kontraesandun daturik duen zonalderik ez baitago.

Zerbait aipatzekotan, joeratzat har liteke datu hau: euskara dakiten biztanleen ehunekoa oso handia deneko zonaldeetan euskara erabiltzen dutenen ehunekoa asko hurbiltzen da gehieneko ehuneko horretara; euskaraz hitz egin dezaketen biztanleen ehunekoa txikia deneko zonaldeetan, berriz, hiztun aktiboen ehunekoa askoz txikiagoa da.

Adibide gisa, muturreko kasuak azterturik, Lea-Artibain edo Urola Erdian euskaldunak hurrenez hurren % 87 eta % 85 dira, eta ia guztiak erabiltzen dute euskara etxeko harremanetan (% 75 eta %69). Kontrako muturrean Trapaga edo Barakaldo daude, euskara hurrenez hurren % 15ek eta % 10ek dakiten arren, etxean normalean % 2k baino ez baitu erabiltzen.

9. mapa. Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen kopurua ehunekoetan 2009ko eta 2010eko ebaluazio diagnostikoetan




1.4.3. Irakasteredu elebidunen bilakaera

Azken hamarkadetan zehar, irakasteredu elebidunen sistemari esker, irakasteredu elebidun bakoitzaren eskaintza familien eskari aldakorrei progresiboki egokitzen joan da, euskalduntzea indartzeari begira beti: A ereduak B eredu bihurtzen joan ziren hasierako etapa batean, eta, gainean jarririk, D ereduak B ereduak ordezkatu dituzte.

Etengabeko prozesua da eta erabakiak epe luzean oso egonkorak dira, gutxienez, derrigorrezko hezkuntzan eta derrigorrezkoaren aurrekoan; hasierako irakasmaitan gertatzen den irakasteredu elebidunen banaketa ondorengo irakasmaitara pasatzen da ikasturteak aurrera joan ahala. Horrek azalduko luke hezkuntza ziklo eta etapa bakoitzeko banaketaren arteko ezberdintasuna.


2009-10 ikasturtean D ereduak da eredu nagusia etapa guztietan Lanbide Heziketan izan ezik. Haur Hezkuntzako 2. zikloan A ereduak % 6 bakarrik osatzen du, eta D ereduak, % 70.

Ikasleen banaketa irakasteredu elebidunen arabera hezkuntza etapa bakoitzean. 2009-10 ikasturtea. Ikastetxe guztiak



Joera argiagoa da ikastetxe publikoetan, D ereduaren kasuan DBHko % 75etik Haur Hezkuntzako % 88ra pasa delarik. Sare pribatuan ikastetxe elkarten arteko aldeak oso handiak dira, eta derrigorrezko etapetan gehien eskatzen diren irakastereduak B eta D dira. D ereduak Haur Hezkuntzako 2. zikloan % 50 gainditua du jadanik.

Ikasleen banaketa sareen eta irakasteredu elebidunen arabera hezkuntza-etapa bakoitzean. 2009-10 ikasturtea




Aurreko txostenetan egin izan den bezala, irakasteredu elebidunen adierazlearen banaketa zonaldeen arabera egin ahal izateko, 0-100 eskalako zenbakizko adierazle bat erabili da irakasteredu elebidunen ezarpenaren unea neurtzen duena. D ereduari eskalako baliorik handiena (100) ematen dio, A ereduari balio teorikorik apalena (0), eta B ereduari eskalaren erdiko balioa (50). (10. mapa eta 1.15 eranskina).

Zalantzarik gabe, kidetasun handiak ikus daitezke euskararen etxeko erabileraren maparekin, zeren, logikoki, ingurunean zenbat eta euskaldun gehiago egon, euskarazko irakaskuntza hainbat eta gehiago eskatuko baita.

Hala eta guztiz ere, ehunekoetan euskaldun kopururik urriena eta euskara etxean egiten duten pertsonen kopururik urriena duten zonaldeen artean ere zenbait ezberdintasun handi ikus daitezke, irakasteredu elebiduna hautatzeko orduan. Adibidez, 1.16 eranskinera berriro jotzen badugu, honako hau ikus dezakegu:

- Arabako zenbait zonaldeetan (Amurrio, Laudio, Arabako mendiak, mendebaldeko Lautada) eta Bizkaiko beste zenbaitetan (Basauri, Enkarterriak, Trapaga, Sestao eta Portugalete) euskarazko irakastereduak gehiago hautatzen dira.
- Vitoria-Gasteiz, Bilbo, Barakaldo, Leioa, Getxo eta Txorierni zonaldeetan, euskararen ezagupen tasa eta gizarte-erabilera tasa aurreko zonaldeetakoan antzerakoak izan arren, euskarazko irakastereduen aldeko apustu txikiagoa egiten da.

10.mapa. Euskalduntze-indizea irakasteredu elebidunen eraginez, eskola-zonalde bakoitzean. DBHko ikasleak. 2009-10 ikasturtea



1.5. Ikastetxeen planifikazioari buruzko arauak

Txostenak jasotzen duen denbora-tartean planifikazio eta matrikula prozesuak xedatzen dituzten hiru arau nagusi azpimarratu beharko lirateke:

- 21/2009 Dekretua, Eskola-mapa ezartzen duena
- 35/2008 Dekretua, onartze-prozesua arautzen duena
- 2010-11 ikasturterako onartze-prozesua arautzen duen Agindua

Arau hauek Konstituzioak eta LOEk ezartzen duten markoaren barruan kokatzen dira. Konstituzioari dagokionez,

27.5 artikulua: “Botere publikoek irakaskuntzaren programazio orokorraren bidez pertsona guztiek hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzen dute, dagokien sektore guztien partaidetzaz eta ikastetxeak sortuz.

LOEri dagokionez,

108.4 artikulua: “Hezkuntza-zerbitzu publikoa ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez gauzatuko da”.

109.1. artikulua: Ikaspostuen eskaintzaren programazioan, hezkuntza administrazioek harmonizatuko dituzte, alde batetik, botere publikoek pertsona guztiei hezkuntza bermatzeko duten beharretik eratorritako eskakizunak, eta bestetik ikasleen, gurasoen eta tutoreen banako eskubideak.

109.2. artikulua: Hezkuntza administrazioek Lege honek doakotzat jotzen dituen ikasketen eskaintza, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan dagoen eskaintza kontuan izanik, programatuko dute eta, baita ere, hezkuntzaren kalitatearen berme gisa, hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleen eskolatze orekatua. Horrez gain, hezkuntza administrazioek ikaspostu publiko nahikorik egotea bermatuko dute, bereziki biztanleria berriko guneetan”.

1.5.1. Eskola-mapa ezartzen duen 21/2009 Dekretua

21/2009 Dekretua 2009ko otsailean argitaratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituen, 1996. urtetik indarrean zeuden planifikaziorako arauak (26/1996 Dekretua) aldatu zituelarik.

Lege organikoak behartu egiten ditu autonomia erkidegoetako administrazioak hezkuntza-eskaintzaren planifikazioari buruzko aldaketa batzuk egitera, ikasleak ikastetxeetan banatzerakoan ekitate handigoa bermatzeko, batez ere eskola-zonaldeak finkatzeko prozedurei dagokienez.

Bestalde, 21/2009 Dekretuaren sarreran ekitate eta barne hartze printzipioak azpimarratzen dira, eta planifikazio berriaren azpiko beharren artean, txosten honetan

aztertzen diren batzuk aipatzen dira, hala nola jaiotza-tasaren hazkundera eta eskaintzaren urritasuna, hasierako eskolatze etapek behar duten arreta eta ekitate printzipioa atzerritar jatorriko ikasleak ikastetxeetan banatzerakoan.

- **Sarrera**

“Gaur egungo Eskola-mapa berraztertu eta hobetu beharko litzateke, errealitate berriari eta datozen urteetan aurreikus daitezkeen aldaketei egokitu ahal izateko”.

Aldaketa horien artean ikastetxeetan ondorengo gertakarien ondorioz izan direnak azpimarratu beharko lirateke: *jaiotza-tasak azken urteotan izan duen etengabeko susperraldia*, hezkuntza-eskaintza *Haur Hezkuntzako lehen zikloan ere orokortzea, eskolatze-premien eta eskola-plaza eskaintzaren arteko desoreka*, irakasteredu elebidunen bilakaera, gure hezkuntza sistemara *berandu sartzen diren pertsonen eskolatzea*, eta hezkuntza bizitza osoan zehar garatzen den ikas-prozesu bezala hartzea.

Funtsezko helburua pertsona guztiek kalitateko hezkuntza jasotzeko aukera izatea da. Kalitateko hezkuntza hori ikasleek *ekitate eta barne sartzeko printzipioetan* oinarritutako hezkuntza-erantzun egokia jasotzen dutela bermatzeko modu bakarra da, pertsonaren garapena eta gizarte kohesioa bultzatzen dituelarik.

- **Zonaldeak finkatzea**

Txosten honetako mapetan erabiltzen den eskola-zonaldea 3.2 paragrafoan definitzen da:

“Eskola-zonaldea zerbitzu eta baliabideak antolatzeko azpiegitura nukleartzat har daiteke eta bere barne har ditzake udalerrri baten zati bat edo bilgune bateko udalerrri bat edo gehiago, beharrezkoa bada, horien hedadura edo ezaugarri demografikoak kontuan izanik”.

3.3 eta 3.4 paragrafoetan ikastetxeen eragin-eremua aztertzen da. Ikastetxeen betebeharra 3.3 paragrafoan ezartzen da, eta azpimarratu beharrezkoa da zer nolako garrantzia ematen zaion ikaslearen etxea ikastetxetik hurbil egoteari:

“Eskola-bilguneen eta, hala bada, eskola-zonaldeen edo udalerrrien barruan ezarri beharko dira ikastetxe bakoitzaren eragin-eremuak, *ikasleek sarbidea izateko aukera berdinak* izan ditzaten **eta etxetik gertu izatearen aldeko irizpidea** aplikatu dadin”.

3.4 paragrafoan berdintasunaren eta hurbiltasunaren printzipioak jasotzen dira LOEren “Berdintasuna onartzeko arauak aplikatzean” 86.1 artikuluan xedatzen dituen terminoetan.

“Eskola-bilgune, eskola-zonalde edota udalerrri batean ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak badaude, batzuentzat zein besteentzat *eragin-eremu berdinak ezarriko dira*”.

- **Eskola-plazaren eskaintza**

Dekretuaren 5.2 artikuluan hezkuntza administrazioak eskola-plaza batera sartzeko oinarritzko berme-maila ezartzen du. Hurbiltasunaren gaia berriro azpimarratzen da hemen ere:

“Ikasle bakoitzak derrigorrezko hezkuntza-etapa bakoitzean etxetik gertu dagoen, *diru publikoarekin lagundutako ikastetxe batean*, ikaspostu bat izatea bermatuko da”.

Eskubide hori orokorragoa da eta Euskal Eskola Publikoak 9.1 artikuluan xedatzen duena osatzen du:

“Aginte publikoek bermatuko dute, **euskal eskola publikoa osatzen duten ikastetxeen bitartez**, doako eskolatzea 3 urteko adinetik aurrera unibertsitatez besteko hezkuntza orokorraren irakasmaita guztietan”.

Laburbilduz, diru publikoarekin finantzatutako ikastetxe batean plaza bat izateko eskubidea, eta zehazkiago eta hala nahi duenarentzat, ikastetxe publiko batean. Administrazioak bermatuko du eskubide hori.

Eskaintza publikoaren berme esplizitua indartu egiten da 5.3 paragrafoan, eskolatzeko adineko biztanleriaren hazkundera duten zonaldeen kasuan. Txosteneko 1.1 eta 1.2 azpiataletan aipatu dugu zer nolako harreman estua dagoen biztanleriaren hazkundera duten zonaldeen eta eskaintza publiko urria duten zonaldeen artean, batez ere sarrerako irakasmaitan.

“Zenbait zonalde edo udalerritan, biztanleen hazkunde handia nabaritu bada, eta hazkunde horrek eskolatzeko-premiak areagotzea badakar, *ikaspostu publikoak izango direla bermatuko da*”.

Artikulu bereko 8. eta 9. ataletan, ikastetxe publikoek eta itunpekoek atzeritik datozen ikasleen eskolatzeko erantzukizuna arautzen da, eta baita ere, Administrazioaren betebeharrak ikasleak banatzerakoan eta aldaketak kontrolatzerakoan.

“8.- Eskolatzeko-batzordeen bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ahalguztuta egingo ditu eta neurri egokiak hartuko ditu, fondo publikoek sostengatzen dituzten ikastetxeak erantzulekide izan daitezkeen ikasturtea hasi ondoren hezkuntza-sistemara sartu behar duten ikasleak eskolatzeko lanean .

9.- Era berean, kontrol-neurriak ezarriko ditu, *ikasle horien artean gertatzen diren ikastetxe-aldaketak edonolako arrazoi diskriminatzaileengatik gerta ez daitezkeen*”.

- ***Ikastetxe motak***

6. artikulua, 1. eta 2. ataletan, ikastetxe motak ezartzen ditu irakasten dituzten hezkuntza etapen arabera. Salbuespen gisa, 3. paragrafoak I. Eranskinen ikastetxe moten zerrenda osagarriaren aipamena egiten du (txosten honetako 1.17 eranskina).

Ikastetxe mota horien artean ez daude Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bakarrik irakasten duten ikastetxeak. Euskadin honelako ikastetxeak 36 dira, guztiak publikoak bat izan ezik.

- ***Eskola-maparen urteroko ebaluazioa***

9.5 artikuluan Tokiko Jarraipen Batzordeen osara ezartzen da, LOEren 86.2 artikulua errepikatuz:

“...Hezkuntza Sailaren ordezkariak, ikastetxe publikoetako zuzendaritza taldearenak, irakasleenak, sare pribatuko elkarteak eta udalenak”.

- ***Aplikazio epeak***

Behin-behineko xedapenak 4 ikasturteko epea ezartzen du (2012-13 ikasturtera arte) xedatutakoa gauzatzeko; bitartean, indar osoan egongo dira bai ikastetxe sarearen oraingo forma, baita gaur egun dauden ikastetxe motak ere.

Aurreko hori erabilgarria da zonaldeak finkatzeko orduan (gaur egun 1996ko Eskola-mapako 56 zonaldeak mantentzen dira), eta berariazko DBHko ikastetxeen arazoan. 6. artikulua araberak, ikastetxe horiek bi urte pasa baino lehenago berregituratu beharko lirateke edo, bestela, araudia aldatu.

1.5.2. Ikasleak onartzeko prozesua arautzen duen 35/2008 Dekretua

35/2008 bai ikastetxe publikoetako baita itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleak onartzeko prozesua arautzen du. Ikastetxeen arteko atxikitze prozesua arautzen du eta, baita ere, horrek eskola matrikulan duen eragina.

LOEk xedatzen duenaren arabera, lurraldeko ordezkariak ikastetxeen eragin-eremuak finkatzeko aginpidea ematen die, eskolara epez kanpo datozen ikasle etorkinak eskolatzeko plaza guztien % 10eraino gorde behar direla ezartzen du, eta eskola-plaza atxikitze baremoaren puntuazioa zehazten du ikastetxeak jasotzen duen eskaria bere eskaintza baino handiagoa izatekotan.

5. artikulua.- Onartzeko prozesuaren aplikazioa

1.- Hezkuntza-etapa bat baino gehiago eskaintzen duten herri-ikastetxeetan, adin txikieneko etaparen hasieran egingo da onarpenerako hasierako prozedura. Hezkuntza-etapa bat baino gehiago irakasten duten itunpeko ikastetxe pribatuetan, itunaren xede izan eta adin txikienari dagokion ikasturtearen hasieran egingo da onarpenerako hasierako prozedura.

2.- Onarpen-prozesua eginda, ikasleak bermatuta izango du ikastetxe horretan jarraitzea ikastetxeko irakaskuntza-eskaintza amaitu arte.

6. artikulua.- Ikastetxeen atxikipena

2.- Hezkuntzako lurralde-ordezkariak itunpeko ikastetxe pribatuen arteko atxikipenak ere ezarriko dituzte ikastetxe horien titularrek hala eskatzen badute.

7. artikulua.- Atxikitako ikastetxeetan onartua izateko lehentasuna

1.- Haur Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek lehentasuna izango dute beren ikastetxea atxikirik dagoen Lehen Hezkuntzako ikastetxera edo ikastetxeetara joateko, eta bermatuta izango dute onarpena, baldin eta haietan nahikoa eskola-plazarik bada.

2.- Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleek lehentasuna izango dute beren ikastetxea atxikirik dagoen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxera edo ikastetxeetara joateko, eta bermatuta izango dute onarpena, baldin eta haietan nahikoa eskola-plazarik bada.

8. artikulua.- *Eragin-eremuak.*

1.- Ikastetxeen eragin-eremuak eta eremu mugakideak zehaztuko dituzte hezkuntzako lurralde-ordezkariek; hala, bizileku guztiak ikastetxeren baten eragin-eremuan sartuko dira. Mugapen hori egiteko, Onarpena Bermatzeko Batzordeei entzun beharko zaie lehendabizi.

10. artikulua.- *Eskaerak*

1.- *Eskola-plaza bakarra eska daiteke* ikasketa jakin bat egiteko. Aukera izango da eskaera horretan beste ikastetxe batzuen eskaera egiteko, lehentasunezko ordena bati jarraituz. Interesatua lehen postuan aukeratu duen ikastetxean onartua ez bada erreparatuko zaie gainerako eskaerei.

13. artikulua.- *Organo eskudunak prozesuaren fase bakoitzean*

2.- Onartze-prozesuaren Berme Batzordeak.

Onartze-prozesuaren Berme Batzorde bat eratuko da lurralde bakoitzean. Berme batzordeek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Ikasleen onartze-prozesua ikuskatzea ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan...

Onarpena bermatzeko batzordeak osatuko dituzte Hezkuntza-administrazioko eta tokiko administrazioko ordezkariak eta gurasoen, irakasleen eta Dekretu honetan aipatzen diren ikastetxeen ordezkariak (ikus onartze-prozesuaren Agindua. EHAA, 2010/01/27).

Batzordeen osaera eta kontrola Dekretu honen 9. artikuluan aipatzen diren Aginduetan ezarriko dira.

14. artikulua.- *Eskola-plazak gorde beharra*

1.- Dekretu honen eraginpeko ikastetxe guztiek gorde egin beharko dute, aurreinskripzio-eta matrikulazio-epea amaitu arte, hezkuntzako lurralde-ordezkariek zehaztutako plaza-kopurua, berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak eskolatzeko.

2.- (...) Ikasle horiek herri-ikastetxeen eta itunpeko ikastetxe pribatuen artean modu orekatuan banatuko dira, haiek hezkuntza-sisteman integratzeko baldintza egokiak sortzeko.

20. artikulua.- *Ikasturtea hasi ondoren eskolatu behar duten ikasleak eskolatzeko modua*

2.- Ikasleak erabakitako ikastetxean eskola daitezen, hezkuntzako lurralde-ordezkariek Dekretu honen eraginpeko ikastetxeetan gela bakoitzerako ezarritako gehienezko ikasle kopurua *ehuneko hamar arte* handitzeko aukera izango dute.

35/2008 Dekretuaren eranskina: **Irizpideak eta baremoa**

Onartze-prozesuaren Dekretuko baremoak familia bereko ikasleak ikastetxe berean eta atxikitako ikastetxe multzoan eskolatzea bermatzen du.

“Eskatutako ikastetxean edo atxikitakoren batean matrikulatutako neba edo arreba bat edo gehiago izatea: 9 puntu”

Seme edo alaba nagusia denean, faktore erabakigarria Hezkuntzako lurralde ordezkariak, Tokiko Berme Batzordearen iritzia entzun ondoren, erabakitzen duen eragin-eremukoa izatea ala ez izatea da.

21/2009 Eskola-maparen Dekretuan ez bezala, ikastetxe publikoen eragin-eremuak itunpeko ikastetxeenak baino txikiagoak dira. Eskaintza urria duten hiriguneetan, familiei ikastetxe publiko bat, edo bi gehienez, esleituko zaie dagokien zonaldean; gehieneko puntuazioa dutenean, itunpeko ikastetxe publikoen kasuan aukera hiri osora hedatzen da.

“Ikaslearen bizilekua eskatutako ikastetxearen eragin-eremuan izatea: 5 puntu.”

Eskaintza publikoa nahikoa ez den kasuetan, ikastetxearekiko edo eragin-eremuarekiko hurbiltasunaren irizpidea ezinbestez bete beharrekoa da, puntuazio handikoa baita. Hautatutako ikastetxean plaza izatea puntuazio txikiagoko hurrengo irizpideen arabera erabakitzen da.

Egoera horietan, familiaren errentaren adierazle ekonomikoa erabakigarria izaten da, diru-sarrerarik handienak dituzten familiak kanpoan uzten baititu. Adierazle hori ondoren aipatzen den Aginduak zehazten du.

“Puntuazioa, familia-unitatearen diru-sarrerei erreparatuta: 1,5 puntu.”

Familia ugaria izateak ere bere garrantzia du, 1 eta 1,5 puntu artekoa familia motaren arabera.

Azkenik, ikastetxeek 2 punturaino ere erants dezakete beren irizpidearen arabera, baldin eta irizpidea baztergarria ez bada. Gainera irakaskuntza kooperatibek beste puntu bat ere erants dezakete.

“– Familia unitateko kideren bat eskatutako ikastetxeko kooperatiba-bazkide izatea: puntu 1.

– Ikastetxeko Eskola Kontseiluak edo Ordezkaritza Organo Gorenak askatasunez erabakitako irizpideak (aurrez adierazitakoak ere izan daitezke), irizpide publiko, objektibo eta ez-diskriminatzaileei jarraiki ezarriak: 2 punturaino (ezingo da jaiotzan, arrazan, sexuan, erlijioan, iritzian edo bestelako inguruabar edo baldintza pertsonal edo sozialetan oinarritutako irizpide diskriminatzaileerik onartu) (Irizpideak argitaratu egin behar dira eta hezkuntzako lurralde-ordezkariari jakinarazi behar zaizkio, eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen).”

1.5.3. Onartze-prozesuaren Agindua 2010-11 ikasturterako

2010-11 ikasturtean ikasleak onartzeko jarraibideak onartzen dituen Aginduak (EHAA, 2010/10/27) 35/2008 onartze-prozesuaren Dekretua garatzen du. Hain zuzen ere, bi puntu hauek zehazten ditu:

- ***Ikastetxean jarraitzeko bermea lehenengo matrikulatik aurrera.***

2. artikulua itunpeko ikastetxeen kasuan ondorengo irakasmaitan ikasteko plaza 2 urtekoen irakasmaitan bermatzen dela xedatzen du. Dekretuak bermea "itunaren helburu den eta adinik txikienari dagokion irakasmaitatik aurrera" zela xedatzen zuen.

- ***Onartze-prozesuaren Berme Batzordeen osaera***

Dekretuak 13.2 artikuluan onartze-prozesuaren Berme Batzordeetan ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen ordezkari bana egongo dela xedatzen du.

Beste alde batetik, Aginduaren I Eranskinean, 2.2 eta 2.5 jarraibideetan, ikastetxeetako zuzendariak zozketaz aukeratu behar direla xedatzen da.

"5.- Halaber, Hezkuntzako lurralde ordezkariak hezkuntza administrazioaren ordezkariak izendatuko dituzte onartze-prozesuaren Berme Batzorde bakoitzerako, eta zozketa publiko baten bidez hautatuko dituzte ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetako zuzendariak".

- ***Familia unitatearen urteko errentaren irizpidea***

35/2008 dekretuan, irizpideen eta baremoaren inguruko eranskinean, familia-unitateari puntuazio bat (1,5 puntu) esleitzen zaio diru-sarreraren arabera.

Aginduaren II. Eranskinak 42.000 € gordinetako muga ezartzen du, bi tarte bakarrik bereizturik.

II. Eranskina: Irizpideak eta baremoa

a) Familia-unitatearen urteko errenta (kontzeptu metagarriak ataleko gehieneko puntuazioraino):

- 2008ko Zerga Aitorpeneko Oinarri Kitagarria 42.000 € (5 aldiz lanbidearteko gutxieneko soldata) baino handiagoa ez izatea: 1,5 puntu.

Lurralde ordezkariak eskola-mapari eta ikasleak onartze-prozesuari buruzko erabakiak hartzerakoan aholkua emateko sortutako batzordeekin bukatzeko, 1.18 eranskinak batzordeen izena, lege erreferentzia, eskumenak eta osaera biltzen ditu.

1.6. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP) eta Eskolatze Osagarriko Programak (EOP)

Hezkuntza sistemaren xederik behinena ikasleen emaitzetan ekitate maila altu bat lortzea da, hots, nerabe guztiek gizarteak oinarrizkotzat jotzen dituen gaitasunetan garapen maila nahiko altua lortzea. Bigarren xedea ikasleak derrigorrezko ikasketak bukatutakoan ondorengo ikasketak egiteko moduan egotea da.

Ikastetxeetan xede horiek lortzeko ohiko bideak behar bezalako emaitzarik ematen ez duenean, eta oro har ikasleen ezaugarriak kontuan izanik gomendagarritzat jotzen denean, administrazioak beste baliabide batzuk eskaintzen ditu, ikasleei trataera banan-banakoagoa eman ahal izateko.

Jasotzaileen aniztasun handiagatik kostu handia duten baliabideak (adibidez bikoizketak eta curriculum ezberdinak eratzea) batez ere derrigorrezko hezkuntzako azken irakasmailetan erabiltzen dira. Neurri horiek ere emaitza egokirik ematen ez dutenean, beste erremediorik ezean eskolatze partziala gomendatzen da eskolatze osagarriko programen bidez.

Ikaslea adin jakin batera heltzen denean, ikasketak ikastetxe berezietan jarraitzea errazten zaie. Ikastetxe horiek hasierako lanbide prestakuntza ematen diete, baina Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programetako titulua (HLPP) alde batera utzi gabe. Programa horiek aurreko Lanbide Hastapenerako Zentroen (LHZ) ondorengoak dira.

Atal honetan indarrean dauden bi programa horiei buruzko datuak eguneratzen eta osatzen dira.

1.6.1. Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP)

Euskadin Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP) 2008ko ekainaren 10eko Aginduak (EHAA, 2008/07/09) arautzen ditu, programa horiek Gizarte Bermerako programetan sartzan zen Lanbide Hastapenaren modalitatea Hezkuntza Lege Organikoaren (LOE) esparru berrira moldatzeko.

1.6.1.1. HLPP programei buruzko arautegia

Hartara, LOEk bere 30. artikuluan jarraibide batzuk ematen ditu:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza graduatu titulua lortu ez duten 16 urtetik gorako ikasleentzat dira; salbuespen gisa, 15 urtekoentzat.
- Helburua bikoitza da: alde batetik, gizartean eta lan munduan sartzeari begira, 1. mailako prestakuntzari dagozkion lanbide-gaitasunak eskuratzea; eta bestetik, oinarrizko gaitasunak Graduatu lortu arte zabaltzea, eta horrela derrigorrezkoaren osteko ikasketak egiten jarraitu ahal izatea.

- Hiru motatako moduluak daude:
 - a) lanbide gaitasun unitateei lotutako berariazko moduluak.
 - b) prestakuntza modulu orokorrak, oinarriko gaitasunak sendotzeko eta hezkuntza sistematik lan mundurako trantsizioa errazteko.
 - c) ikasleentzako borondatezko moduluak, DBHko graduatu titulua lortzera bideratuak.
- Hezkuntza administrazioek eskuratutako lanbide gaitasunak ziurtatzen dituzte.
- Programa horietan ikastetxeek, tokiko korporazioek, lan elkargoek, gobernuz kanpoko erakundeek eta bestelako enpresa eta sindikatu elkarteek har dezakete parte.

Aipatutako *autonomia aginduak egiten duen garapenean* beste alderdi batzuk ezartzen dira:

- Salbuespen gisa, 15 urteko ikasleak sar daitezke programetara bi kasu hauetan:
 - a) DBHko 2. maila ikasi ondoren, 3. mailara igarotzeko prestaturik ez dauden eta etapan irakasmila bat errepikatu duten ikasleak.
 - b) Atzerriko ikasle etorri berriak, DBHko ikasketetara moldatzeko arazo larriak badituzte, zuzen sartuko dira HLPP programetara.
- Bi irakasmilatan antolatzen da, bakoitza 1.050 ordukoa.
- Ikastalde bat osatzeko gutxieneko ikasle kopurua 10 da lehen irakasmilan, eta 8 bigarreanean.
- Programak irakasten dituzten ikastetxeak edo elkarte arduradunek ikasle ohien jarraipena egin behar dute gizarte eta lan munduan sartzeko prozesuan zehar.

Ondoren, *Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak ematen dituzten* baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua emateko baimenik ez duten ikastetxe eta *erakundeen arteko koordinazioari buruzko ebazpen bat argitaratu zen* (EHAA, 2009/01/20).

Ebazpenak koordinaziorako, ikaste prozesuaren jarraipenerako eta DBHko graduatu titulua lortzeko ebaluaziorako mekanismoak xedatzen ditu.

- HLPPko ikastetxeen (45) eta HHEko ikastetxe publikoen arteko atxikipena ezartzen da.
- HHEko ikastetxeetan hiru esparruetako koordinatzaileak izendatzen dira, eta betebeharrak horretarako ordu-kopuru bat esleitzen zaie.
- Koordinatzaileek eta tutoreek egin behar dituzten hasierako eta etengabeko ebaluazio saioak finkatzen dira.
- Irakasmila bakoitzeko hasierako ebaluazioaren emaitzak erabakitzen du borondatezko moduluan parte hartzea ala ez hartzea eta probara aurkeztea ala ez aurkeztea.

- HHEko ikastetxeek HLPPko ikasleentzako graduatu titulua lortzeko berariazko azterketak prestatzen dituzte etengabeko ebaluazioa jarraipen proben bidez kontuan izanik.
- Azkenik, ebazpenak parte hartzen duten ikastetxeen konpromisoak zerrendatzen ditu.

1.6.1.1. HLPPko ikastetxeei buruzko datuak

Itunpeko ikastetxe edo ikastetxe publiko izenburupean ikasketa arautuaren etaparen bat irakasten duten ikastetxeak sartzen dira. Erakundeak pribatuak dira eta udal ikastetxeen barruan zenbait ikastetxe ere sartzen dira partzuergo moduan.

- **Ikastetxe motaren arabera**

	<i>Ikastetxe kopurua</i>	<i>Ikastalde kopurua</i>	<i>Irakasle kopurua</i>	<i>Ikasle kopurua</i>	<i>Ikasleak %</i>
Itunpekoak	12	65	139	790	% 18
Elkarteak	21	108	232	1.278	% 29
Udalenak	30	194	306	2.204	% 49
Publikoak	6	18	54	187	% 4
Guztira	69	385	731	4.459	% 100

Aurreko taulan ikusten den bezala, 2009-10 ikasturtean 4.459 ikasle matrikulatu ziren 69 ikastetxetan. Matrikulak % 11ko igoera izan zuen 2007-08 ikasturteko matrikularekiko.

Ikasleen ia erdia udal ikastetxeetan eskolatu zen. 6 ikastetxe publikok, Arabakoek guztiek, bakarrik eskaini zuten beste hezkuntza etaparik.

Lurraldeei dagokienez, matrikularen erdia baino gehiago Bizkaian izan zen. Ikastetxe horietan eskolatutako 16 urteko ikasle kopurua adin horretako biztanleria guztiarekin konparatzen bada, Euskadi osoan ikasle horien batez besteko tasa % 9koa da. Gipuzkoan HLPPko ikasleen tasa gainontzeko bi lurraldeetan baino txikiagoa da.

- **Lurraldearen arabera**

	<i>Udalerrri kopurua</i>	<i>Ikastetxe kopurua</i>	<i>Ikastalde kopurua</i>	<i>Irakasle kopurua</i>	<i>Ikasle kopurua</i>	<i>16 urteko biztanleriaren %</i>
Araba	6	15	57	128	712	% 10
Bizkaia	19	32	238	424	2.736	% 10
Gipuzkoa	13	22	90	179	1.011	% 6
Euskadi	38	69	385	731	4.459	% 9

HLPPko 100 ikasle baino gehiago eskolatzen dituzten udalerrriak 7 dira. HLPPko 69 ikastetxeetatik 31 hiriburuetan daude. Hiriburuen arteko konparazioan, Bilbon ikasle horien tasa (% 15) Vitoria-Gasteizkoa eta Donostiakoa baino askoz handiagoa da.

- **HLPP programetan 100 ikasle baino gehiago duten udalerrriak**

	<i>Ikastetxe kopurua</i>	<i>Ikastalde kopurua</i>	<i>Irakasle kopurua</i>	<i>Ikasle kopurua</i>	<i>16 urteko biztanleriaren %</i>
Bilbo	13	105	190	1.250	% 15
Vitoria-Gasteiz	9	43	88	569	% 10
Donostia	9	36	83	395	% 9
Muskiz	1	14	24	183	--
Durango	2	13	23	135	--
Barakaldo	1	12	17	129	--
Sopuerta	1	10	29	125	--

Adinaren arabera banaketan, 15 urteko ikasleak adin horretako biztanleriaren % 1 dira. Tasarik handiena 17 urtekoen artean gertatzen da (% 11).

- **Adinaren eta irakasmilaren arabera**

	<i>15 urte</i>	<i>16 urte</i>	<i>17 urte</i>	<i>18 urte</i>	<i>> 18 urte</i>
1. maila	189	1.198	650	318	30
2. maila	0	163	1.163	527	246
Guztira	189	1.361	1.813	845	276
Adin horretako biztanleriaren %	% 1	% 9	% 11	% 5	--

Atzerritar jatorriko ikasleak HLPP programetako matrikularen % 30 dira, eta % 35era heltzen da udal ikastetxeetan eta partzuergo moduan diharduten ikastetxeetan. Ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan atzerritar ikasleen tasa txikiagoa da.

- **Ikasle etorkinak**

	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Euskadi</i>	<i>Ikasle etorkinak %</i>
Udal ik. eta Partzuergoan	120	469	193	782	% 35
Itunpekoetan	35	53	19	107	% 14
Publikoetan	41	0	0	41	% 22
Elkartetean	46	336	34	416	% 33
Guztira	242	858	246	1.346	% 30
Ikasle etorkinak %	34%	31%	24%	30%	

Gutxi gora behera, ikasleen laurden batek gainditua du DBHko 2. maila, eta ikasleen % 6k, DBHko 3. maila.

- **Ikasle kopurua gainditutako irakasmilaren arabera**

	<i>Lehen Hezk.</i>	<i>DBH 1</i>	<i>DBH 2</i>	<i>DBH 3</i>	<i>Beste bat</i>
1. maila	558	521	445	142	720
2. maila	530	380	434	123	632
Guztira	1.088	901	879	265	1.352
Ikasleen %	% 24	% 20	% 20	% 6	% 30

Datu bilketari amaiera emateko, ikasleen ia bi heren 8 lanbidetan biltzen dira. Lau lanbide 19 ikastetxetan irakasten dira.

- **Ikasle gehien duten lanbideak**

<i>Lanbidea</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Ikastetxe kopurua</i>
Sukaldaritza eta zerbitzuak	444	19
Soldatzea	438	19
Ile apainketa	418	19
Instalazio elektrikoak	412	19
Ibilgailuen konponketa	356	14
Eraikuntza eta zurgintza	280	13
Merkataritza eta biltegiatzea	268	11
Iturgintza	256	13
Guztira 8 lanbideetan	2.872 (guztien % 64)	

1.6.2. Eskolatze Osagarriko Programak (EOP)

2002ko maiatzaren 7ko Aginduak (EHAA, 2002/05/09) Eskolatze Osagarriko Programak arautzen ditu. Salbuespen gisa eta aldi baterako aplikatzen dira programak horiek, eskolatzean egokitze arazo larriak dituzten 14 eta 16 urte bitarteko ikasleekin. Programak ikasturtearekin batera bukatzen dira, eta hurrengo ikasturtean jarraitu ahal izateko berriro eskatu behar dira.

Programak banan-banakoak dira, eta ikastetxeak dituen beste ohiko eta ohiz kanpoko neurri guztiak agortu ondoren aplikatzen dira, ikastetxearen ohiko ingurunetik kanpo, aldi baterako hezkuntza neurri bezala eta beste erremediorik ez dagoenean. Hala eta guztiz ere, programa horietako ikasleak ikasketa xedeetarako (matrikula, ebaluazio aktak, eskola liburua, dirulaguntzak eskatzea, ziurtagiriak...) ikastetxeko ikasleak dira.


Eskolatze Osagarriko Programen helburua ikaslearen egokitze pertsonala eta soziala erraztea da, DBHko oinarrizko helburuetan barrena aurreratzearekin batera. Programetako esku-jardueren eta lanaren atarikoaren helburua ez da lan-hastapena izatea, ikasketa helburuei begira ikastea eta motibazio areagotzea baizik.

Programetako ikasleen eskolatze-plana ikastetxeak aurkeztu behar du, ikaslearen eta familiaren onespenerekin. Banan-banako eskolatze-plana xede-ikastetxeko eskolatze Osagarriko Programen Arduradunarekin batera definitzen da, eta jarraipena bi ikastetxeetan izendatzen diren tutoreek egin behar dute elkarlanean.

Programa horietako ikasle kopururik handiena (605) 2007-08 ikasturtean izan zen, eta hurrengo bi ikasturteetan jaitsi egin da 457raino.

<i>Ikasturtea</i>	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Euskadi</i>
2006-07	49	277	168	494
2007-08	95	308	202	605
2008-09	96	275	169	540
2009-10	87	262	108	457

Jaitsierarik handiena Gipuzkoan gertatu da.



Ikasleen erdia baino gehiago dirulaguntza jasotzen duten ikastetxeetan eskolatzen dira.

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Euskadi	
	Ikastetx.	Ikasleak	Ikastetx.	Ikasleak	Ikastetx.	Ikasleak	Ikastetx.	Ikasleak
Partzuergoan	0	0	1	82	0	0	1	82
Itunpeko ikastetxeetan	0	0	2	11	0	0	2	11
Hezkuntza Saileko irakasleak dituztenetan	7	66	3	29	0	0	10	95
Dirulaguntza duten ikastetxeetan	1	19	7	129	10	98	18	246
Ikasle integratuak dituztenetan	--	2	--	11	--	10	--	23
Guztira	8	87	13	262	10	108	31	457

Adinari dagokionez, Eskolatzeko Osagarriko Programetako 15 urteko ikasleak adin horretako biztanleriaren % 2 dira, eta 14 urteko ikasleen kasuan, % 0,7.

14 urte		15 urte	
Ikasle kopurua	Adin horretako ikasleak %	Ikasle kopurua	Adin horretako ikasleak %
111	% 0,7	343	% 2,2

1.7. Ondorioak eta proposamenak

2008-2010 Txostenak lehen atal honetan hezkuntzaren eskaintza aztertu du Haur Hezkuntzako derrigorrezkoaren aurreko etapan eta Oinarrizko Hezkuntza osatzen duten derrigorrezko bi etapetan, hots, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH).

Hezkuntza Administrazioak familien eskariei erantzuna emateko dituen konpromisoei dagokienez, hiru tarte bereiz daitezke: haurrak bi urte bete arte, bi urtekoen irakasmila, eta hiru urtetik aurrera 15 urte bete arte.

0-2 tartean ez dago eskola-plazak sortzeko legezko konpromisorik, baina bai erakundeen arteko hitzarmen bat, bi urtetik beherako haur biztanleriaren % 40k eskola-plaza bat izatea helburu zuena. Konpromisoa, Hezkuntza Saileko talde

arduradun ezberdinek berretsia, aurreikusitako planifikazio epea bukatu ondoren, oso-
osorik betetzera hurbiltzen ari da, eta 2009-10 ikasturtean % 35,5ean bete zen (ikasturte
hasierako datuak).

Ikasleen banaketa ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen artean
Euskadi mailan nahiko orekatua da, baina ez, ordea, eskaintza orokorra eta eskaintza
publikoa lurralde eta eskola-zonalde guztietan. Hain zuzen ere, Bizkaian eskaintza
publikoan arreta maila beste bi lurraldeetan baino bi aldiz apalagoa da. Bilbon
aurrerapausoak eman arren eta orain arte eskaintza publikorik ez zuten eskola-
zonaldeetan (Getxo eta Leioa kasu) hasierako eskola-plaza publikoak sortu arren, Bilbo
Handiko udalerrietako arreta maila, oro har, Euskadiko gainontzeko eskola-
zonaldeetako mailatik oso urrun geratzen da.

Nerbioiren bi aldeetan, Erandiok, Sestaok eta Portugaletek bakarrik gainditzen
dute % 15. Bilbon, 8 barrutietatik Deustuk bakarrik du % 10 baino arreta maila
altuagoa bi urtetik beherako biztanleriaren artean.

**(P1) *Hori dela eta, Euskadiko Eskola Kontseiluak Haurreskola partzuergoak Haur
Hezkuntzako hasierako irakasmaitan egindako ahalegina aitortu nahi du,
bai hezkuntza administrazioaren partetik baita Euskadiko udalen partetik, eta
ahalegin hori indartu dadin eskatzen du arreta tasa apala duten eskola-
zonaldeetan tasa handitu ahal izateko.***

***Kontseiluak 0-2 urte tarteko eskaintza publikoaren planifikazioa lurraldeen
arteko egokitze-irizpideekin gauzatzea eskatzen dio hezkuntza
administrazioari, eskola-zonalde guztietan bi urtetik beherako biztanleriaren
arteko arreta tasa sare publikoan % 20ra, eta oro har, ikastetxe guztiak
kontuan izanik, % 40ra heldu ahal izateko.***

Bi urtekoen irakasmaitan administrazioak eta ikastetxeek egiten duten
eskaintza oso garrantzitsua da bi arrazoi nagusirengatik:

Alde batetik, matrikula adin horretako haurren % 93ra heltzen da, proiektaturik
baina legez bermatu gabe dagoen % 100era astiro-astiro hurbiltzen ari delarik.
Egindako analisisan egiaztatu da eskolaturik ez dauden haurren ehunekoa maila sozio-
ekonomiko apaleko eskola-zonaldeetan handiagoa dela; gauzak horrela, euskalduntze
goiztiarra edo beste gaitasun batzuen hasierako garapena ahuldu egin daitezke premia
handiagoak dituzten ikasle horien kasuan.

Beste alde batetik, ikasleak onartzeko prozesuaren Agindua garatzen duen
35/2008 Dekretuak xedatzen du ikastetxe batean 2 urtekoen irakasmaitan eskola-plaza
bat lortzen duten familiek eskola-plaza hori etorkizunean bermaturik dutela ikastetxe
horretan edo atxikitako beste ikastetxe batean. Hartara, irakasmaita hori irakasmaita
erabakigarria da hezkuntza-sarea, hezkuntza proiektua, ikastetxea eta irakasteredua
hautatzerakoan.

Horren ondorioz, Txostenak irakasmaita horretako eskaintzaren analisi zehatza
egiten du, batez ere eskaintza publikoarena, eta lau adierazle aztertzen ditu eskola-

zonaldeetan: eskolatzeko indizea, ikasgelen betetze-maila, eskaintzako eskola-plazak eta jaiotzetan oinarritutako premien arteko oreka eta aurre-matrikularen emaitza.

Bi urtekoen irakasmilako eskaintza eta eskariaren arteko oreka aztertzean, 12 udalerririk balantza negatiboa dutela ikus daiteke, hots, eskola-plazak jaiotza kopurua baino gutxiago direla. Udalerririk horiek, Vitoria-Gasteiz eta Irun izan ezik, Bizkaikoak dira, eta guztiak dituzte hiru ezaugarri hauek: goranzko joera duen jaiotza kopurua, adin horretako eskolatzeko tasa Erkidegoko orokorra (% 93) baino askoz txikiagoa eta ikasgelen betetze-maila % 100ekoa edo handiagoa.

Eskaintza publikoaren urritasun hori duten Bizkaiko 10 udalerririk honako hauek dira: Bilbo, Barakaldo, Basauri, Santurtzi, Mungia, Erandio, Galdakao, Sestao, Arrigorriaga eta Sopelana.

12 udalerririk horien artean, eskola-plazarik gabe geratu diren matrikula-eskaera kopururik handiena ikastetxe publikoen kopururik handienera Vitoria-Gasteizen, Bilbon, Barakaldon eta Erandion gertatu da.

Hiru urtekoen irakasmilako –matrikula orokortzen deneko irakasmilako– eta etaparen hasiera den *Lehen Hezkuntzako 1. mailako*, aipatutako udalerririk guztietan gertatzen da eskaintza publikoaren urritasuna edo gabezia, bai oraingo egoeran bai epe ertain edo luzean jaiotza-kopuruaren joeraren ondorioz, adibidez Bilbo, Vitoria-Gasteiz eta Barakaldo, hiru udalerririk jendeztatuenera kasuan.

Bilboren kasuan, Errekalde, Basurto-Zorrotza eta Ibaiondo barrutietan eskola eskaintza ez da nahikoa; jaiotza kopurua hazi egiten da hiruretan, bereziki Ibaiondon. Errekalden eta Basurto-Zorrotzan derrigorrezko etapetako eskaintza orokorra (publikoa gehi pribatua) bertako ikasleen erdiarentzat bakarrik heltzen da; gainontzekoak beste barruti edo udalerririk batzuetara joaten dira.

(P2) *Oro har, Kontseiluaren iritziz familiek etxetik hurbil dagoen ikastetxe batean – eta hala nahi badute, ikastetxe publiko batean– eskola-plaza bat izateko eskubidea errespetatu egin behar da. Kontseiluak egiaztatu du 12 udalerririk eskaintza urria edo ez-nahikoa dela, eta Hezkuntza Sailari familien eskaeretan oinarriturik beharren azterketa bat egiteko eskatzen dio eta, horrez gain, oraingo eta etorkizuneko beharrei aurre egiteko behar diren antolamendu-baliabideak eta baliabide materialak abian jartzeko.*

Kontseiluak Sailari eskatzen dio halaber hezkuntza-eskaintza publikorik ez duten udalerririk ikastetxe berriak sortzeko aukera aintzat har dezan, aurreikus daitezkeen eskaria arrazoizkoa denean.

Hezkuntza Sailak eskaintza planifikatzeko gauzatzen dituen prozesuei dagokienez, Kontseiluak ohartarazi du LOEren eta Eskola-maparen 21/2009 Dekretuaren xedapena ez dela abian jarri. Xedapen horrek ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen eragin-eremuek berdina izan behar dutela dio, ikasle guztiak onartuak izateko baldintza berdina izan ditzaten.

Sare publikoa hautatzen duten familiei normalean ikastetxe bakar bat esleitzen zaie, baina itunpeko ikastetxe bat hautatzen duten familiei askoz aukera zabalagoa esleitzen zaie, Hezkuntza Sailak esleitzen dien eragin-eremua ere askoz zabalagoa delako.

(P3) Beraz, Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatzen dio 21/2009 Dekretuaren 3.4. artikulua xedatzen duena nola gauzatu azter dezan eta azkenean abian jar dezan eskatzen dio, familiek haurrak hezkuntza-sare ezberdinetako ikastetxeetan matrikulatzeko baldintzak berdintzeko.

Ikastetxeek onartze-prozesuaren Berme Batzordeetan eta eskola-maparen Tokiko Jarraipen Batzordeetan duten ordezkariari dagokionez, dekretuek itunpeko ikastetxeen ordezkariak eta ikastetxe publikoen ordezkariak egon behar direla xedatzen dute. Hala eta guztiz ere, administrazioak zozketa bat egiten du sektore horietako ordezkariak nortzuk izango diren erabakitzeko.

(P4) Badira zuzendarien eta ikastetxeen elkarte batzuk betebeharrak bikoitza dutenak, hots, alde batetik ikastetxeen arteko komunikazioa eta bestetik hezkuntza administrazioarekiko harremana, eta horregatik uste du Kontseiluak zozketaren mekanismoa ez dela egokia. Administrazioari parte hartze horren ordezkartasuna eta egokitasuna hobetzeko mekanismo bat azter dezan eskatzen dio.

Ikasleen maila sozial, ekonomiko eta kulturalaren adierazleak (ISEK) eta biztanleriaren adierazle ekonomikoak (errenta, pobrezia-arriskua) geografikoki nola banatzen diren aztertzean, eskola-zonalde batzuetako ikastetxeetako haurrek ikasketak aurrera ateratzeko dituzten hasierako itxaropenak biztanleriaren batez besteko mailako haurren baino apalagoak direla ikusi da.

Hasierako azterketa batean, ISEK adierazlean eta adierazle ekonomikoetan puntuazio apala duten eskola-zonaldeak honako hauek dira: Bizkaian Bilboko barruti batzuk (Errekalde, Ibaiondo, Basurtu-Zorrotza eta Txurdinaga-Otxarkoaga), gehi Sestao, Erandio eta Ermua; Gipuzkoan, Donostiako ekialdeko barrutia, Andoain, Errenteria eta Hernani; Araban, Vitoria-Gasteizeko iparraldea eta ekialdeko landaguneak.

Banakako errentaren adierazle ekonomikoa bakarrik kontuan hartzen bada, aurreko zerrendari Nerbioiren ezker aldeko udalerriak eta Lea-Artibai erantsi behar zaizkio.

Ikasle etorkinei dagokienez, azken bi urteotan sareen arteko bidezko banaketa lortzeko helburuan ez dela aurreratu ikus daiteke. Traturik zuzenena Gipuzkoak eskaintzen zuen, baina atzera egin du. Itunpeko ikastetxeen sarean, Kristau Eskolaren tasa Erkidegoko erdiaren inguruan dago oraindik ere, baina gainontzeko ikastetxeen elkarteak oso urrun geratzen dira.

Bizkaian ikasle etorkinen ehunekorik handienak dituzten eskola-zonaldeak Bilboko barruti batzuk (Errekalde, Basurtu-Zorrotza eta Ibaiondo), Erandio, Mungia

eta Igorre dira. Horiekin batera, Vitoria-Gasteizeko iparraldea, Arabako hegoaldea, eta Gipuzkoan Donostiako ekialdeko barrutia.

Ikasle etorkinen eskolatzean parte hartzeari dagokionez, ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxeen arteko kontrasterik handiena eskola-zonalde hauetan gertatzen da: Bizkaian, Galdakao, Mungia, Amorebieta, Leioa eta Txorierri; Araban, Vitoria-Gasteizeko hego-ekialdeko eskola-zonaldea. Hein txikiago batean, Portugalete, Sestao, Andoain eta Txurdinaga-Otxarkoaga eta Abando Bilboko barrutietako ikasle etorkinen banaketa tasa ez da Erkidegoko batez besteko tasa bezain bidezkoa.

Beste alde batetik, emaitzei dagokienez, *euskararen adierazleak* hizkuntza horretan lortzen den gaitasun mailarekin lotzen dira, eta, zeharka, euskara ikasketako hizkuntza bezala erabiliz eskuratzen diren gainontzeko gaitasunekin ere.

Euskararen ezagupen eta erabilpen mailarik apalena Euskadiko honako eskola-zonalde hauetan gertatzen da: Nerbioiren ezkeraldea, salbuespenik gabe, Bilboko zenbait barruti (Errekalde, Basurtu-Zorrotza, Uribarri eta Abando), Arabako hegoaldeko eskola-zonaldeak Vitoria-Gasteizko eskola-zonalde batzuk barne, eta bi zonalde isolatu (Ermua, Bizkaian; Donostiako ekialdeko barrutia, Gipuzkoan).

Zonalde horietan euskararen egoera soziologikoa antzerakoa den arren, irakastereduak hautatzerakoan zonalde batzuek euskalduntzearen aldeko hautaketa aurreratuagoa egiten dute. Hirigune handietan, berriz, esate baterako Bilbon (Errekalde, Abando eta Uribarri), Gasteizen, Barakaldon edo Getxon, itunpeko ikastetxeen kontzentrazioa handia da, eta, beraz, irakastereduak hautatzerakoan euskalduntze erritmo motelagoa ikusten da.

ISEK adierazleen eta hizkuntzaren adierazleen emaitza partzialak batera aztertzen direnean, Euskadiko zenbait zonaldetan premia berezi batzuk antzematen dira, eta bereziki hiru hiriburuetako barruti batzuetan.

(P5) Kontseiluak Hezkuntza Sailari adierazi nahi dio ISEK adierazleen eta hizkuntzaren adierazleen baliorik apalena dituzten zonaldeek arreta berezia behar dutela ikerlanetan, ebaluazioan, berrikuntza prozesuetan, giza baliabideak eta baliabide materialak ematean eta ikastetxe horiek ikasleen hasierako defizitari aurre egiteko behar duten autonomia mailan ere.

Ikasle etorkinei dagokienez, Kontseiluak uste du Tokiko Eskolatzeko Batzordeek ez dutela behar bezala egiten ikastetxe guztien arteko banaketa orekatua.

(P6) Eskola-maparen dekretuaren 5.8 artikulua xedatzen duenari dagokionez, Kontseiluak uste du ikasle horiek ikastetxez arrazoi baztergarriengatik alda ez daitezela administrazioak kontrol-neurri batzuk ezarri behar dituela, besteak beste jantokirako eta garraiorako kuotak kobratzea.

Kontseiluak uste du derrigorrezko etapetan eskolatutako ikasle guztiek, eta bereziki baliabide ekonomiko urriko ikasle etorkin heldu berriek, eskubidea dutela doako hezkuntza zerbitzua izateko. Ikaslea zein ikastetxetan eskolatu

behar den Hezkuntza Sailak erabakitzen duenez, Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du ikasle horiei ezeren ordainez inolako kuotarik ez kobratzea.

Kontseiluak Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programei (HLPP) eta Eskolatze Osagarriko programei buruzko informazioa bildu du.

Kontseiluak aintzat hartzen du HLPP programen dimentsioa –4.500 ikasle hartzen dute, 16 eta 17 urte bitarteko biztanleriaren % 10– eta balioetsi egiten du ikastetxeek nerabe horiek ikasketetan aurreratzeko eta gizartean eta lan munduan integratzeko egiten duten lan garrantzitsua.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzera bideratutako moduluaren jarraipenari dagokionez, Kontseiluak uste du HHEko ikastetxeekin duten koordinazioa egoki egituraturik dagoela.

(P7) Arlo horretan, Kontseiluak Hezkuntza Sailari graduatu titulua lortzeko prozesuan HLPP programetako ikasleen jarraipena egin dezan eskatzen dio, bai berariazko moduluaren bitartez, baita maila ertaineko Lanbide Heziketara zuzen sartzeko proben bitartez.

Lege organikoak, LOEren aplikazioaren ondorioz, HLPP programak behin betirako egituratzen dituzenean, Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du gaur egun dauden askotariko ereduak bateratzeko arautze orokor bat abian jartzea. Hezkuntza administrazioak erakunde publikoen ikastetxeen ardura hartu beharko luke, alderdiek beren artean adosten duten heinean.

Eskolatze Osagarriko Programei dagokienez, Kontseiluak atsegin handiz egiaztatu du haien bolumena murrizten doala, eta gero eta gehiago egokitzen zaizkiela benetako premia duten ikasleei.

2. atala: EBALUAZIOA

Sarrera

Txosten honetan aztertzen diren bi ikasturteetan zehar, ikasleen ebaluazioak bultzada handia jaso du, eta arreta oinarritzko arlo edo irakasgai batzuetako ikaste-emaitzetan jarri du, oinarritzko konpetentzien paradigma berriaren barruan adierazten diren ikaste-emaitzak alegia.

Kanpoko ebaluazioaren esparruan, Euskadik 2009. urtean hirugarrenez hartu du parte ELGAK antolatzen duen PISA nazioarteko proban. Estatuaren esparruan 2009an eta 2010ean Ebaluazio diagnostiko orokorraren (Evaluación General Diagnóstica, EGD) hasierako bi ekitaldietan parte hartu du. 2010eko txostena oraindik ez da argitara eman.

Barne esparruan, 2009an eta 2010ean Ebaluazio diagnostikoaren (ED) lehenengo bi ekitaldiak gauzatu dira, eta ondorioz ikastetxeetako hobekuntza planak abian jarri dira.

Lau ebaluazio horiei buruzko daturik garrantzitsuenak jasotzen dira atal honetan zehar, ISEI-IVEIren, Instituto de Evaluación (IE) erakundearen eta ELGAREN txostenetatik hartuak. Ondorioen eta proposamenen aurreko azpiatalean ISEI-IVEIren betebeharra laburki aztertzen da, eta euskal hezkuntza sistemari dagozkion beste zenbait funtzio eta ebaluazio-agente ere aipatzen dira.

2.1. Euskal hezkuntza sistematik kanpoko ebaluazioa


Jarraian aztertzen diren bi ebaluazio proben ezaugarriak ezberdinak dira, ebaluazio sistema berekoak badira ere. Bai PISAk bai ebaluazio diagnostiko orokorrak, biek neurtzen dituzte ikasleen zenbait konpetentzia: hizkuntza-komunikaziorakoa, matematikarakoa, zientziarakoa...

Bien arteko ezberdintasunik nagusienak proben gauzatze-esparruan eta ebaluatzen diren ikasleen adinean gertatzen dira. PISA proba garapen maila garaiko edo ertaineko herrialde gehienetan gauzatzen da, eta Euskadik bertako ikasle-lagin batekin hartzen du parte, horrela gure emaitzak Europako edo beste kontinenteetako beste herrialdeetako emaitzekin konpara ditzakegu, eta, baita ere, Estatuko autonomia erkidego gehienetako emaitzekin. Ebaluazio diagnostiko orokorraren (EGD) gauzatze-esparrua, berriz, txikiagoa da –Estatua–, baina autonomia erkidegoekiko konparazioak egiteko oso eredu erabilgarria da.

Bigarren ezberdintasuna ebaluazioa egiten duten ikasleen adina da. PISA ebaluazioak derrigorrezko eskolatzearen etaparen bukaeran dauden (15 urteko) ikasleen konpetentzia maila neurtzen du, eta aurreneko EGD ebaluazioa (2009) Haur Hezkuntzako 4. mailako ikasleei egin zaie (erreferentzia-adina 9 urte). Hartara, sei urteko eskolatzeko-aldea dago bi proba horietan ebaluatutako ikasleen artean, eta alde horrek azal litzake, hein batean behintzat, bi probetako emaitzen artean ikusiko diren ezberdintasunak.

2.1.1. PISA-2009 proba

Ondorengo mapan PISA ebaluazioaren azken proban parte hartu duten herrialdeak ikus daitezke (kolore ilunekoak ELGAko herrialdeak dira).



Oraingo proban irakurtzeko konpetentzia, matematikarako konpetentzia eta zientziarako konpetentzia ebaluatu dira.

Irakurtzeko konpetentzia

ELGAko ebaluazio sistemaren arabera, irakurtzeko konpetentzia honela definitzen da: “ikasleak testu idatziak ulertzeko, erabiltzeko eta aztertzeko duen konpetentzia, bere helburu pertsonalak lortzeari, bere ezagupenak eta aukerak garatzeari eta gizartean bete-betan parte hartzeari begira”

Probako hizkuntza hautatzeko erabili den irizpidea ikasleak gaitasunik handiena zein hizkuntzatan duen kontuan hartzea izan da. Kasurik gehienetan hizkuntza hori etxean erabili ohi duena izaten da, hots, lehen hizkuntza. Euskal ikasleen kasuan, irakurtzeko konpetentziarik handiena gehien-gehienetan gaztelaniazkoa da (% 84), eta gainontzean (% 16) euskarazkoa.

PISA-2009. Irakurtzeko kompetentzia. Ikasle kopurua probako hizkuntzaren arabera


Gaztelania		Euskara		Guztira	
kopurua	%	kopurua	%	kopurua	%
4.025	84,4	743	15,6	4.768	100

Gure hezkuntza sistema elebidunean adin horretako ikasleen % 81 B edo D ereduetan eskolaturik dago, eredu horietan irakas-hizkuntzarik erabiliena ia kasu guztietan euskara delarik. Irizpidea gure hezkuntza sisteman aplikatzen badugu, curriculum arloen edo irakasgaien parte handi bat euskaraz ikasten duten ikasleen % 60ren etxeko hizkuntza gaztelania dela ondorioztatzen da.

Ondorioz, kompetentzia horretako ebaluazioak lehen hizkuntza ebaluatzen du, eta ikasleen gehiengoaren kasuan, % 60 inguru, ez du informaziorik ematen irakas-hizkuntzan (euskaran) duten irakurtzeko kompetentziaz, interes handiko informazioa, bestalde, ebaluazio horretan eta beste batzuetan zientziarako eta gizarterako kompetentzietako emaitzak aztertzen direnean.


Probako hizkuntzaren azua aztertu ondoren, 2009ko ebaluazio honetan Euskadik 494 puntu lortu du, 2006ko ebaluazioan baino 7 puntu gehiago, ELGAko batez besteko puntuazioan geratu delarik, Espainiako batez bestekoa baino 13 puntu gorago. Espainiako batez bestekoak 20 puntu berreskuratu ditu aurreko ebaluaziotik, 2003an lortu zuen puntuazioa (481) lortu baitu berriro.

PISA. Irakurtzeko kompetentziako emaitzak azken hiru ebaluazioetan: Euskadi, ELGA eta Espainia



Erreferentzia gisa, hiru autonomia erkidego ere hautatu dira: Katalunia, erkidego elebiduna delako; Nafarroa, hizkuntzaren eta gizartearen aldetiko zenbait alderdi gureen antzekoak direlako; eta Gaztela eta Leon, hurbiltasunagatik eta emaitza onak lortu dituelako. Azken ebaluazioan hobekuntza handia gertatu da emaitzetan, estatuko batez bestekoaren 20 puntuko igoerarekin bat datorrena.


PISA. Irakurtzeko kompetentziako emaitzak azken hiru ebaluazioetan: Euskadi eta beste autonomia erkidego batzuk



Herrialdeetako emaitzak aztertzen direnean, *ISEK indizearekiko lotura estatistikoa* ikus daiteke: sarritan indize sozial, ekonomiko eta kultural altuari batez bestekoa (kasu honetan 493 puntukoa) baino puntuazio altuagoa egokitzen zaio. Ebaluazioan herrialde batean ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza hobekak lortzen direnean, herrialde horretako hezkuntza sistemak gainontzeko herrialdeetako batez bestekoa baino balio erantsi handiagoa ematen duela irizten da, eraginkortasun maila handiagoa duela.

Hartara, ondorengo grafikoan ISEK indize berdintsuko herrialde multzoak ikus daitezke, baina ikaste-emaitzen arteko alde handiak dituztenak. Hurbiltasun geografikoagatik bi pare aipa litezke: Finlandia eta Suedia ISEK indizearen goiko tartean, eta Txile eta Argentina ISEK indizearen beheko aldean.


PISA-2009. Irakurtzeko kompetentzia. Herrialdeetako batez besteko puntuazioaren eta ISEK indizearen arteko erlazioa



Espanian irakurtzeko kompetentziako emaitza bat dator bere ISEK indizearekin (-0.3), Europar Batasuneko indizerik apalena, bestalde, Portugalakoarekin batera.

Autonomia erkidegoen sailkapenean, Euskadik eta Madrilek dute ISEK indizerik altuena, baina ELGAko batez bestekoa baino apalagoa. Euskadiren kasuan, irakurtzeko kompetentziako emaitza ISEK indizea kontuan izanik espero zitekeena baino apur bat apalagoa da.

PISA-2009. Irakurtzeko kompetentzia. Autonomia erkidegoetako batez besteko puntuazioaren eta ISEK indizearen arteko erlazioa



Euskal hezkuntza sistemaren ezaugarrietako bat, ikasleen kompetentziak ebaluatzen dituzten askotariko ikerketetan behin eta berriro azpimarratzen dena, emaitzetan duen ekitate maila altua da.

Ikasleak emaitzen arabera sailkatzeko sei maila finkatu dira eta aurre-maila bat (<1). ELGAK ikerketan erabili dituen adierazleetako bat 2. mailara (408 puntu, 500 puntuko batez bestekoa duen eskala batean) heltzen ez diren ikasleen ehunekoak da. Adierazle horri dagokionez, 2020. urterako finkatu den nazioarteko helburua aipatutako ehunekoak ikasleen % 15 baino apalagoa izatea da.

Euskadiren kasuan ikasleen % 15,2 geratu dira 2. mailatik behera (haien artean, % 4,1 ez da 1. mailara heltzen), eta, beraz, finkatutako helburutik oso gertu gaudela esan daiteke.

Banaketa errendimendu-mailaren arabera: goiko eta beheko muturrak.

maila	< 1	1	2	3	4	5	6
Puntuazio tartea →	< 335	335-407	408-480	481-552	553-625	626-698	> 698
Euskadi	4,1	11,1	25,5	34,6	20,4	4,2	0,3
Espainia	5,9	13,6	26,8	32,6	17,7	3,2	0,2
Katalunia	4,1	9,4	24,5	35,3	23,0	3,6	0,0
Nafarroa	3,1	11,5	24,9	33,4	21,9	4,6	0,4
Gaztela eta Leon	3,8	9,4	22,9	35,2	22,6	5,9	0,2
ELGA	5,7	13,1	24,0	28,9	20,7	6,8	0,8

Espainia orokorrean helburutik 4,5 puntura egongo litzateke, eta ELGAko batez bestekoa 3,8 puntura. Erreferentziatzat hartutako hiru erkidegoek helburua beteta izango lukete jadanik.

Ekitatearen arloan izandako emaitza onen kontrapuntua bikaintasunaren aldetiko emaitzak dira. Bikaintasuna 4. mailari dagokion puntuazioa (626 puntu) baino puntuazio altuagoa lortu duten ikasleen ehunekoak adierazten du. Hartara, arlo honetan bai Euskadi (% 4,5), bai Espainiako batez bestekoa (% 3,4) eta baita hiru erreferentzia-erkidegoak ELGAko batez bestekoaren (% 7,6) azpitik geratu dira.

PISA-2009 ebaluazioko analisisan ekitatea adierazteko kontuan izan den bigarren adierazlea ikasleen adinaren egokitasun-tasa izan da, kasu horretan DBH. 4. mailako ikasleen artean 15 urteko ikasleen kopurua ehunekoetan. Adin egokiko ikasleak 1994an jaiotakoak dira, eta, beraz, ez dute inoiz irakasmailerik errepikatu. Hezkuntza sistema batean irakasmailerik errepikapenak zenbat eta urriagoak izan, hezkuntza sistemak ikasleak hainbat eta hobeto integratzen dituela irizten da, eskola-porrotari erantzun egokia aurretiaz ematen baitio.

Ondoko eskalan, Euskadi eta Katalunia lehen


PISA 2009. DBHko 4. maila ikasten duten 15 urteko ikasleen kopurua ehunekoetan autonomia erkidegoen arabera.	
Euskadi	77,6
Katalunia	76,7
Nafarroa	71,8
Asturias	68,9
Gaztela eta Leon	64,3
Kantabria	63,7
Murtzia	62,8
Galizia	62,5
Madril	61,7
Errioxa	60,9
Aragoi	60,5
Balear Uharteak	59,6
Andaluzia	57,1
Kanariar Uharteak	54,5
Ceuta eta Melilla	52,6

tokietan daude argi eta garbi, hurrengoei alde handia ateratzen dietelarik. Aurreko erreferentziara itzulirik, alde horrek adierazten du Gaztela eta Leonen kasuan, lortutako emaitza onen ordain gisa, irakasmila errepikatu duten ikasleen ehunekoa 13 puntu handiagoa dela, eta horrek bere eragina du integrazioan eta kostu ekonomikoan.

Gure hezkuntza sistemaren ekitate maila altuaren hirugarren eta azken seinalea beste adierazle batek ematen du. Adierazle horrek ikasleen ISEK indizeen arteko aldeak emaitzetan duten eragina kuantifikatzen du ebaluazioan parte hartu duten herrialdeen artean. ELGAko herrialdeetan batez beste, ikasleen ISEK indizeen arteko aldea 1 puntukoa denean, beren emaitzen arteko aldea 38 puntukoa izatea espero daiteke 500 puntuko batez bestekoa duen eskalan.

Hartara, bi ikasleren ISEK indizeen artean 1 puntuko aldea izanik, hezkuntza sistema batek ikasle horien irakurketarako kompetentziako emaitzen arteko aldea 38 puntuetatik nabarmenki jaiste lortzen badu, ekitate handiko sistema dela esan daiteke, ikasleen jatorriari dagozkion ezberdintasunek ikaste-emaitzetan eragin txikiagoa izatea lortzen duelako.

PISA-2009. Irakurtzeko kompetentzia. Ikasleen errendimenduaren aldaketa ISEK indizearen gehikuntza-puntu bakoitzeko: a) ELGAko herrialdeetan b) autonomia erkidegoetan.



Espainiako batez bestekoa 29 puntukoa da eta Euskadikoa, 24 puntukoa. Beraz, ekitatearen aurreko bi adierazleetatik ateratako ondorioak baieztatu egiten dira.

Marko hau erabilgarria da, ISEI-IVEIk bere txostenetan aztertzen duen lehen aldagaiari dagokionez, gure autonomia erkidegoaren barnean dauden ezberdintasunak testuinguruan kokatzeko. Aldagai horri, 1. atalean deskribatu den bezala, geruza deritzo, eta “hezkuntza-sare” eta “irakasteredu elebidun” aldagaiak konbinatzen ditu. Ondorengo taulan eta grafikoan 6 geruzetako datuak adierazten dira honako alderdi hauen arabera:

- 6 geruzen multzoan, bakoitzari dagokion ehunekoa edo hedadura
- ISEK indizea
- irakurtzeko kompetentziako batez besteko emaitza


Sei geruzetako bakoitzaren pisuari dagokionez, hedatuena D publikoa da (% 32), eta hurrengoak D pribatua eta B pribatua dira, biak % 20tik gora. Txikienak sare publikoko A (%4) eta B (%6) ereduak dira. Azken bi geruza horietan biltzen dira maila

sozio-ekonomikorik apalenetako ikasleak (ISEK indizearen balioak, -0,71 eta -0,46 hurrenez hurren), atzerriko ikasleen ehunekoaren adierazlearekin baieztatua zen bezala. Goiko aldean A pribatuaren geruza nabarmentzen da, ISEK indizea 0,29 baita.

A pribatuaren eta B pribatuaren geruzek irakurketarako konpetentzian (gaztelaniazkoan kasu ia guztietan) beren ISEK indizearen batez besteko balioaren arabera espero zitezkeenak baino emaitza hobekoak lortu dituzte, baina A publikoaren geruza minoritarioa (% 4) espero zitezkeen emaitzetatik oso azpitik geratu da (434 puntu)¹.

PISA-2009. Euskadi. Irakurtzeko konpetentzia. Geruzetako emaitzen eta ISEK indizearen arteko erlazioa

Geruza	% geruza	ISEK	Irakurtzeko konpetentzia
A pub	% 4	-0,71	434
B pub	% 6	-0,46	480
D pub	% 32	-0,22	486
A prib	% 15	0,29	515
B prib	% 20	-0,04	509
D prib	% 23	0,11	494
Euskadi	% 100	-0,06	494



B publikoaren geruza Euskadiko erregresio-zuzenaren azpitik geratu da, baina, beren ISEK indize berdina (-0,46) duten ikasleen artean, ELGAko batez bestekoaren gainetik. Bi geruza maioritarioak (D publikoa eta D pribatua) beren ISEK indizearen batez besteko balioaren arabera espero zitezkeen emaitzen parean geratu dira, apur bat beherago.

Matematikarako konpetentzia


Matematikarako konpetentzia honela definitzen da: “matematikek egungo munduan betetzen duten funtzioa identifikatzeko eta ulertzeko, argudioetan oinarritutako iritziak emateko eta horiek gaur egungo zein etorkizuneko norberaren, laneko eta gizarteko bizitzako beharretan erabiltzeko gai izateko pertsona konstruktibo, arrazoitzeko gai den eta konprometitu gisa norberak duen gaitasuna”.

Euskadin matematikarako konpetentziako emaitza ona izan da (510 puntu), aurreko bi probetan lortutakoak baino ia 10 puntu altuagoa, eta horrela ELGA batez

¹ Gorriz margotutako lerro zuzena “erregresio-zuzena” deitzen da, eta Euskadiko ikasleen banaketaren arabera eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzak zehazki lortu dituzten ikastetxeak, ikasleak... adierazten ditu. Puntudun marra urdina ELGAko erregresio-zuzena da.


bestekotik urrundu egiten da (14 puntu) eta baita Espainiako batez bestekotik ere (27 puntu).

PISA. Matematikarako kompetentziako emaitzak azken 3 ebaluazioetan: Euskadi, ELGA eta Espainia



Autonomia erkidegoak konparatzeko aukeratutako markoan, Euskadi lehenengo multzoan dago eta puntuazio igoerarik handiena izan duen erkidegoa da. Katalunia (496 puntu) multzo horretatik urrun samar geratu da.

PISA. Matematikarako kompetentziako emaitzak azken 3 ebaluazioetan: Euskadi eta beste zenbait autonomia erkidego.



Ekitatearen argudioa berriro harturik, ikasleen % 14,9 2. mailatik behera geratu da, hots, erreferentziatzat hartu den % 15eko mugatik behera. Bikaintasunari dagokionez, nazioarteko batez bestekoa (% 12,7) lortu da, eta beraz kompetentzia honetako emaitza ona baieztatu da.


PISA-2009. Matematikarako kompetentzia. Banaketa errendimendu mailen arabera: goiko eta beheko muturrak.

maila	< 1	1	2	3	4	5	6
Puntuazio tartea →	< 358	358-420	421-482	483-544	545-606	607-669	> 669
Euskadi	5,3	9,6	20,5	28,6	23,2	10,5	2,2
Espainia	9,1	14,6	23,9	26,6	17,7	6,7	1,3
Katalunia	7,3	11,8	23,4	27,1	20,0	8,6	1,8
Nafarroa	5,5	9,6	19,5	27,6	24,3	11,3	2,1
Gaztela eta Leon	5,1	10,3	18,6	27,5	23,1	11,9	3,5
ELGA	8,0	14,0	22,0	24,3	18,9	9,6	3,1

Euskadiko barne banaketa geruzen arabera aztertutik, D pribatua ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeen batez besteko emaitzetatik gainetik geratu da. Gainerako hiru geruza maioritarioek ere emaitza erlatibo onak izan dituzte.

Sare publikoko B eta A erduak irakurtzeko kompetentziako emaitza errepikatu dute.

Geruza	% geruza	ISEK	Matematik. konpet.
A pub	% 4	-0,71	428
B pub	% 6	-0,46	494
D pub	% 32	-0,22	510
A prib	% 15	0,29	517
B prib	% 20	-0,04	513
D prib	% 23	0,11	521
Euskadi	% 100	-0,06	510




Zientziarako konpetentzia

Zientziarako konpetentzia honela definitzen da: “Ezagutza zientifikoa erabiltzeko, galderak identifikatzeko eta probetan oinarritutako ondorioak lortzeko gaitasuna da, mundu naturalaren inguruko eta giza jarduerak han sortzen dituen aldaketen gaineko erabakiak hartzen laguntzeko eta horiek ulertzeko helburuarekin”.


ELGAko batez besteko emaitzekin konparaturik, Euskadik emaitzarik apalenak konpetentzia honetan lortu ditu (495 puntu; batez bestekoa, 501). Espainiako batez bestekoarekiko aldea 7 puntura murrizten da, matematikarako konpetentziaren kasuan 27 puntukoa zelarik, eta irakurketarako konpetentziarenean, 13 puntukoa.

PISA. Zientziarako konpetentziako emaitzak azken 3 ebaluazioetan: Euskadi, ELGA eta Espainia




Gainontzeko hiru autonomia erkidegoetako emaitzekin konparaturik, Euskadi, Kataluniarekin batera, Gaztela eta Leon eta Nafarroa baino beherago geratu da, eta termino estatistikoetan aldea adierazgarria da.

PISA. Zientziarako konpetentziako emaitzak azken 3 ebaluazioetan: Euskadi eta beste zenbait autonomia erkidego



Geruzen araberako barne konparazioan, A pribatua nabarmentzen da eta, hein txikiagoan baita B pribatua ere, bietan espero zitezkeen emaitzak gaintu baitira.

Geruza	% geruza	ISEK	Zientziarako Komp.
A pub	% 4	-0,71	446
B pub	% 6	-0,46	476
D pub	% 32	-0,22	487
A prib	% 15	0,29	520
B prib	% 20	-0,04	500
D prib	% 23	0,11	496
Euskadi	% 100	-0,06	495



D ereduaren geruzak erdialdean geratu dira, baina nazioarteko erreferentzia-eredua (puntutun marra urdina) kontuan hartuko bagenu, D pribatuaren geruza azpitik geratuko litzateke.

Bi geruza minoritarioak (sare publikoko A eta B ereduak) aurreko konpetentzietako sailkapenean izan diren tokietan geratu dira .

Ebaluatutako hiru konpetentzien laburpenean, PISA-2009 proba 2000. urtean hasitako prozesuaren bilakaeran aurrerapausoa izan da, batez ere matematikarako konpetentzian, konpetentzia horretan 510 puntuko mailara heldu baita, European emaitzarik onenak lortu dituzten herrialdeen artean geratu delarik. Lehen hizkuntzako irakurketarako konpetentzian ELGAko batez bestekoaren maila berreskuratu da, mailarik apalenean geratu den konpetentzia zientziarako konpetentzia izanik.

Hezkuntza-sareek eta irakasteredu elebidunek osatzen dituzten 6 geruzen araberako barne banaketan, bakoitzaren ISEK batez besteko indizea kontuan izanik, irakurketarako eta zientziarako konpetentzietan A eta B pribatuen geruzak gailendu dira, eta matematikarako konpetentzian, berriz, D pribatuaren geruza gailendu da.

D publikoaren geruzak, 6 geruzetan hedatuena (15 urteko ikasleen % 32), Euskadiko batez besteko puntuazioetatik hurbil dauden puntuazioak lortu ditu, bere ISEK batez besteko indizearekin (-0,22) hein handi batean bat datozenak.

B publikoaren geruzan, berriz, eta are gutxiago A publikoarenean emaitzak espero zitezkeenak baino apalagoak izan dira, ikasleen ISEK batez besteko indizea baxua bada ere. Gure hezkuntza sistemaren ekitatea baino ekitate txikiagoko beste hezkuntza sistema batean, ikasleen % 7 hartzen duen B publikoaren geruzako emaitzak arau estatistikoaren barruan egongo lirateke, baina inolaz ere ez A publikoaren geruzako emaitzak (% 4).

2.1.2. 2009ko Ebaluazio diagnostiko orokorra

Ebaluazio Institutuak (Instituto de Evaluación, IE) oso argi azaltzen du *Ebaluazio diagnostiko orokorraren (EGD) norainokoa* 2009ko ebaluazioari buruz egindako txostenean, bai helburuei dagokienez baita emaitzen balioa testuinguruan kokatzeari dagokionez ere. Ebaluazio diagnostiko orokorrean Estatuko autonomia erkidego guztiek hartu dute parte.

“Ebaluazio diagnostiko orokorra izaera hezigarriko ebaluazioa da hezkuntza sistema osorako (Scriven) eta bere helbururik behinena informazio zehatza eskaintzea da, hezkuntza politikaren arduradunek ikasleen ikas-prozesuetan esku hartu eta prozesuak hobetu ahal izan ditzaten, hau da, hezkuntzaren hobekuntzarako informazioa eskaintzea eta hobekuntza benetan gauzatzea.

Ikastetxeen, prozesuen, irakasleen eta hezkuntza sistemen ebaluazioen emaitzak ebaluazio diagnostiko orokorraren eta nazioarteko ebaluazioen emaitzekin batera aztertzen direnean bakarrik lor daiteke hezkuntza sistemaren egoera sakonki ezagutzea eta baita kalitate handiko hezkuntza sistemen berariazko baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzea ere. Kalitate handiko hezkuntza sistemen ezaugarriak honako hauek dira:

- eraginkorrak dira: erabilitako baliabideekin ahalik eta emaitzarik onenak lortzen dituzte,
- bidezkoak edo ekitate handikoak dira: Estatuko eta autonomia erkidegoetako ikasle guztiek ateratzen diote onura sistemari eta emaitza onei,
- eraginkorrak dira: aurretik finkatutako gizarte eta hezkuntza helburuak betetzeko aukera ematen dute,
- programa eta politika egokiak eta garrantzitsuak eskaintzen dituzte.
- biztanleria helduak azkenean jasotzen duen prestakuntzan aurretiaz pentsatutako eragina lortzen dute.”

Baldintza horien argitan, hezkuntza administrazioak ebaluazio diagnostikoetatik (kasu honetan Estatuko ebaluazio orokorretik, baina baita zeinek bere ebaluaziotik ere) ahalik eta informazio gehien ateratzeko moduan egongo lirateke, baldin eta ikasleen ebaluazio horiekin batera ikastetxeen, prozesuen, irakasleen eta hezkuntza administrazioen ebaluazioak gauzatuko balituzte. Txostenak ebaluazio diagnostikoaren *lege-esparrua* laburki aipatzen du:

“Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak (LOE), maiatzaren 3koak, Ebaluazio Institutuaren eta hezkuntza administrazioen erakundeen arteko lankidetzak aurreikusten du ebaluazio diagnostiko orokorrak gauzatzeko, eta ondorioz Estatuko zein autonomia erkidegoetako ikastetxeei eta ikasleei buruzko datu adierazgarriak lortu ahal izateko. Ebaluazioak curriculumeko oinarrizko konpetentziei buruzkoak izango dira, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan egingo dira, eta 21. eta 29. artikuluetan aipatzen diren konpetentziak barne hartuko dituzte kasu guztietan. Hezkuntzako Sektore Biltzarrak bermatuko du ebaluazioak homogeneousotasun-irizpideekin gauzaten direla (144.1 artikulua).


Hezkuntzaren Lege Organikoaren 21. eta 29. artikuluetan xedatzen da ebaluazio diagnostikoak Lehen Hezkuntzan (bigarren zikloaren bukaeran) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (bigarren mailaren bukaeran) gauzatu behar direla, “ikastetxe guztiek ikasleek eskuratutako oinarrizko konpetentzien ebaluazio diagnostikoa egin behar dutela” agintzen duelarik. Ebaluazioa hezkuntza administrazioen ardurapean gauzatu da, eta “ikastetxeentzat izaera hezigarria eta orientagarria izango du eta izaera informatiboa familientzat eta hezkuntza komunitate orokorarentzat. Ebaluazioen erreferentzia-markoa legearen 144.1 artikuluan xedatzen diren ebaluazio diagnostiko orokorrak izango dira”.

Probak *gauzatzeko egutegiari* dagokionez, 2009an Lehen Hezkuntzako 4. mailako ebaluazioa egin zen eta 2010ean DBHko 2. mailakoa. Aipatu dugun txostenak 2009ko ebaluazioa (edo nahi izanez gero, 2008-09 ikasturtekoa) aztertzen du. Bi probetan konpetentzia berdinak ebaluatu ziren: hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, matematikarako konpetentzia, mundu fisikoa ezagutzeko eta horrekiko elkarrekintza izateko konpetentzia eta gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.

Ebaluazio Institutuaren txostenak *ISEK indizeari lotutako bi aldagai* aztertzen ditu, indizea hein handi batean azaltzen dutenak: bat ekonomikoa da, Barne Produktu Gordina (BPG) biztanleko, eta bestea kulturala, biztanleria helduaren ikasketa maila.

PISA-2009 ebaluazioan Estatu osoan ISEK indizerik altuena zuen autonomia erkidegoa Euskadi zela ikusten bazen, oraingo honetan indizeari lotutako bi aldagaietan ere lehen tokian dagoela ikus daiteke. Gauza bera gertatzen da ISEK indize altua duten erkidegoetan eta baita indize apala dutenetan ere.

EGD-2009. BPG biztanleko autonomia erkidegoetan. 2009. urtea (aurrerapena) (Espainia: 100)




Biztanleria helduaren ikasketa mailari dagokionez, ondorengo taula behar bezala ulertu ahal izateko honako hau hartu behar da kontuan: ELGAko eta 19 estatuko Europako datuetan (berdez) oinarrizko ikasketak eta Bigarren Hezkuntzako 1. etapakoak batera ageri da, baina Espainiako autonomia erkidegoetako datuak banaturik azaltzen dira.

Euskadiren kasuan, biztanleria helduaren artean ikasketa mailarik altuena bigarren Hezkuntzako 1. etapa dutenak % 35,1 dira (horien artean % 11,5ek Lehen Hezkuntzako ikasketak bakarrik ditu). European eta ELGAN biztanleria helduaren % 28-29 dago egoera horretan, Euskadin baino 6 edo 7 puntu gutxiago.

Beraz, biztanleria helduaren ikasketa mailaren Estatuko sailkapenean Euskadi lehen tokian badago ere, nazioarteko batez bestekotik nabarmenki beherago geratzen da, eta honek eragina izaten du ISEK indizean esparru horretako konparazioak egiten ditugunean (-0,10 eta 0,04 bitartean PISAko hiru probetan).


EGD-2009. Biztanleria helduaren ikasketa maila autonomia erkidegoetan. 2009. urtea (Espainiako indizea: 100)



Izan ere, datozen urteotan derrigorrezkoaren osteko hezkuntza-etapetako matrikulazio-indize altuei esker hobetuko diren faktoreetako bat da. Matrikulazio-indize hori sistemaren ekitatearen beste adierazle bat denez, ISEK indizearen eta emaitzen hobekuntza espero daiteke. Ez da ahaztu behar, bestalde, ISEK indizearen osagai batzuek, faktore ekonomikoei lotutakoek hain zuzen ere, bilakaera negatiboa izan dezaketela, Euskadiko ekonomiaren martxari jarraituz.

Ekitatearen adierazlearen adibide gisa, 17 urtekoen eskolatzeta-tasa garbia eta azken 10 urteotan izan duen bilakaera har daitezke, Estatuko batez bestekoarekin eta erreferentziatzat hartu diren autonomia erkidegoetako batez bestekoarekin konparaturik:


17 urtekoen eskolatzetasa garbia autonomia erkidegoetan eta azken 11 urteotako bilakaera (Instituto de Evaluación)



• **Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzak**


Emaitzen atalean, Ebaluazio Institutuaren txostenean Euskadin hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian eta matematikarako konpetentzian izandako emaitzak argitaratu dira. Batez bestekoa 500 puntukoa izanik, Euskadik hizkuntza-komunikazioan 494 puntu lortu ditu, eta matematikan, 501 puntu. Horrek esan nahi du Euskadiko Lehen Hezkuntzako ikasleak, Espainiako emaitza orokorren sailkapenean, beheagoko toki batean daudela 15 urteko ikasleak –6 urte beranduagoko eskolatzemaitzak– baino.

EGD-2009. LH 4. Batez besteko emaitzak hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian eta matematikarako konpetentzian




Emaitza horiek ISEK indizearen banaketarekin erlazionatzen ditugunean, emaitza apalak direla egiazta daiteke, ISEK indize altuak kontuan izanik espero zitezkeenak baino nahiko baxuagoak baitira.

EGD-2009. LH 4. Autonomia erkidegoetako batez besteko emaitzen eta ISEK indizearen arteko erlazioa



Gainontzeko kanpoko ebaluazioekin partekatzen duen faktore positibo bakarra *ekitatea* da, bi erregistroren bidez adierazirik. Desbideratze tipikoa, autonomia erkidego bakoitzean ebaluatutako ikastetxe multzoko bariazioaren neurri bezala, Euskadiren kasuan hiru txikienen artean dago aipatutako kompetentzietako bakoitzean.

EGD-2009. LH 4. Emaitzen barriadura kompetentzia bakoitzean. Desbideratze tipikoak




PISA ebaluazioan hezkuntza sistemen eragin orekatzailea aztertzen duen ekitatearen adierazlea kontuan izanik (ISEK indizearen unitate bati dagokion puntuazio aldea neurtzen duena), Euskadik batez bestekoa baino ekitate handiagoa erakusten du bi kompetentzietan, batez ere hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.

EGD-2009. LH 4. ISEK indizearen eragina emaitzetan

	LING				MAT			
	Puntuación media	ISEC	Puntuación media descontado el ISEC	Diferencia de puntuación asociada con una unidad en el ISEC	Puntuación media	ISEC	Puntuación media descontado el ISEC	Diferencia de puntuación asociada con una unidad en el ISEC
Andalucía	498	-0,26	508	32	488	-0,26	496	26
Aragón	529	0,29	518	38	523	0,29	513	37
Asturias	534	0,24	528	30	525	0,24	517	33
Baleares	471	0,01	469	34	489	0,01	488	30
Canarias	473	-0,24	480	29	463	-0,24	467	26
Cantabria	521	0,34	509	38	525	0,34	511	37
Castilla-Mancha	511	-0,15	516	24	501	-0,15	504	23
Castilla y León	532	0,19	525	30	525	0,19	516	32
Cataluña	502	0,13	497	31	500	0,13	494	31
C. Valenciana	491	-0,06	492	25	483	-0,06	484	24
Extremadura	493	-0,14	497	31	495	-0,14	497	26
Galicia	489	0,00	488	25	499	0,00	497	24
Madrid	529	0,29	516	40	521	0,29	508	37
Murcia	498	-0,20	502	29	494	-0,20	498	28
Navarra	528	0,20	521	30	537	0,20	531	26
País Vasco	494	0,38	485	23	501	0,38	490	29
La Rioja	530	0,06	527	35	541	0,06	537	35
Ceuta	457	-0,50	474	39	459	-0,50	466	24
Melilla	419	-0,58	435	31	430	-0,58	443	26
Promedio España	500	0,00	500	37	500	0,00	500	35

Euskadiko ikastetxeen (puntu gorriak) eta Estatuko ikastetxe guztien (puntu urdinak) adierazpen grafikoan ikus daiteke Euskadiko ikastetxe gehienak ardatz horizontalean (batez besteko emaitzak) daudela eta eskuin aldean (ISEK indize positiboa), haien ISEK indize berdina duten ikastetxeen behealdeko zerrendan.




Mundu fisikoa ezagutzeko eta horrekiko elkarrekintza izateko konpetentzia eta gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia ere ebaluatu ziren, baina emaitzak ez ziren grafikoan adierazi (2.1 Eranskina). Txostenean honako azalpen hau ematen da: “Euskadiko gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako emaitzak ez dira grafikoan azaltzen euskarazko bertsioko itemek funtzionamendu bereizgarria dutelako, eta, beraz, euskarazko bertsioko emaitzak eta gaztelaniazko bertsiokoak ez direlako konparagarriak”.

- **DBHko 2. mailako emaitzak**

Ebaluazio diagnostikoaren emaitzak hobek izan dira DBHko 2. mailan Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino, eta urte horretan PISA ebaluazioan 15 urteko ikasleek lortutako emaitzekin ia bat datoz, Euskadiko emaitzak Estatu osoko emaitzekin konparatzen direnean.


PISA ebaluazioan, Euskadik Matematikan lortu zuen bere emaitzarik onena, Espainiako batez bestekoa baino 27 puntu altuagoa. Ebaluazio Diagnostikoko emaitza asko hurbildu da puntuazio horretara.

ED-09. DBH 2. Matematikarako kompetentziako batez besteko emaitza.




PISA ebaluazioko irakurketarako kompetentzian Euskadik Espainiako batez bestekoa baino 13 puntu gehiago lortu zituen, eta emaitza hura oraingo ebaluazio diagnostikoko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako proban berretsi da:

ED-09. DBH 2. Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez besteko emaitza.




Mundu fisika ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko kompetentziako emaitza bat dator PISA ebaluazioan zientziarako kompetentzian lortutako emaitzarekin, Estatuko batez bestekoa baino apur bat altuagoa:

ED-09. DBH 2. Mundu fisikoaren ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko kompetentziako batez besteko emaitza.



Gizarte eta herritartasunerako kompetentziako emaitza ez da batez besteko horretara heldu.

ED-09. DBH 2. Gizarte eta herritartasunerako kompetentziako batez besteko emaitza.



Euskadik azken aldi honetan oinarritzko kompetentziei lotutako kanpoko bi ebaluaziotan (ebaluazio diagnostiko orokorra eta PISA) hartu du parte, eta bi ebaluazioetako emaitzak batera aztertzen direnean, emaitza kontrajarriak antzematen dira, apalagoak derrigorrezko hezkuntzako hasierako mailetan eta aski onak bukaerako mailetan.

Alde hori aztertzerakoan kontuan izan behar da gure hezkuntza sistemaren bereizgarri handiena, euskarazko murgiltze programa alegia, ikasle gehienek hezkuntza sistemara sartzen direnean ez dutelako euskara jakiten.

Gainera, ikastorduen antolamenduari dagokionez, asteko ikastordu kopurua berdina da autonomia erkidego guztietan (Katalunian salbu). Euskadin hizkuntza arloa indartzen duen beste irakasgai bat –euskara– ematen da, eta, beraz, gainontzeko arloek ikastordu gutxiago dute, gizarte zientzien eta natur zientzien kaltetan.

Edozein modutan ere, ebaluazio diagnostiko orokorraren lehen edizioan lortutako emaitzak ohartarazpen bat dira Euskadiko Lehen Hezkuntzako ikasleen ikaskuntzari buruz.

2.2. Barne ebaluazioa: 2009ko eta 2010eko ebaluazio diagnostikoak

2.2.1. Ebaluazio diagnostikoaren ezaugarriak

Euskadiko ikastetxeetako ebaluazio diagnostikoaren prozesua (2009ko deialdia) 2008-09 ikasturtean abiarazi zen 2008ko abenduaren 2ko Aginduaren bidez (EHAA, 2008/12/09). Aginduaren xedapen hauek azpimarra litezke:

- Probak urtero egingo dira, diru publikoaz finantzatutako ikastetxe guztietan, Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan.
- Helburua oinarrizko konpetentzien eskuratzeko maila egiaztatzea da.
- Ikastetxeentzat izaera hezigarria eta orientagarria du eta izaera informatiboa familientzat eta hezkuntza komunitate orokorrarentzat.
- ISEI-IVEIk, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak Batzorde Teknikoa osatuko dute, honako betebeharrak nagusi hauekin:
 - ISEI-IVEI: probak diseinatu eta gauzapena koordinatu; probak egin; item irekiak zuzentzeko prozesua prestatu eta zaindu; datuak aztertu eta txostenak egin.
 - Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza: ikastetxeei prestakuntza eta aholkua Berritzeguneen bidez eskaini.
 - Hezkuntzako Ikuskaritza: txostenak eta ikastetxeetako hobekuntza planak baloratu; hobekuntza planen gauzapena jarraitu.
- Ikastetxeetan koordinazio talde bat eratuko da, zuzendariak, ikasketa buruak eta ebaluatutako irakasmiletako tutoreak/tutoreek osatutakoa.
- Ikasleei eta ikastetxeei buruzko datuen isilpekotasuna bermatuko da.
- Hezkuntza Sailak txosten tekniko bat kaleratuko du ISEI-IVEIren bitartez, publikoa, emaitzen analisia eta beharrezkotzat jotzen diren hobekuntza neurriak jasotzen dituen.

Izan ere, *ISEI-IVEIk* 2009ko (2008-09 ikasturtean egindako) ebaluazio diagnostikoari buruzko hiru txosten argitaratu ditu ebaluatutako bi irakasmiletako bakoitzerako, *Laburpen exekutiboa*, *Emaitzen txosten orokorra* eta *Faktoreen eta aldagaien analisia*. Era berean, 2010eko ebaluazioari dagokionez, *Laburpen exekutiboa* eta *Emaitzen txosten orokorra eta aldagaien analisia* argitaratu ditu.

Horrez gain, beste bi motako txostenak ere argitaratzen arduratu da:

a) *Ikastetxeko txostena*, datu orokorrak eta ikastaldeetakoak jasotzen dituen. Honako atal hauek ditu besteak beste:

- Batez besteko emaitzak konpetentzia bakoitzean
- Ikasleen banaketa ehunekoetan errendimendu mailen arabera
- Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza sarea + irakasteredua) eta ISEK indizearen arabera.

b) *Banako txostena, familiarentzat*, ikasleak ebaluatutako oinarrizko konpetentzietan zer nolako errendimendu maila lortu duen azaltzen duena.

Urte guztietan (kasu honetan 2009an eta 2010ean) sistematikoki ebaluatzen diren konpetentziak euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia eta matematikarako konpetentzia dira. Horrez gain, 2009an zientzia, teknologia eta osasun kulturarako konpetentzia ebaluatu zen, eta 2010ean, gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. Hurrengo ebaluazioan, 2011n, atzerriko hizkuntza ebaluatuko da.

Barne ebaluazioaren xederik behinena ikasleen arteko ezberdintasunak eta ikastetxeen artekoak neurtzea eta horien azpiko faktoreak finkatzea da, kanpoko bestelako konparazio-elementurik kontuan hartu gabe.

ISEI-IVEIren analisisian lehenengo aldagaitzat “hezkuntza sarea/irakasteredua” geruza hartzen da, PISA ebaluazioan bezala; gero, beste aldagai batzuen azterketa sakona egiten du, haien artean txosten honetarako garrantzitsuenak azpimarratu ditugularik.

Lehenengo eta behin, geruzetako emaitzak azaltzen dira, ebaluatutako irakasmiletako bakoitzean banaturik. Bi ebaluazioetan ebaluatu diren konpetentzien kasuan, bietako batez besteko puntuazioak azaltzen dira, eta puntuazioak banakaturik dituen taula osoa 2.2 eranskinean azaltzen da.

Gero, gainerako emaitzak eta faktoreak azaltzen dira, Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila batera aztertzen direlarik. Atalaren azken puntuan ikastetxeetako hobekuntza planak azaltzen dira.

2.2.2. Emaitzak “hezkuntza sarea/irakasteredu elebiduna” geruzen arabera

Lehen Hezkuntzako 4. mailatik hasita, “hezkuntza sarea/irakasteredu elebiduna” 6 geruzen osaera eta 15 urteko ikasleen kasuan ikusi genuena (gehienak DBHko 4. mailakoak) ezberdinak dira, euskarazko murgiltze-irakastereduetako –B eta D– matrikulak eta hezkuntza sare publikoaren aukerak izan duten aurrerakadari esker.


D publikoa geruza maioritario bihurtu da, irakasmilako ikasle guztien % 40 hartzen baitu; tamaina ertaineko bi geruza daude, B eta D pribatuak, hurrenez hurren ikasleen % 23 eta % 22 hartzen dutenak, eta hiru geruza oso minoritario, ikasleen % 3tik (A publikoa) % 7ra (B publikoa) bitartean hartzen dutenak. A pribatuaren geruzak ikasleen % 5 bakarrik hartzen du irakasmila horretan.

Geruza batzuk murriztuz doazen heinean, bi A erduen kasuan bezala, ISEK indizearen balioak muturretara eramaten dituzte. Horrela gertatzen da A pribatuaren geruzarekin. PISA ebaluazioan ikasleen % 15 hartzen zuen eta bere ISEK indizea 0,3 zen; indizea orain ia 0,6koa izatera heldu da. Arrazoi beragatik jaitsi da A publikoaren geruzaren indizea. Gainontzeko geruzei dagokienez, sare pribatuko bi geruzek (B eta D) handitu egin dute indizea, eta sare publikoko bi geruzek (B eta D) ez dute aldaketarik izan.

ED. LH 4. 2009ko eta 2010eko batez besteko emaitzak ebaluazio diagnostikoan ebaluatutako kompetentzietan*

Geruza	Ikasleari dagozkion aldagaiak			Kompetentzietako emaitzak				
	ISEK	Geruza %	Euskara etxean %	● Euskara	◆ Gaztelania	■ Matematika	▲ Zientzia	▼ Gizartea
A publikoa	-1,19	3%	1%	167	216	219	237	240
B publikoa	-0,47	7%	5%	235	247	239	238	239
D publikoa	-0,14	40%	32%	260	247	245	247	244
A pribatua	0,58	5%	2%	200	274	260	274	275
B pribatua	0,18	23%	9%	248	266	255	248	254
D pribatua	0,22	22%	46%	270	252	255	256	255
Euskadi	0,00	100%	27%	252	253	249	250	250

(*) Datu guztiak 2.2 eranskinean



Lortutako emaitzak ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeen emaitzekin konparatzen badira, geruza bakoitzaren pisu erlatiboaren arabera ordenaturik, oinarritzko irakurketa hau egin daiteke:

D publikoa: Euskaran² nabarmentzen da, irakastereduaren eta etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoaren ondorioz. Gainontzeko kompetentzietan espero zitezkeen puntuazioetan dago, baina apur bat beherago Gizartean (244) eta Matematikan.

B pribatua: Gaztelanian nabarmentzen da, eta bere ISEK indizeari dagozkion puntuazioetan dago Zientzian eta Gizartean. Zientzian eta Euskaran beherago dago.

D pribatua: Euskaran nabarmentzen da eta espero zitezkeen puntuazioetan edo apur bat gorago dago Zientzian (256), Matematikan eta Gizartean, baina apur bat beherago (252) Gaztelanian. Etxean euskara erabiltzen duten ikasleen ehuneko handiaren (% 46) eragina hizkuntza-probetako emaitzetan nabaritzen da.

B publikoa: Gaztelaniako puntuazioa (247), geruza honetako ISEK indize apalari esker (-0,47), espero zitekeena baino hobea da. Matematikan, Gizartean eta Zientzian apur bat beherago dago, 240 puntuen inguruan. Euskarako puntuazioa apur bat apalagoa da (235).

² Hemendik aurrera, kompetentzien izenburuak laburtu egingo dira, irakurketa arintzearen: euskara, "euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia" ren ordeaz, eta abar.


A pribatua: Argi eta garbi nabarmentzen da Gaztelanian, Gizartean eta Zientzian. Gizartea eta Zientzia gaztelaniaz ikasten dute, aurreko 4 geruzetan ez bezala. Matematikan espero zitezkeen puntuazioetan dago, eta Euskaran (200) oso puntuazio apala lortu du, aurreko faktore guztiak kontuan izanik.

A publikoa: ISEK indizeari kontuan izanik espero zitezkeen puntuazioak 225 eta 230 puntu artean daude, eta, beraz, ontzat har daitezke Gizartean eta Zientzian lortutako puntuazioak (240 eta 237 puntu, hurrenez hurren), baina ez, ordea, Gaztelanian eta Matematikan lortutako puntuazio apalak (216 eta 219). Matematikako puntuazioa 9 puntuz jaitsi da aurreko ebaluaziotik. Euskaran erregistroa oso urrun dago (167 puntu), ikasleen erdia etorkinak baitira..

Aurreko prozedura bera jarraituz, **DBHko 2. mailako** ebaluazio diagnostikoak 2009ko eta 2010eko probetan honako emaitza hauek izan zituen:

ED. DBH 2. 2009ko eta 2010eko batez besteko emaitzak ebaluazio diagnostikoan ebaluatutako kompetentzietan

Geruza	Ikasleari dagozkion aldagaiak			Kompetentzietako emaitzak				
	ISEK	Geruza %	Euskara etxean %	● Euskara	◆ Gaztelania	■ Matematika	▲ Zientzia	▼ Gizartea
A publikoa	-0,92	% 3	% 0	169	219	209	229	236
B publikoa	-0,41	% 5	% 3	240	243	238	232	233
D publikoa	-0,10	% 36	% 30	266	248	249	247	241
A pribatua	0,21	% 11	% 1	202	257	253	265	270
B pribatua	0,10	% 23	% 6	257	260	254	248	258
D pribatua	0,19	% 22	% 40	273	253	260	257	253
Euskadi	0,00	% 100	% 21	254	251	250	250	250



D publikoa: Euskaran nabarmentzen da. Zientzian eta Gaztelanian espero zitezkeen puntuazioetan dago, baina apur bat gorago Matematikan (249). Puntuaziorik apalena (241) Gizartean lortu du.

B pribatua: Gaztelanian, Gizartean eta Euskaran nabarmentzen da, eta apur bat Matematikan. Zientzian beherago dago.

D pribatua: Euskaran nabarmentzen da argi eta garbi, eta baita Matematikan ere eta hein apalagoan Zientzian. Gaztelanian eta Gizartean ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeenak baino puntuazio apur bat apalagoak lortu ditu.

A pribatua: Zientzian eta Gizartean argi eta garbi nabarmentzen da, eta Gaztelanian espero zitezkeen puntuazioak baino apur bat gorago dago. Matematikan apur bat beherago dago, eta Euskaran (202) oso puntuazio apala lortu du berriro ere.

B publikoa: Gaztelanian, Euskaran eta Matematikan puntuazioak geruza honen ISEK (-0,41) arabera espero zitezkeenetik hurbil daude, eta Zientzian eta Gizartean jasotzen dira emaitza apalenak.

A publikoa: Gizartean eta Zientzian lortutako puntuazioak (236 eta 229 puntu, hurrenez hurren) espero zitezkeen artean daude edo gorago. Gaztelanian (219) eta batez ere Matematikan (209), ordea, espero baino apalagoak dira. Matematikako puntuazioa jaitsi da urte azken urte horretan. Euskarako erregistroa oso urrun dago (169).

2.2.3. Beste zenbait alderdi eta faktore garrantzitsu ebaluazio diagnostikoan

Komenigarria litzateke ikerlanaren aldagai nagusiari buruz egindako analisia interes handiko beste zenbait kontzeptutan kokatzea, hala nola, ikastetxeek ikasleen gaitasunen garapenari ekartzen dioten balio erantsia, euskaraz egin diren ikaskuntzen mailaren inguruko kontzeptualizazioa eta beren eragina gainerako kompetentzietako ikaskuntzetan, eta lortutako beste hiru aldagai garrantzitsuei buruzko datuen bilketa (ikaslea etorkina izatea, sexua eta ebaluazio diagnostikoko emaitzen eta ikastetxeetako ebaluazio akademikoaren emaitzen arteko erlazioa).

a) ISEK indizearen eragina emaitzetan eta ikastetxeen balio erantsia


Geruzen arabera egindako analisisian, A publikoaren geruzan izan ezik, eta kompetentzien artean euskaran izan ezik, geruzetako puntuazioen arteko alderik handienak Lehen Hezkuntzako 4. mailan 21 puntutatik (matematikarako kompetentzian) 31 puntutara (zientziarako kompetentzia) doaz.

ISEK indizea kontuan izanik lortutako puntuazioen arteko konparazioa ikastetxe mailan egiten denean, aldeak asko handitzen dira. Ondorengo bi grafikoetan

ikastetxeek matematikarako konpetentzia lortutako puntuazioen barreiadura-diagramak azaltzen dira, ebaluatutako bi irakasmaitakoak.

Lehen Hezkuntzako 4. mailaren kasura itzulirik, goiko puntuen marraren gainetik ikastetxe multzo batzuk³ (berdez margotuak) ikus daitezke. Ikastetxe horiek ebaluazioan gutxienez 40 puntu gehiago lortu dute beren ISEK indize berdina duten beste ikastetxe batzuek baino (laranja –kolorez margotuak).

ED-2009. Matematikako emaitzak eta ISEK indizea: ISEK indize berdinarekin espero zitezkeen emaitzekiko alderik handiena (+ eta -) izan duten ikastetxeak



Alde hori, printzipioz, “balio erantsia” izeneko kontzeptuaren ondorioa da, hots, lehenengo ikastetxeek egin bide duten ekarpen kualitatibo handiagoaren ondorioa. Ekarpene horren barruan askotariko aldagaiak sartzen dira, hala nola, baliabide materialak, ikastetxearen antolamendua, metodologiaren berrikuntza eta irakasleen kalitatea, ikastetxeko giroa eta parte hartzea... eta azken finean hobekuntza nabaria ekarri dute ikasleen gaitasunen eskurapenean, ISEK indizea kontuan izanik estatistikoki espero zitezkeena baino handiagoa.

Ikastetxeek, operazio-unitateak diren aldetik, Berritzeguneen eta Ikuskaritzaren laguntzaz, beren hobekuntza planak sortzen eta garatzen dituzte, eta era berean, hezkuntza sistemaren esparruan, emaitzak hobetzearen aldeko operazio ikerketak ikastetxearen aldagai horiek aztertu egin behar ditu, bai balio erantsi positiboa duten ikastetxeen multzoan baita espero baino emaitza apalagoak lortu dituzten ikastetxeen multzoan ere.

Euskadiren kasuan, ikastetxetik kanpoko aldagai bezala, ISEK indizeaz gain, hizkuntzaren aldagaia ere kontuan hartu behar da. Emaitzen korrelazioetan, ISEI-IVEIk erakutsi du etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek –lehen hizkuntza bezala euskara dutenek– emaitza hobekuntza lortu dituztela ebaluatutako konpetentzia guztietan, gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan izan ezik. Egia da, baita ere, ikasle horiek batez bestekoa baino ISEK indize altuagoa dutela eta etxeko hizkuntzan eskolatuta daudela.

³ Txostenean deskribatzen den bezala, puntu bakoitzak ikastetxe bat adierazten du, baina abzisa ikastetxeko batez besteko ISEK indizea ematen zaio, eta horrela zentzu hertsian ikastetxean irakasteredu bat baino gehiago eskaintzen badu, ez dago egokitasunik; kasu horretan, ikastetxe bateko geruzak adierazten dituzten puntuak bertikal berean daude.

Hortik ondorioztatzen da ISEK indizea eta hizkuntzaren faktorea elkarri lotutako bi adierazle –edo adierazle multzo– direla, eta ikastetxeek ekartzen duten balio erantsia aztertu ahal izateko adierazle horiek testuinguru bakoitzean kuantifikatu behar direla.


b) Euskararen inguruko alderdiak

Euskara ikasteen lortutako mailak eta probako hizkuntza erabakitzekeo irizpideak aztertzen dira.

- *D ereduko ikasleen ehuneko handi bat euskarazko hasierako mailan dago.*

D ereduko ikasleen ehuneko handi bat euskarazko hasierako errendimendu mailan dago; Lehen Hezkuntzako 4. mailan ikasleen ia laurdena (% 22,9) dago euskara maila horretan. Irakasteredu horretan arlo guztiak (gaztelania eta ingelesa izan ezik) euskaraz irakasten dira.

ED-2009. LH 4. Euskarazko hizkuntza-komunikazioa. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera.



Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian errendimendu maila horri dagozkion gaitasunak oso oinarritzkoak dira:


“Maila honetako ikasleek nolabaiteko zailtasunak dituzte testuak euskaraz ulertzeko. Ahozko eta idatzizko testu hurbiletan (elkarrizketak, jakinarazpen laburrak) informazio garrantzitsua (datuak, batez ere) identifikatzeko gai dira. Era berean, ikasleek testu laburretan eta argietan zentzu orokorra eta ideia nagusiak identifikatzen dituzte. Zenbait kasutan, eta irudien laguntzarekin, edukia interpretatzen dute, inferentzia zuzenak egiten dituzte eta ohiko erabilerako testuen generoa (ipuinak) ezagutzen dute.

Bestalde, maila honetako ikasleek testuak osatu gabe idazten dituzte euskaraz, eta batzuetan ez dute eskatutako komunikazio-helburua lortzen. Batzuetan, testuetan oso egituratuta ez dauden eta erroreak dituzten datuak eskaintzen dituzte”.

Gaitasun zerrenda urria da, eta ez dator bat irakasmaila bereko (Lehen Hezkuntzako 4. maila) Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziaren Erdi-mailari dagokion gaitasun zerrenda luzearekin (2.3 eranskina).


DBHko 2. mailan hasierako errendimendu mailan dauden D ereduko ikasleen kopurua % 26,4ra igotzen da. Gauza bera esan liteke B irakasteredurako, irakasteredu horretan aipatutako bi konpetentziak euskaraz ikasten baitira.

ED-2009. DBH 2. Euskarazko hizkuntza-komunikazioa. Ikasleen banaketa errendimendu mailen arabera.



Etxeko hizkuntza bezala euskara duten ikasleen artean ere, kopuru adierazgarri batek (% 17,5) ez du hasierako errendimendu-maila gainditzen. Etxeko hizkuntza bezala gaztelania duten ikasleen artean kopurua handiagoa da (% 41,2).

ED-2009. DBH 2. Euskarazko hizkuntza-komunikazioa. D eredia. Ikasle kopurua errendimendu maila bakoitzean ehunekoetan etxeko hizkuntzaren arabera.



- **Probako hizkuntza ebaluazio diagnostikoan eta beste ebaluazio batzuetan**

Ikasleen probak zein hizkuntzatan egin behar dituzten erabakitzeko irizpide ezberdinak daude. Bai hemen aurkeztzen ari garen ebaluazio diagnostikoan baita Estatuko EGD ebaluazioan ere, erabakia ikastetxeari dagokio, eta gehiengo handi batek euskaraz egin dituzten probak. Ebaluazio diagnostikoko Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziako probarako txostenak irizpideak eta ondorioak jasotzen dituzte irakasmila bakoitzerako:

Lehen Hezkuntzako 4. maila: Ikastetxeek bi aukera zuten Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako konpetentziako proba egiteko: etxeko hizkuntza ala irakas-hizkuntza. A eta D irakastereduetako ikaslerik ia gehienek irakas-hizkuntzan egin dute proba (gaztelaniaz eta euskaraz hurrenez hurren). B irakastereduen kasuan % 60-70ek euskaraz egin dute, ehuneko itunpeko sarean sare publikoan baino handiagoa izan delarik.

DBHko 2. maila: Konpetentzia horretan, A ereduko ikastetxeen artean gehiengo handi batek gaztelania aukeratu zuen, eta D ereduko ikastetxeen artean ia guztiak, euskara. B ereduaren kasuan, ikasleen bi herenek proba euskaraz egitea aukeratu zuen.

Ondorioz, ebaluazio diagnostikoko matematikarako kompetentziako eta zientziarako kompetentziako probak ikasleen gehiengoak, % 55etik % 80ra bitartean, euskaraz egin zituen .

Ebaluazio diagnostiko orokorrean antzerako irizpide bat hautatu zen, eta ikasle gehienek euskaraz egin zituzten gizarterako kompetentziako eta zientziarako kompetentziako probak. Bi ebaluazioetan irakasmilak (Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila) eta aplikazio urteak berberak izanik, bertoko ebaluazio diagnostikoko datuak Estatuko ebaluazio diagnostiko orokorrean –matematikari eta gaztelanian– lortutako emaitzen testuinguruan baloratu beharko dira, lehenengo edizioan Lehen Hezkuntzako 4. mailako emaitzak apaltzat hartu baitira.

Aurreko bi probetan ez bezala, PISA ebaluazioan etxeko hizkuntzaren irizpidea aukeratu zen, eta ikasleen % 81ek gaztelaniaz egin zituen probak. Txostenak honela dio:

“PISA proba euskaraz eta gaztelaniaz egin zen, irizpide hauen arabera:

Gaztelaniaz:

- A eta B ereduak ikasle guztiek
- D ereduko ikasleek, ama edo aita euskalduna ez denean edo etxeko hizkuntza (etxean komunikazio-hizkuntza nagusia) euskara ez denean.

Euskaraz:

- D ereduko ikasleek, bi gurasoek edo tutoreek normalean euskaraz hitz egiten dutenean, eta beraz, etxeko hizkuntza euskara denean”.

c) Emaitzei eragiten dieten beste zenbait faktore

- *Etorkina izatea*

Ikasle etorkinek puntuazio nabarmenki apalak lortu ohi dituzte, gorabehera handiekin urteen eta irakasmilen arabera. Ikasle horien batez besteko ISEK indizea ezezaguna denez, ezin da konparaziorik egin indizea kontuan izanik espero zitezkeen emaitzekiko. Lehen Hezkuntzan Gizarterako kompetentziako eta Gaztelaniako emaitzak neurrikoagoak dira, 230 puntu ingurukoak.

ED-2009 eta ED-2010. Ikasle etorkinen emaitzak

Kompetentzia	Lehen Hezkuntza 4		DBH 2	
	2009	2010	2009	2010
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	205	220	178	201
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	227	233	210	225
Matematika	223	219	215	212
Zientzia, teknologia eta osasun-kult.	227	--	223	--
Gizarterako eta herritartasun. konp.	--	229	--	232

• *Sexua*

Neskek emaitza hobekak lortzen dituzte hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietan eta gizarterako konpetentzian. Matematikarako konpetentzian mutilak hobekak dira, eta zientziarako konpetentzian emaitzak aldatu egiten dira probaren arabera.


Konpetentzia	ED-LH 4				Batez besteko aldea ED-LH 4	Batez besteko aldea ED-DBH 2	Aldea PISA*
	neskak		mutilak				
	2009	2010	2009	2010			
Euskarzako hizk-kom.	255	259	245	249	10	15	19
Gaztelaniazko hizk-kom	253	258	247	253	6	5	
Matematika	249	245	251	251	-4	-4	-4
Zientzia, teknologia..	255	--	245	--	10	4	-3
Gizart. eta herritart.	--	256	--	245	11	19	--

(*) 250 puntuko batez bestekoa duen eskala zuzendurik

• *Ebaluazio diagnostikoko emaitzen eta kalifikazio akademikoaren arteko erlazioa*

Ikastetxeetan ematen dituzten kalifikazioak (gutxi, nahiko, ongi...) eta ebaluazio diagnostikoetako emaitzak batera aztertzen baditugu, kalifikazio multzo bakoitzaren barruan ebaluazio diagnostikoko puntuazio banda zabal bat dagoela ikus daiteke.

ED-2009. DBH 2. Matematikarako konpetentziako emaitzak ikasgelako kalifikazioen arabera.




Grafikoan kalifikazio bat aukeratu ondoren ("Ongi", esate baterako), ikastetxean aurreko ikasturtean kalifikazio hori lortu zuten ikasleen kopurua kalkulatu da, eta kopuru hori tamaina berdineko lau multzotan (kuartilak) zatitzen da, ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioen arabera ordenaturik. Ongi kalifikazioaren barruan, beheko kuartileko batez besteko puntuazioa 212 dela ikus daiteke, eta goiko kuartileko batez bestekoa, 262. Beraz, muturretako kuartiletako batez besteko puntuazioen arteko aldea 50 puntukoa da. Horrek emaitzen barreialdura

handia adierazten du eta, baita ere, adostasun urria ikastetxeek duten ebaluatzeke moduen eta konpetentzien ebaluazio estandarizatu bateko emaitzen artean.

Hala ere, puntuazio alde horien banaketa orokorra aztertu beharrean, geruzen arabera sailkatzen badira, ondorio hau atera daiteke: A publikoaren geruzan izan ezik, geruza bakoitzak kalifikazioetako bakoitzean (gutxiegi, nahiko...) lortu dituen batez besteko puntuazioak konparatzen baditugu, puntuazio aldeak 10 puntuokoak baino txikiagoak dira. B publikoaren geruzan aldea apur bat handiagoa da, baina geruza hori ere minoritarioa da..

ED-2009. DBH 2. Matematikako ikasgelako kalifikazioen eta ebaluazio diagnostikoko puntuazioen arteko erlazioa geruzen arabera



Laburbilduz, bada korrelazio positiboa geruza guztietan ikasgelako kalifikazioen eta ebaluazio diagnostikoko lortutako puntuazioen artean. Oro har, kalifikazio apalak dituzten ikasleek ebaluazio diagnostikoko emaitza apalak lortzen dituzte, eta berdin gertatzen da goiko muturrean. Hala eta guztiz ere, aurreko grafikoan ikus daitezkeen bezala, ebaluazio diagnostikoko puntuazio bati kasu batzuetan ikasgelako kalifikazio oso ezberdinak dagozkio, eta horrek esan nahi du ikastalde batean edo beste batean eskolatuta egoteak ikasgelako kalifikazioak baldintzatzen dituela. Ebaluazio diagnostikoko emaitzen eta ikasgelako kalifikazioen arteko adostasun falta hori ezin zaio leporatu ikastetxe multzo bati edo beste bati, sistema osoan zehar –ikastetxeetan eta ikastaldeetan– nahiko modu orekatuan banatzen delako, eta horrek homogeneotasun urria islatzen du erabilitako ebaluazio irizpideetan.

Ezberdintasun horiek beren testuinguruan ulertu behar dira, hurrengo ziklora edo etapara aurrera joateak, edo graduatu titulua lortzeak, ez du bakarrik esan nahi gaitasun maila jakin batzuetara heldu dela, beste ekitate-funtzio batzuk betetzen dituelako, hala nola ikastalde berean jarraitzea edo derrigorrezko etaparen osteko ikasketak egiteko aukera ematea. Funtzioak berez gure hezkuntza sistemaren helburuak dira –eta erreferentzia egokiak–, lehen dokumentatu den bezala nazioarte mailan adierazle batzuen bidez ebaluatzen direnak.

2.2.3. Ikastexetako hobekuntza prozesuak

Behin ikastetxeak ebaluazioko emaitzen txostena jaso eta koordinazio taldea eratu ondoren, emaitzen analisisan oinarritutako Ikastetxeko txostena idazti behar du eta ondoren hobekuntzarako esku-hartze plana ere Berritzegunearen laguntzaz. Txostenak Ikuskaritzara bidali behar dira bertan beren balorazioa eta jarraipena egiteko.

Ikastetxeko txostena Klaustroan eta OOGn aurkeztu behar da. Hiru atal ditu:

1. Emaitzen analisisa
 - Espero zitezkeen emaitzak eta lortutakoak; alderdirik deigarrienak
 - ISEK indizearen eta geruzaren arabera baloratzea
 - Ebaluatutako konpetentzia bakoitzaren balorazioa
2. Egoeraren diagnostikoa
 - Indarguneak eta ahulguneak
 - Agian gauzatu behar den esku-hartzearen zergatien analisisa eta alderdien identifikazioa
3. Ekintza posibleen hasierako aurreikuspena eta hobekuntzarako proposamenak
 - Hautaketa
 - Lehentasunak finkatzea

Hobekuntzarako esku-hartze plana ikastetxeko txostenetik ondorioztatzen da eta ikastetxearen urteko planean sartzen da. Bi atal ditu:

1. Esku-hartzerako eta hobekuntzarako proposamenak aukeratu eta lehentasunak finkatu: lehentasuna duten ekintzak deskribatzen dira, zein oinarritzko konpetentziari loturik dauden adierazirik. Ikastetxeko bizitzaren zein esparruri (curriculum, metodologia, antolamendua, irakasleen parte hartzea eta prestakuntza) eragingo dioten ere azaldu behar da.
2. Hobekuntza neurrien planifikazioa: jarduerak, helburuak, arduradunak, denbora, baliabideak eta ebaluazio irizpideak)

Orain arte egindako hobekuntza planei buruzko informazioaren hasierako bilketan honako hau azpimarra daiteke:

- Gairik aipatuena hizkuntzei dagozkienak dira: trataera integratua, ulermena eta adierazpena, irakurketa eta idazketa prozesuak.
- Alderdi metodologikoen askotariko sistemei ekiten diete (ikaste kooperatiboa, proiektuak...), aniztasunaren trataerari eta ikasleak multzokatzeari, eta baita matematika ikasteko metodologiari ere.

- Konpetentzietan oinarritutako curriculum berriari egokitzeko eta erabiltzeko jarrera ona antzematen da, eta alderdi negatibo gisa informazioaren eta komunikazioaren teknologiaren aipamen gutxi egiten direla azpimarratu beharko litzateke.

2.3. Ebaluazio erakundeak euskal hezkuntza sisteman

Atal honetan zehar hainbat aldiz aipatu denez, ISEI-IVEIk hein batean rol nagusia jokatu du orain arte deskribatutako hiru ebaluazio ereduetan, izendaturik dituen ikerketa eta ebaluazio betebeharren artean. Beste alde batetik, Hezkuntzako Ikuskaritzak ebaluazio betebeharrak berezituak ditu, eta ikastetxeetako zuzendaritzak taldeek, LOEren testuinguru berrian, berariazko ebaluazio-eskumenak dituzte.

2.3.1 Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)

14/2001 Dekretuak (EHAA, 2001/02/01) unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) sorkuntza arautzen duena.

3. artikulua.– Hona hemen unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) xedea: unibertsitateaz kanpoko hezkuntza sistemaren ebaluazio orokorra egitea, hezkuntza ikerketa sustatzea unibertsitateaz kanpoko arloan eta dokumentazio eta baliabide zerbitzua izatea hezkuntza esparruarekin lotuta.

4. artikulua ISEI-IVEIren betebeharrak hiru arlotan arautzen ditu: ebaluazioa, ikerketa eta dokumentazioa. Horien artean honako hauek azpimarra litezke:

1.– Ebaluazioaren eremuan:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema dela eta, egiteko eskatzen zaion ebaluazio-proiektuak diseinatu eta garatzea.
- e) Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikoarekin batera, erakundeak zein ikuskaritzak egiten dituzten ebaluazio prozesuak diseinatzea.
- f) Txostenak egitea, egindako ebaluazioa eta hortik ondorioztatutako hobekuntza-proposamenak jasoko dituztenak, Zuzendaritza-kontseiluan aurkezteko.

2.– Ikerketaren eremuan

- a) Ikerketa eta azterlanak egiteko bideak sustatzea eta oro har Hezkuntza Administrazioari proposatzea hezkuntzaren kalitatea eta hobekuntza bermatzen lagundu dezaketen ekimen eta iradokizunak.
- b) Gizarteak hezkuntza dela eta egiten dituen eskariak eta ikasleen hezkuntza beharrianak aztertzea eta proposamen berritzaileak edo bideratzaileak aurkezteko hezkuntza partaidetzarenak.

3. atalaren barruan egitura organikoa arautzen da:

- 6. artikuluan gobernu-organoak aipatzen dira: Zuzendaritza Kontseilua, Batzorde Zientifikoa, Zuzendaria eta Zuzendaritza taldea.
- 7. artikuluan Zuzendaritza Kontseiluaren osaera arautzen da: 9 kidek osatuko dute eta Hezkuntza sailburuordea buru izango da. 8. artikuluan Zuzendaritza Kontseiluaren betebeharrak zerrendatzen dira, haien arten honako hauek aipa litezkeelarik:
 - a) Erakundearen jardun-eremu bakoitzeko helburuak finkatzea eta gauzatu behar diren proiektuak onestea.
 - b) Txostenak jasotzea eta erakundeak egindako lanei buruzko ondorioak onestea.

9. eta 10. artikuluetan Euskadiko unibertsitateetako 6 kidek osatzen duten Batzorde Zientifikoaren betebeharrak hauek aipatzen dira:

- a) Zuzendaritza Kontseiluari eta Zuzendaritza Taldeari aholkuak ematea, erakundeak ebaluazioaren edo esperimentazioaren arloan egingo dituen proiektuei buruz, bai eta proposatzea ere ikerketarako bideak edo ebaluazio arlo berriak.
- b) Erakundeak egin dituen proiektuen ondorio gisa gauzatzeko dituen emaitzak eta proposamenak aztertzea.

Arestian ikusi den bezala, erakunde mailako planifikazioa Zuzendaritza Kontseiluari dagokio, baina urteko planaren inguruan artikulatzen diren askotariko betebeharrak antzeman daitezke erakundearen gobernu-organoen arteko erlazioa:

- Zuzendariaren betebeharra da urteko planaren proposamena egin eta betetzen dela sustatzea (11,d artikulua)
- Zuzendaritza Taldearen betebeharra da urteko plana Zuzendaritza Kontseiluak ezarritako helburuak jarraituz eta berak onartuko dituen proiektuak proposatuz onartzea. (14,b, c artikulua)

15. artikulua erakundeko plantila ezartzen du: teknikariak, arloko koordinatzaileak (Zuzendaritza Taldeko kideak) eta zuzendaria, 22 pertsona guztira.

Organo bakoitzaren funtzioen analisisan oinarriturik, nolabaiteko paralelismoa ezar daitezke ikastetxeen egitura organikoarekin: bi kasuetan Zuzendaritza Taldeak funtzio betearazleak ditu bere eskumenen barruan, eta Zuzendaritza Kontseiluari dagokio (Eskola Kontseiluari, ikastetxeen kasuan) erabakirik garrantzitsuenak hartzea.

14/2001 Dekretuaren garapen gisa, 2001eko martxoaren 27ko Aginduak arestian azaldutako erlazio-markoa zehatzen du, eta lankidetzaren sistema bat ezartzen du Hezkuntza administrazioko beste zenbait organorekiko, hala nola Ikuskaritza eta Berritzeguneak.

Gobernu-organoen funtzionamenduari dagokionez, Zuzendaritza Kontseilua duela gutxi eratu da, 2010. urtean.

Batzorde Zientifikoari dagokionez, ISEI-IVEI sortu eta handik gutxira izendatu zen (EHAA, 2002/07/02), baina ez zen inoiz abiarazi. Oraintsu eta Zuzendaritza

Kontseilua abian jartzeaz batera, Batzorde Zientifikoko 6 kideen izendapena izan da (EHAA, 2010/06/18).

2.3.2. Beste ebaluazio erakunde batzuk

a) Hezkuntzako Ikuskaritza

LOEk 151. artikuluan Hezkuntzako Ikuskaritzak ebaluazioaren esparruan dituen hiru betebeharrak finkatzen ditu:

- a) Ikastetxeen funtzionamendua eta dagozkien programak pedagogiaren eta antolamenduaren ikuspuntutik ikuskatzea eta kontrolatzea.
- b) Irakaslana eta zuzendaritza lana ikuskatzea eta beren etengabeko hobekuntzan laguntzea.
- c) Hezkuntza sistemaren eta osatzen duten elementuen ebaluazioan parte hartzea.

Betebeharrak horiek Hezkuntzako Ikuskaritzaren 2009-10 ikasturteko urteko planean biltzen dira ebaluazioari buruzko hiru helburutan:

- Zuzendaritza lana eta irakaslanaren ebaluatzea
- Ikastetxeak ikuskatzea: ikastetxeetan indarrean dagoen legeria betearaztea, Hezkuntza Sailaren programak eta proiektuak garatzea
- Ebaluazio diagnostikoak gauzatzen laguntzea, ikastetxeetako hobekuntza planak ikuskatuz eta urteko probak kontrolatuz.

b) Ikastetxeetako zuzendaritza

3/2008 Lege autonomikoak, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen bigarren aldaketa egin zuenak, LOEren ildotik zuzendaritza karguetara sartzeko prozedura berria xedatu zuen eta zenbait aldaketa ere sartu zituen, zuzendariaren kargurako hain zuzen ere.

Hartara, 3/2008 Legearen 10. artikuluan LOEk bere 132. artikuluan oro har xedatzen dituen zenbait betebeharrak berri xedatzen ditu. Zuzendaritza pedagogikoaren betebeharrak loturik:

- c) "Zuzendaritza pedagogikoan jardutea, hezkuntza-berrikuntza sustatzea eta ikastetxeetako hezkuntza-proiektuaren helburuak betetzeko planak bultzatzea",

zuzendaritzari ematen dio ikastetxeetako ebaluazioaren ardura, barnekoa zein kanpokoak:

- h) "Ikastetxe barruko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea".

Kontseiluak lege horri buruz egin zuen irizpenean (07/16) gabezia bat aipatu zen:

"Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritzian, zuzendariaren eskumen gehikuntza

eraginkorra izan dadin, aldi berean eginkizun horiek ikastetxeko gainerako gobernu organoetan ere garatu behar dira”.

“Kontseilu honen iritzian, nekez bultza dezake zuzendariak ebaluazioa baldin eta, aldi berean, Ordezkaritza Organo Gorenari eskumenak ematen ez bazaizkio finkatutako plangintzaren egikaritzea ebaluatzeko (urteko programazioa, kudeaketa proiektua...), eta ikastetxearen funtzionamendu orokorra, ikasketa errendimenduaren bilakaera, eta barne zein kanpo ebaluazioen emaitzak aztertu eta baloratzeko, beste eskumen batzuen artean, edota Klaustroaren eskumenekin gauza bera egiten ez bada”.

Izan ere, LOEk barneko ebaluazioaren prozesuetan ezinbestean esku hartu behar duten ikastetxeko beste organo batzuei paraleloki eskumenak gehitzen dizkie. Eskumen gehikuntza hori autonomia erkidegoaren araudian ez da espresuki jaso. Hain zuzen ere, Eskola Kontseiluari (127,j artikulua) eta Klaustroari (129,g artikulua) betebeharrak emate die:

Ikastetxearen funtzionamendu orokorra, ikasleen errendimenduaren bilakaera, eta ikastetxeak parte hartzen dueneko barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak aztertea eta baloratzea.

Oro har, legearen xedapenak ez dira egokienak ikastetxeetako zuzendaritzak ikastetxeko barne ebaluaziorik dagozkion betebeharrak gauzatzeko, gainontzeko organorenak (Eskola Kontseilua eta Klaustroa) osatu gabe baitaude.

Berriro Estatuko esparruari gagozkiorik, zenbait autonomia erkidegok aurrerapauso garrantzitsuak eman dituzte ikastetxeen eskumenen arloan. Hain zuzen ere, *Kataluniak* ikastetxeetako zuzendaritzaren eskumenak oraintsu garatu ditu Generalitatearen 155/2010 Dekretuan (6. artikulua), bai ikastetxearen ebaluazioaren arloan, baita irakasleen ebaluazioaren arlo berritzailean ere:

f) Ikastetxearen hezkuntza proiektuaren eta funtzionamendu orokorraren ebaluazioa, aurrerabidearen adierazleak kontuan izanik, bultzatzea. Ebaluazioak zuzendaritzaren proiektuaren gauzapena barne hartzen du, eta, hala dagokionean, baita erantzunkidetasun akordioak ere.

g) Irakasleek eta ikastetxean lan egiten duen pertsonal ez-irakasleak beren eginkizunak noraino betetzen dituzten ebaluatzea. Eginkizun horrek honako eskumen hauek ematen dizkio zuzendaritzari: irakaslan ikasgelan behatzeko eskumena, ikastetxeak hezkuntza-koordinaziorako dituen talde-organoen lana behatzeko eskumena eta ebaluatzen diren irakasleei beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio pedagogikoa eta akademikoa eskatzeko eskumena, behar diren balorazioak egin ahal izateko.

2.4. Ondorioak eta proposamenak

Euskadiko Eskola Kontseiluak azken urteotan ikasleen ebaluazioaren arloan egindako ahalegina aitortu nahi die, bereziki ebaluazio diagnostikoa dela eta, Saileko hurrenez hurrengo arduradunei, parte hartzerik handiena izan duten Administrazioaren organoei –ISEI-IVEI, Berritzeguneak, Ikuskaritza...– eta hobekuntza prozesuetan diharduten ikastetxeei.

Ikastetxeak dira, hain zuzen ere eta hein handi batean, ebaluazio diagnostikoaren subjektuak, hobetu beharreko arloei buruzko erabakiak haiek hartzen dituztelako, eta bakoitzaren ezaugarriei egokitutako prozedurak garatzen dituztelako, ebaluazioko emaitzetan oinarriturik eta Sailaren berrikuntza eta aholkularitza-zerbitzuen laguntzaz.

Euskal hezkuntza sistemaren kanpoko ebaluazioari dagokionez, Euskadi beste herrialde batzuekin, bereziki herrialderik garatuenekin, eta Estatuko gainerako autonomia erkidegoekin konparatu denean, emaitzak kontrajarriak izan dira egindako bi ebaluazioetan: PISA-2009, 15 urteko ikasleen ebaluazioa (aurreko bi edizioetan, 2003an eta 2006an, ere parte hartu zen) eta Estatuaren esparruko ebaluazio diagnostiko orokorra (EGD), lehengoz 2009an Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan egin zena.

PISA-2009 ebaluazioko emaitzak nahiko positibotzat har daitezke, aurreko ebaluazioarekiko hobekuntza bat izan delako ebaluatutako hiru konpetentzietako bitan, eta oso puntuazio altua lortu delako matematikarako konpetentzian. Emaitzarik apalenak Zientziarako konpetentzian izan dira.

Aitzitik, eta espero ez zen bezala, EGD-2009 ebaluazioko emaitzak ez dira izan Euskadiko ikasleen ISEK indizea kontuan izanik espero zitezkeen bezain onak, Euskadiko ISEK indizea Espainiako batez besteko indizea baino altuagoa izan arren. Matematikarako konpetentzian eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ozta-ozta lortu da Estatuko batez besteko puntuazioa. Mundu fisikoaren ezagutza eta harekin elkarreragiteko konpetentzian eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian ondorioak hurrengo ebaluaziorako utzi egin behar izan dira, arazo tekniko bat izan delako. Bere aldetik, DBHko 2. mailako Ebaluazio Diagnostiko Orokorraren emaitzak PISAn lortutakoen antzeko xamarrek suertatu dira.

Bi ebaluazioetan izandako emaitza positiboa gure hezkuntza sistemaren ekitate handia izan da, hau da, ikasleen arteko jatorrizko ezberdintasunak ikaste-prozesuan zehar minimizatzeke duen ahalmena, bukaerako ikaste-emaitzetan ikus daitekeen bezala.

Gure hezkuntza sistema elebidunean ikasleen % 70ek, sistemara sartzen denean, ez du bi hizkuntzetako bat ezagutzen, eta horren eragina argi antzematen da kanpoko ebaluazioko emaitzak batera aztertzen direnean. Alde batetik, hizkuntzen arloko irakastordu kopuruaren gehikuntzak denbora kentzen die gainerako arloei. Bestetik, ikaslearen euskarazko gaitasun mailak bere eragina du euskaraz ikasten dituen arloetako ikaskuntzan.

Gure erkidegoaren esparruko barne ebaluazioak edo *ebaluazio diagnostikoak* ikasleen arteko eta EAEko ikastetxeen arteko aldeei buruzko informazioa eskaintzen du.

Aldagai nagusiaren —geruzak, PISAn ere aztertu zirenak— analisiaren sintesian egiaztatzen da A publikoaren geruza minoritarioan (% 3) oso emaitza apalak lortu direla. B publikoaren geruza ere minoritario da (% 5-7) eta aurrekoarekin ezaugarri batzuk partekatzen ditu, baina emaitzak bere ISEK indizeari egokituagoak dira. B publikoaren geruzako ISEK indizea A publikoaren geruzakoa baino apur bat altuagoa da, baina nabarmenki negatiboa, Euskadiko batez bestekoa baino apalagoa. Gainontzeko geruzei dagokienez, horrelako emaitzak A pribatuaren geruzan bakarrik izan dira, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.

Sare pribatuko hiru geruzetako bakoitzeko emaitzak ISEK indizea –positiboa hiruretan– kontuan izanik espero zitezkeenak baino altuagoak izan dira oinarritzko konpetentzia batean edo bitan. D publikoaren geruza maioritarioa (% 36-40) espero zitezkeen mailan dago, salbuespenak Gizarterako konpetentzia (espero baino emaitza apalagoak) eta Euskara (espero baino emaitza hobek) izan direlarik.

Azpitarratu beharreko beste emaitza bat, negatiboa bada ere, B eta D irakastereduetako ikasleen ehuneko handi batek euskaraz hizkuntza gaitasun urria izatea da, ikasle horiek curriculum-arlo batzuk edo ia guztiak euskaraz ikasten dituztela kontuan hartzen badugu. Oro har, bai Lehen Hezkuntzako 4. mailan baita DBHko 2. mailan ere, gutxienez Gizarte Zientziak eta Natur Zientziak euskaraz ikasten dituzten ikasle guztien % 25 Hasierako Mailan dago euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren ebaluazioan. Ikasle horien kasuan bereziki, hizkuntza gaitasun urriak mugatu egiten die euskaraz irakasten zaizkien arloetako ikaskuntza.

Ondorio horien argitan, irakasteredu elebidunei buruzko gogoeta baten beharra azpitarratu behar da, Kontseiluak aurretiaz eskatu duen bezala. Gogoeta esperimentazio-bidean dago, txosten honen 3. ataleko aztergai izango den Hezkuntza Marko Hirueledunaren barruan. Beraz, lege-aldaketak ekarriko dituen egoeren azterketa eta horren inguruko proposamenak bertan egingo dira.

(P8) Edozein modutan ere, Kontseiluak hizkuntzak ikasketetarako eskakizun edo euskarri bezala duen betebeharrari buruzko ikerketa aplikatua bultzatzea dezan eskatzen dio Sailari, eta baita hizkuntzen arteko ikasketen transferentziari dagokiona ere.

ISEI-IVEIk orain arte izandako betebeharrari dagokiolarik, Kontseiluak ezinbestean balioetsi behar du erakunde horrek egin duen lan garrantzitsua, argitalpen kopuru handiak islatzen duen bezala. Kontseiluak gogo onez hartu du gobernu organoak abian jarri izana, bereziki Zuzendaritza Kontseilua, gure erakundeko lehendakaria bertako kidea baita. Egoera horretan, Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritzian, interesgarria izan liteke ondorengo gogoetetako batzuk ISEI-IVEIren plan estrategikoaren barruan sartzea.

Ebaluazio proben diseinuari dagokionez, ISEI-IVEI arautzen duen 14/2001 Dekretuak xedatzen du egindako ebaluazioari buruzko txostenetan, emaitzen analisiaz gain, beharrezkotzat jotzen diren hobekuntza neurriak ere jaso behar direla, ISEI-IVEIk, ikerketaren arloan, hezkuntza esku-hartzerako proposamen berritzaileak edo orientagarriak planteatu behar dituen bezalaxe.

(P9) Hori dela eta, Kontseiluak eskatzen du ebaluazio diagnostikoari buruzko txosten orokorretan hezkuntza administrazioak bideratu edo gauzatu ahal dituen proposamenak jaso daitezen.

Kontseiluaren iritzian, proposamenak planteatzera bideratutako txosten bat diseinatzeak eragina izango luke analisisian aztertu beharreko faktoreak hautatzerakoan.

Ondorioz, Kontseiluak ebaluazio diagnostikoko emaitzen analisirako aldagai berriak finkatzea proposatzen du, Sailerako eraginkorrak zenbait helburu planifikatzeko, hala nola errendimendu Hasierako Mailan dauden ikasleen kopurua % 5 jaistea.

Era berean, ebaluazio prozesuak eskaintako informazioaren erabilgarritasunari begira, Kontseiluak ikastetxeek ekartzen duten balio erantsia ikertzeko eredu bat garatzea proposatzen du.

Ikerketa eredu horrek, lortutako emaitzekiko balio erantsiaren muturretan – positiboan zein negatiboan– dauden ikastetxeak identifikatzea eskatzen du, ondoren faktoreen analisia egin ahal izateko: baliabide materialak, ikastetxearen antolamendua, berrikuntza metodologikoa eta irakasleen kalitatea, ikastetxeko giroa eta partaidetza... Aldagai horiek testuinguru experimental batean aztertzea laguntza handikoa izan daiteke geroago ikerketa gure hezkuntza sistemako ikastetxe guztietara hedatzeko.

Bi kasuetan ikastetxeen izengabetasuna eta emaitzen isilpekotasuna bermaturik geratuko dira. Indarrean dauden arauak mugatu egiten dute ikastetxeen arteko sailkapenak egitea, baina ez diote eragiten, ordea, ikasleei balio erantsirik handiena ekartzen dieten ikastetxeak zeintzuk diren jakiteko interesari, ezta ere arrakasta horretara eraman dituzten faktoreak identifikatzeko behar operatiboari, beste ikastetxe batzuk beren irakaste-prozesuak hobetzera bultzatzeko.

(P10) Oro har, Kontseiluak honako hau eskatzen dio ISEI-IVEIri: ikerketa-arlo horiek bere planifikazio estrategikoan sartzea Zuzendaritza Batzordearen bidez baloratu dezan, eta ebaluazioaren esparruak edo gaiak zabaldu ditzan, ikasleen kompetentzietatik –gaur egun ebaluazioaren parterik handiena hartzen dute– “hezkuntza sistemaren ebaluaziora”, bere alderdi guztietan, erakundea arautzen duen legeak xedatzen duen bezala, Administrazioaren beste organo batzuei edo ikastetxeei esleitutako ebaluazio-betebeharretatik eratorritako mugekin bakarrik.

(P11) Berritzeguneez eta Ikuskaritzak ere parte hartzen dute ebaluazio diagnostikoan, aholkularitza lanetan eta balorazio eta jarraipen lanetan

hurrenez hurren, eta Kontseiluaren iritzian komenigarria litzateke zerbitzu horiek prozesuan zehar biltzen eta prestatzen duten informazioan oinarriturik, laburpen txostenak egitea.

Ikastetxeei dagokienez, bada uste hedatua hobekuntza planek irakasleei ikaste-emaitzak eta ikaste-prozesuaren baldintzak batera aztertzeo aukera paregabea eskaintzen dietela, eta eztabaidaren arreta metodologian eta ikastetxearen antolamenduan jartzen delarik. Kontseilua ados dago uste horrekin, eta, beraz, Administrazioari eskatu nahi dio gogoeta hori eta behar diren aldaketak egiteko baliabideak bermatu ditzan. Gaia hurrengo atalean aztertzen da, berrikuntzari dagokion atalean.

Hezkuntzako Ikuskaritzari dagokionez, hobekuntza planak egiten izandako lehen esperientziaren ostean, klaustroek oso jarrera ona eta irakaslana oinarritzko kompetentzien ikuspuntu berritik ekiteko konpromisoa erakutsi dutela esan behar da. Hezkuntzako Ikuskaritzak, behin plan horien balorazioa eta jarraipena egin ondoren, kontuan hartu beharreko zenbait alderdi iradokitzen ditu:

- Hobekuntzarako jarduera potentzialen artean, lehentasunak finkatzea eta kopurua mugatzea, plan horietako hainbat ekintza ikasturte bat baino luzeagoak baitira.
- Ikastaldeetako emaitzez gain, ikasle bakoitzaren emaitzak ere kontuan izatea, eta horietan oinarriturik, indartze-neurriak hartzea.
- Ikastetxearen ahalmenetan oinarriturik, aurrerabide-esparruak identifikatzea, kanpoko faktoreetatik bereizturik.
- Bi arlo hauek kontuan izatea beti: ikaste/irakaste-prozesuaren metodologia eta ikastetxearen antolamendua, baliabideen kudeaketa barne.
- Hobekuntza planaren gauzapena bermatzea, atal guztiak osatuz.

Irakasleen ebaluazioaren betebeharra Ikuskaritzari dagozkion betebeharren arteko bat da, eta ebaluazio horretan laguntzea ikastetxeetako zuzendaritza taldeen betebeharrei erantsi berri zaie.

Gaur egun, Ikuskaritzak irakasleen ebaluazioa une jakinetan gauzatzen du, Administrazioarekiko lan-harremana finkatu baino lehen, hots, praktika-aldiko funtzionarioak direnean. Gainerakoan, Ikuskaritzak arazoak sortzen direnean eta prebentzio neurriak edo neurri zuzentzaileak hartu behar dituztenean bakarrik esku hartzen du.

Kalitatezko kudeaketa-sistemak sustatzen dituzten ikastetxeetan, noizean behin, irakasleak ebaluatzeo jarduerak gauzatzen dituzte ikasleek.

(P12) Zuzendariaren postuari dagokionez, Kontseiluaren iritziz oso garrantzitsua da 3/2008 Legeak zuzendariei ematen dizkien ebaluazio-eginkizunak arautzea:

“Ikastetxeko barneko ebaluazioak bultzatzea eta kanpoko ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan parte hartzea”.

Ikastetxeetako zuzendaritzaren gidaritza pedagogikoa, irakasleen ebaluazioa barne, bultzatzeari begira, laguntza handikoa izan daiteke zuzendaritzaren beraren ebaluazioa, lege berriak eskatzen duen bezala.

Zuzendariaren ebaluazioak zuzendaritza-proiektuan finkatutako helburuak noraino bete diren egiaztatzen du, eta horretarako gobernu, koordinazio eta partaidetza-organoen funtzionamendua berrikusi behar da, eta, baita ere, dagozkien lan-prozedurak. Laburbilduz, ikastetxeko jarduera guztiak ebaluatzen dira hein batean ala bestean. Ekimen hori gogo onez hartzen bada eta arrakasta baldin badu, beharrezkoa den irakasleen ebaluazio hezigarriari aurre egiteko aukera egokia izan daiteke.

Laburbilduz, Kontseiluak uste du irakasleen ebaluazioa oso eragingarri garrantzitsua izango dela irakasleen eta ikastetxeen jarduera egokiak indartzeko eta sistemaren eraginkortasuna handitzeko.

3. atala: IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA ETA IKASTETXEETAKO BERRIKUNTZA

Sarrera

Ikastetxeetako berrikuntza aurreko urteetako berrikuntzaren ardatz komun batzuen inguruan antolatuta dago, eta hartara hasierako azpiatal batean ikastetxeetako prestakuntza eta berrikuntza proiektuetarako deialdi nagusien balantzea jasotzen da, Berritzeguneen prestakuntza jarduerekin eta Garatu planaren ikastaroekin batera. Kontseiluaren aurreko txostenak, 2006-2008 urte tarteari zegokionak, programa guztien deskribapen zehatza egiten zuen, baina oraingo txosten honetan alderdirik aipagarrienak aipatzen dira.

Ondoren, bi urteko aldi honetako plan edo programa ezaugarriak aztertzen dira, diseinuaren eta aurkezpenaren aldetik kasu batzuetan, eta ezartzeko eman diren hasierako urratsen aldetik edo abiarazteko aukeren aldetik beste zenbait kasutan.

Atalaren bigarren partean irakasleen hasierako prestakuntzan jartzen da arreta. Gaurko egunean irakasleen prestakuntza gai estrategiko bihurtzen duten bi faktore garrantzitsu elkartzeko dira: laster gauzatu beharko den irakaslegoaren parte handi baten berriztapena eta hezkuntzako profesionalentzako unibertsitate ikasketen egitura aldaketa. Irakasleen plantiletan etorkizunean izango diren beharren analisia 4. atalean egingo da, Txostena ixten duen baliabideei buruzko atalean.

3.1. Irakasleen etengabeko prestakuntza eta ikastetxeetako berrikuntza

3.1.1. Prestakuntza eta berrikuntza jarduera nagusiak

Irakaslanaren berrikuntzaren joeraren barruan, prestakuntza aurretiazko urrats bezala hartzen da. Zenbait kasutan ikastetxean bertan edo Sailak eskaintzen dituen Garatu ikastaroen bidez gauzatzen da prestakuntza, eta beste kasu batzuetan kanpoko erakunde batzuek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartzeko dirulaguntzetarako deialdien bidez.

3.1.1.1. Ikastetxeen prestakuntza eta berrikuntza proiektuak

Ikastetxeak talde proiektuen bidez aldaketak sendotzeko gauzatzen duen prozesua da berrikuntza. Prozesuan, bai metodologia edo ikaste-sistema zehatz eta kontrastatu baten bidez, ikastetxe osoak parte hartzen duenean, *berrikuntza proiektu globala* dela esan ohi da.

2008-09 eta 2009-10 ikasturteetarako deialdiak aginduen bidez (EHAA, 2008/08/02 eta EHAA, 2009/08/24) eta dagozkien xedapenen bidez arautzen dira:

Prestakuntza jarduera hiru mota nagusiei begiratzen badiegu, berrikuntza proiektuen kopurua murriztu egin dela ikus dezakegu, prestakuntza proiektuen kopurua igo delarik. Oro har, bi urteko aldian, itxurazko jaitsiera txiki bat antzematen da, gehienbat proiektu jakin bat beste sail batera transferitzearen ondorioz, geroago ikusiko dugunez.

a) Proiektuen bilakaera 2007-08tik 2009-10era bitartean prestakuntza motaren arabera

	2007-08	2008-09	2009-10
Berrikuntza proiektu globalak	51	42	30
Berrikuntza ekintzak edo proiektuak	1.320	1.041	1.050
Prestakuntza proiektuak	645	795	782
Trukeak	78	--	--
Eleaniztasuna	--	31	--
Kalitate proiektu pilotuak	55	61	--
Guztira	2.149	1.970	1.862

Hezkuntza-sareetako banaketari dagokionez, berrikuntza eta prestakuntza proiektuen kopurua ikastetxe publikoetan handiagoa dela ikus daiteke; parte hartzearen jaitsierarik handiena itunpeko ikastetxeetan gertatu da hain zuzen ere, eta hurrengoak Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan.

b) Proiektuen bilakaera 2007-08tik 2009-10era bitartean ikastetxe motaren arabera (hezkuntza-sarea eta etapa)

	2007-08	2008-09	2009-10
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publ.	918	894	851
Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak	571	542	483
Itunpeko ikastetxeak	660	534	528
Guztira	2.149	1.970	1.862

Proiektuak lehentasunezko lerroen arabera sailkatzen dira, eta lehentasun lerro horiek hiru ekintza-ardatzen inguruan antolatzen dira 2007-2010 aldirako.

c) Proiektuen bilakaera ekintza-ardatzen arabera 2007-08tik 2009-10era bitartean

	2007-08	2008-09	2009-10
1. ardatza: Guztiontzako eskola	148	115	88
2. ardatza: Eskola hobeagoa	561	554	465
3. ardatza: Eskola XXI. mendeko gizartean	1.306	1.165	1.206
Guztira	2.149	1.970	1.862

Ardatzak lehentasunezko lerroetan nola banatzen diren aztertu ondoren, horietako lau nagusi direla argi eta garbi ikusten da: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT), 2009-10 ikasturtean 562 proiektu eta igoera nabarmena izan baitu; curriculum berria eta oinarrizko konpetentziak (337 proiektu, duela bi urteko kopurua baino hiru aldiz handiagoa); bizikidetzak eta hezkuntza komunitatea (305), eta hizkuntzak (233).

d) Proiektuen bilakaera lehentasunezko lerroen arabera 2007-08tik 2009-10era bitartean

<i>kodea</i>	<i>Lehentasunezko lerroa</i>	<i>2007-08</i>	<i>2008-09</i>	<i>2009-10</i>
1.1.	Hezkuntza premia bereziak	41	35	16
1.2	Gizarte eta kultura aniztasuna	74	59	56
1.3	Berdintasuna eta generoa	33	21	16
2.1	Lidergo eta kudeaketa prozesuak	78	80	68
2.2	Bizikidetza eta hezkuntza komunitatea	348	369	305
2.3	Ikasketaren kalitatea. Arrakasta guztiontzat	135	105	92
3.1	Curriculum berria eta oinarrizko kompetenziak	118	301	337
3.2	Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)	301	507	562
3.3	Euskal eta europar dimentsioa	84	3	0
3.4	Hizkuntzak	322	296	233
3.5	Zientzia hezkuntza	37	54	74
3.6	Garapen jasangarria	444	4	0
4	Sailkatu gabea	134	136	103
	Guztira	2.149	1.970	1.862

Hurrengo azpiatalean aztertzen diren hiru plan nagusiak –Eskola 2.0, Hezkuntza Marko Hirueleduna eta Bizikidetza plana– beste horrenbeste lehentasunezko lerrotan sartzen dira, eta ikastetxeek alde aurretik, beren ekimenez, lehentasunezko arreta eman izan diete lehentasunezko lerro horiei beren etengabeko berrikuntza jardueretan.


Gainontzeko lerroei dagokienez, zientzia hezkuntzak igoera nabarmena izan du, Euskal eta europar dimentsioa desagertu da, eta Garapen jasangarria⁴ izeneko lerroko jarduera gehienak hartzen dituen Eskolako Agenda 21 programaren finantziarioa Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailera transferitu da. Transferentzia hori kontuan izanik, 2007-08tik 2009-10era bitartean proiektuen kopuru orokorra handitu da. Ekintza-ardatzei dagokienez, 3. ardatzean (Eskola XXI. mendeko gizartean) proiektuen kopurua handitu da, baina 1. ardatzean (Guztiontzako eskola) kopurua jaitsi da.

Ikastetxeek proiektu horiek gauzatzeko erabiltzen duten *hizkuntzari* bagagozkio, ikastetxeen erdiak gutxi gora behera (% 51) euskara hutsa erabiltzen du, hezkuntza-sareen artean alde adierazgarririk ez dagoelarik. Ikastetxeen % 22k bi hizkuntzetan gauzatzen ditu proiektuak –ikastetxe publikoak ia guztiak–, % 23k gaztelania erabiltzen du, eta gainerako % 4k atzerriko hizkuntza batean gauzatzen ditu, ingelesez kasurik gehienetan.

Banaketa geografikoari dagokionez, 18 Berritzeguneen zonaldeetako batzuetan (Eibar, Gernika, Lasarte eta Zarautz) berrikuntza proiektuen % 70 baino gehiago euskaraz gauzatu dira, eta beste muturreko zonalde batzuetan (Leioa eta Bilboko Abando), berriz, % 20 inguru.

⁴ Eskolako Agenda 21 programa garatzeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak arautzen dituen Agindua (EHAA, 2009/02/18)

e) Euskara hutsean gauzatutako proiektuen kopurua ehunekoetan Berritzeguneen arabera (2008-09 eta 2009-10 ikasturteak batera)



3.1.1.2. Berritzeguneen prestakuntza jarduerak

Berritzeguneek ikastetxeentzako prestakuntza ikastaro laburren bidez –10 orduetatik gorakoak– edo mintegien bidez ematen edo antolatzen diete ikastetxeetan bertan edo Berritzegunean. Bai ikastaroen kopurua bai mintegien kopurua nabarmenki handitu dira joan den 2009-10 ikasturtean.

Berritzeguneen ikastaroak eta mintegiak lurraldeen arabera, 2008-09 eta 2009-10 ikasturteetan

	Ikastaroak		Mintegiak	
	2008-09	2009-10	2008-09	2009-10
Araba	54	47	19	19
Bizkaia	176	272	145	177
Gipuzkoa	111	164	76	95
Euskadi	341	483	240	291

Eskaririk handiena izan duten gaiak IKT teknologiak (128), oinarrizko kompetentziak (76) eta hezkuntza premia bereziak (51) izan dira (3.1 eranskina).

Berritzeguneez antolatutakoen artean eskaririk handiena izan duten ikastaroak. 2008-09 eta 2009-10 ikasturteak.

<i>Gaiak</i>	<i>2008-09</i>	<i>2009-10</i>
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	24	128
Curriculum berria eta oinarrizko konpetentziak	54	76
Hezkuntza premia bereziak	66	51
Hizkuntzak	14	40
Lidergo eta kudeaketa prozesuak	4	28
Bizikidetzarako, bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntza	20	22
Bizikidetzeta eta hezkuntza komunitatea	15	16
Zientzia hezkuntza	13	15
Kulturartekotasuna eta ikasle iritsi berrien integrazioa	12	12
Haur hezkuntza	11	11

Aurreneko hiru gaiak aurreneko tokietan daude mintegietan ere.

Berritzeguneez antolatutakoen artean eskaririk handiena izan duten mintegiak. 2008-09 eta 2009-10 ikasturteak.

	<i>2008-09</i>	<i>2009-10</i>
Hezkuntza premia bereziak	35	34
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak	37	33
Curriculum berria eta oinarrizko konpetentziak	17	25
Kulturartekotasuna eta ikasle iritsi berrien integrazioa	16	18
Zuzendaritza taldeen prestakuntza	19	18
Lidergo eta kudeaketa prozesuak	7	16
Bizikidetzarako, bakerako eta giza eskubideetarako hezkuntza	11	16
Hizkuntzak	4	14
Atzerriko hizkuntzak	12	14
Orientazioa	8	13

3.1.1.3. Garatu ikastaroak

2008-09 eta 2009-10 ikasturteetako Garatu ikastaroetarako deialdiak Aginduen bidez egin ziren (EHAA, 2008/04/14 eta EHAA, 2009/04/07). Eskaini ziren ikastaroen zerrendak ebazpenen bidez argitaratu ziren (EHAA, 2008/04/14 eta EHAA 2009/04/24).

2009-10 ikasturteko deialdian hiru aurrerabide antzeman daitezke aurreko deialdiekiko:

- Eskabidea on-line egiteko aukera izan zen
- Matrikulatzeko bi epe ireki ziren: maiatzean eta irailean
- Ingeleseko ikastaroetan zenbait aldaketa sartu ziren: hobekuntza ikastaroak eta didaktika ikastaroak bereiztea; hasierako mailako ikastaroak eskaintzea, eta ikastaroak Europako hizkuntzen Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera berrantolatzea.

Azken deialdiari buruzko datu orokorretan, egindako ikastaroen kopurua eta parte hartu duten irakasleen kopurua handitu dira.

Garatu ikastaroak 2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan

	2008-09	2009-10
Eskainitako ikastaroak	274	332
Gauzatutako ikastaroak	248	287
Eskainitako postuak	6.862	6.317
Jasotako eskabideak	16.910	17.789
Irakasle eskatzaileak	5.767	5.265
Onartutakoak	4.770	4.901

2009-10 ikasturtean egindako 287 ikastaroen hiru laurden baino gehiago kanpoko erakundeek eman zituzten, eta gainontzeko 62 ikastaroak Sailak berak eman zituen.

Hizkuntzari dagokionez, 166 ikastaro (% 67,5) euskaraz eman ziren, irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioan finkatutako % 60ko helburua gainditu zelarik.

Emandako 287 ikastaroetako 232 hiru ekintza-ardatzetako baten barruan daude. Ikastetxeek gauzatzen dituzten proiektuen banaketarekin konparatzen badugu, prestakuntza jardueretan *Guztiontzako eskola* izeneko ekintza-ardatzak gauzatutako ikastaro guztien % 25 hartzen duela ikus daiteke, ikastetxeetako proiektuetan % 5 baino hartzen ez duelarik.

Prestakuntza aldaketak ezartzeko aurrerapauso edo prestalan bezala hartu ohi denez, etorkizunean gehikuntza bat aurreikus daiteke ekitatearen eta inklusioaren inguruko berrikuntza proiektuetan.

Garatu plana eta ikastetxeetako proiektuak. Banaketa ekintza-ardatzen arabera. 2009-10

<i>Ekintza-ardatza</i>	<i>Garatu ikastaroak</i>		<i>Ikastetxeetako proiektuak</i>	
	<i>Ikastaro kopurua</i>	<i>%</i>	<i>Proiektu kopurua</i>	<i>%</i>
Guztiontzako eskola	58	25%	88	5%
Eskola hobeagoa	41	18%	465	25%
Eskola XXI. mendeko gizartean	133	57%	1.206	65%
Guztira	232	100%	1.862	100%

Garatu planean bloke oso bat dago udako hizkuntza ikastaroetarako. Aztertutako azken ikasturtean ikastaro kopurua 18tik 24ra handitu zen, eta lehenengoz eskaini ziren oinarritzko mailako ikastaroak.

Garatu plana. 1. blokea (udako hizkuntza ikastaroak). 2008-09 eta 2009-10 ikasturteak

	<i>Ingelesa</i>		<i>Frantsesa</i>		<i>Alemana</i>		<i>Guztira</i>	
	<i>08-09</i>	<i>09-10</i>	<i>08-09</i>	<i>09-10</i>	<i>08-09</i>	<i>09-10</i>	<i>08-09</i>	<i>09-10</i>
Erkidegoan	4	6	2	2	0	0	6	8
Atzerrian	9	14	2	1	1	1	12	16
Guztira	13	20	4	3	1	1	18	24

Horrezaz gain, 2009-10 ikasturtean ingelesezko urte osoko 8 ikastaro eskaini ziren.

3.1.2. Zenbait proiektu eta plan garrantzitsu

Ikastetxeetan ikasturte horietan abian jarri diren berrikuntzaren arloko ekimenen artean hiru dira aipagarrienak: Hezkuntza Marko Hirueleduna (MET), Eskola 2.0 programa eta Bizikidetzeta Plana, 2010ean birformulatua.

3.1.2.1. Hezkuntza Marko Hirueleduna

Hezkuntzaren berrikuntzaren arloko ekimen berezietako bat Hezkuntza Marko Hirueleduna da. Saiakuntza-izaerako plana da eta bere helburua hiru hizkuntzetako gaitasunak garatzea da, horretarako hirugarren hizkuntza –atzerriko hizkuntza, ingelesa kasu ia guztietan– irakas-hizkuntza edo curriculum-hizkuntza bezala hartzen duelarik, geroago deskribatuko denez.

Azken urteotan zehar Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hainbat proiektu sustatu ditu esperientzia eleanitzak bultzatzeko asmoz.

Izan ere, Haur Hezkuntza irakasten duten ikastetxe ia guztietan ikasleek lau urtetik aurrera astean ingelesezko bi ordu izaten dituzte curriculumean, *Ingelesaren sarrera goiztiarra (ITI)* izena eman zaion planaren arabera. LOEren ezarpenetik ingelesa hezkuntza-etapa horretako curriculumean dago, 1630/2006 Errege Dekretuan xedatzen den bezala. Dekretuan Haur Hezkuntzako bigarren zikloko gutxieneko irakaspenak finkatzen dira. 12/2009 Dekretuan Haur Hezkuntzako curriculumak xedatzen du, atzerriko hizkuntzarako helburu bat finkatzen duelarik:

“10.– Komunikatzeko asmoa helburu, atzerriko hizkuntza bat ahoz erabiltzen hastea komunikatzeko asmoarekin, ikasgelako ohiko egoeretan parte hartzeko ”.

Ingelesa curriculumeko edukien bidez sartzeko esperientzia bezala bi programa gauzatu izan dira: INEBI programa Haur Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan, eta BHINEBI programa Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. Programa horietan zenbait arlotako edo irakasgaitako alderdi berezi batzuk atzerriko hizkuntzaren arloan sartzen ziren.

Hezkuntza Marko Hirueledun berriaren aurrekaririk hurbilena esperientzia eleanitza da. Esperientzia hori 2003-04 ikasturtean abiarazi zen Bigarren Hezkuntzako 12 ikastetxetan, helburua hizkuntzatik aparteko irakasgai batzuk –ikastetxeak aukeratutakoak, orain planteatzen den bezala– atzerriko hizkuntzan irakastea zelarrik. DBHko ikasleek atzerriko hizkuntza astean 7 orduz gutxienez ikasi behar zuten, eta euskara 10 orduz. Batxilergoko ikasleek, bestalde, irakasgaien % 20 gutxienez atzerriko hizkuntzan ikasi behar zuten, eta % 25 euskaraz. Irakasleei C1 mailako titulua eskatzen zitzaien.

2009-10 ikasturtean, Hezkuntza Marko Hirueledunaren plana abian jarri aurreko urtean, 34 ikastetxek hartu zuten parte planean, lurraldeen eta atzerriko hizkuntzen arabera honela banaturik.

Irakaskuntza eleanitza eskaini duten bigarren hezkuntzako ikastetxeen kopurua, erabilitako hirugarren hizkuntzaren arabera lurralde bakoitzean. 2009-10 ikasturtea.

	<i>Ingelesa</i>	<i>Frantsesa</i>	<i>Ingelesa eta frantsesa</i>	<i>Guztira</i>
Araba	--	--	1	1
Bizkaia	22	2	2	26
Gipuzkoa	2	4	1	7
Guztira	24	6	4	34

Itunpeko ikastetxeek, neurri handiagoan edo apalagoan, programa hirueledunak gauzatu ohi dituzte. Partaide elkarteak bultzatutako hizkuntza-ereduaren arabera, DBHko bigarren zikloan irakasgai bat, gehienetan gizarte zientzien arlokoa, ingeles hutsez irakasten da.

Kristau Eskola elkarteko itunpeko ikastetxe askoren kasuan, proposamen berriak izaera ofiziala ematen dio alde zuzenetik egin izan denari, gainera ebaluazio-markoa eta etengabeko hobekuntza arautzen dituelarik.

2009-10 ikasturtearen bukaeran *Hezkuntza Marko Hirueledunaren saiakuntza-proiektuak garatzeko Agindua* (EHAA, 2010/05/20) argitaratu zen, proiektuak 2010-11 ikasturtetik aurrera abian jartzeko asmoz.

Deialdiaren helburua bi hizkuntza ofizialetan komunikazio-gaitasuna modu parekatuan garatzea eta atzerriko hizkuntza batean komunikazio-gaitasun ona lortzea da. Saiakuntzaren ezaugarri nagusienak honako hauek dira :

- Lehen Hezkuntzako 4. mailan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailan ekingo zaio saiakuntzari. Saiakuntza pixkanaka ezarriko da, eta hiru ikasturteko iraupena izango du .
- Parte har dezaketen ikastaldeen gehieneko kopurua: 2 ikastetxeko.
- Euskara, gaztelania nahiz atzerriko hizkuntza irakasgai eta ikasteko tresna izango dira.
- Lehen Hezkuntzako ikasleek gutxienez 5 ordu edo saio eman behar dituzte hizkuntza bakoitza ikasten (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza), ikastordu horien barruan hiru hizkuntza-eremuei dagozkienak sarturik ; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek, aldiz, 6 ordu edota saio eman beharko dituzte hizkuntza horietako bakoitza ikasten .
- Irakasleek Erreferentzia Marko Europar Bateratuko B2 maila edo hori baino maila handiagoko hizkuntza-titulazio edo agiria izan behar dute. Lehen Hezkuntzako irakasleek dagokion atzerriko hizkuntza irakasteko gaitze ofiziala izan behar dute. Egiaztatze-sistema osagarri bat ezarriko da.
- Irakasgaiak atzerriko hizkuntzan ematen dituzten irakasleek prestakuntza-ikastaroak egingo dituzte, atzerriko hizkuntzari buruzko ezagupenak

sakontzeko, eta komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusia ez den beste hizkuntza batean (2H edo 3H) curriculumeko alorrak emateko didaktika eta metodologia egokiak ezagutzeko.

- Hautatutako ikastetxeek Berritzeguneko aholkulari baten laguntza izango dute.
- Proiektuan parte hartuko duten ikasleei hasierako nahiz amaierako ebaluazioak egingo dizkie ISEI-IVEIk –Sailak proposatutako ereduari jarraikiz-. Hizkuntza-arloak ezezik, komunikazio- edo irakas-hizkuntza nagusia ez den beste hizkuntza batean (2H edo 3H) eman diren curriculum-edukiak edo arloak ere ebaluatuko dira.
- Laguntzak: Saiakuntza honetan parte hartzen duten ikastetxeek irakasle baten jardunaldi osoaren 1/2ren (ikastetxea bi lerroekin parte hartzen ari bada) edo 1/3ren (ikastetxea lerro bakar batekin parte hartzen ari bada) besteko ordurkreditua izango dute saiakuntzak iraun bitartean. Itunpeko ikastetxe pribatuek diru-kopuru horren baliokidea jasoko dute .
- Lerro bakar batean parte hartzen duten ikastetxeek 2.000 euroko diru-laguntza jasoko dute ikasturte bakoitzeko; bi lerroekin parte hartzen duten ikastetxeek 3.000 euroko diru-laguntza jasoko dute ikasturte bakoitzeko.

Parte hartzeko deialdia 40 ikastetxetarako egin zen (haien artean 25 ikastetxe publiko). Ebazpenean (EHAA, 2010/10/11) 40 ikastetxe hautatu ziren, baina ikastetxe publikoen parte hartzea (16) espero baino apalagoa izan zen. Gipuzkoako ikastetxe publikoek, hain zuzen ere, ez zuten eskari bat ere egin.

Deialdian finkatutako ikastetxeen kopurua eta ebazpenean hautatutako kopurua 2010-11 ikasturteko deialdian ikastetxe moten arabera

	<i>Ikastetxe publikoak Lehen Hezkuntza</i>		<i>Ikastetxe publikoak DBH</i>		<i>Itunpeko ikastetxe pribatuak</i>	
	<i>Deialdia</i>	<i>Hautatuak</i>	<i>Deialdia</i>	<i>Hautatuak</i>	<i>Deialdia</i>	<i>Hautatuak</i>
Bizkaia	8	7	5	6	8	16
Gipuzkoa	5	0	3	0	5	8
Araba	3	2	1	1	2	0
Euskadi guztira	16	9	9	7	15	24

Horrezaz gain, 2009-10 ikasturtean zehar MET planarekin batera atzerriko hizkuntza indartzeko beste zenbait jarduera ere antolatu ziren:

- Hizkuntza sendotzeko aste bateko egonaldiak Bernedon eta Berrizen. Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako 2.863 ikaslek hartu zuten parte.
- Uztailean eta abuztuan atzerrian lau asteko egonaldiak egiteko 2.000 euroko 750 diru-laguntza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleentzat.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako elkarrizketa-laguntzaileen kopurua nabarmenki handitzea.
- Institutu guztietan uztailean ingelesa hobeto ikasteko borondatezko ikastaroak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. maila bukatu duten ikasleentzat.

3.1.2.2. Eskola 2.0 proiektua

Hasiera batean Hezkuntza Ministerioaren programa (Escuela 2.0) izan zen, eta Euskadik ere parte hartzea erabaki zen 2009ko ekainaren 5eko Gobernu Kontseiluan.

Gure ikasgelak digitalizatzearen aldeko apustua da, IKT teknologiak hezkuntza arloan erabiltzeko behar diren tresnez hornituz. Hasteko, esperientzia Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleentzako pentsatuta dago: 5. mailako ikasgeletan 2009-10 ikasturtean hasi da esperientzia, eta 2010-11 ikasturtean ziklo osoak (5. eta 6. mailak) parte hartuko du, etorkizunean DBHko mailetara progresiboki zabaltzeko asmoarekin.

Eskola 2.0 programaren *helburuak* honako hauek dira:

- Ohiko ikasgelak ikasgela digital bihurtzea
- Irakasleak IKT teknologietan gaitzea
- Ikasgeletako aldaketa metodologikoa bultzatzea
- Amildegi digitala txikiagotzea
- Lan dinamikoa, parte-hartzailea, sarearen bidezkoa indartzea, beste ikastetxe batzuekin elkarlanean.
- Hezkuntzaren kalitatea hobetzea

Ikasgelek bi *oinarrizko hornidura* dituzte eta bi hornidura osagarri:

- Ikasleentzat eskuko ordenagailu txiki bana
- Arbel Digital Interaktiboa (PDI), euskarria, bozgorailuak eta bideo-erreproduzigailua dituena
- Armairu elektrifikatua bateriak birkargatzeko
- Eskuko ordenagailuak garraiatzeko poltsak

Arbel Digital Interaktiboa pantaila sentikorra da, eta ordenagailu bati eta proiektagailu bati konektaturik hezkuntza arloko tresna indartsu bihurtzen da. Arbel horretan ohiko arbelaren erabilera multimedia sistema berrien eta IKT teknologien baliabide guztiekin konbinatzen da.

Pantaila oso elementu sendoa da eta ikasgelan era naturalean integratzeko egokia. Bertan proiektatzen den edozein baliabide digital ziri luze batekin edo atzamarrarekin kontrolatzeko, sortzeko eta aldatzeko aukera ematen du. Gainera, ohar edo aldaketa guztiak gordetzeko aukera ematen du, eta baita ondoren inprimatzeko eta banatzeko aukera ere.

2009-10 ikasturteko aurreneko deialdian 539 ikasgela hornitu dira ikastetxe publikoetan eta 401 ikasgela itunpeko ikastetxeetan. Guztira, ikasleei beraiek erabiltzeko 18.159 ordenagailu eman zaizkie, eta beste 1.841 gorde dira hala behar denean aurrekoak ordezkatzeko.

Programaren alderik garrantzitsuenetako bat esperientzian parte hartzen duten *irakasleen prestakuntza* da –Lehen Hezkuntzako 5. mailako tutoreak, ingelesezko irakasleak eta Pedagogia Terapeutikoko irakasleak–. Prestakuntzak kontuan izaten ditu irakasleen ezagupenak eta teknologia berriak irakaslanean erabiltzen aurretiaz izandako esperientzia. Honako ezaugarri hauek ditu:

- Praktikoak da, irakasleen proiektuetatik eta beharretatik sortzen baita
- Alderdi metodologikoak lantzen ditu, bereziki gaitasun digitala
- Lankidetzarako sareak sortzen ditu
- Mintegiek urte bateko iraupena dute

Horniduraz eta prestakuntzaz gain, Eskola 2.0 programak *beste baliabide batzuk* eskaintzen ditu:

- Sareko eduki digitalak progresiboki. 2010-11 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 3. zikloan 6 arlo hartzea espero da (Ingurumenaren, gizartearen eta kulturaren ezagutza, Matematika, Euskara, Gaztelania eta Ingelesa). *Objektu Digital Hezigarriak (ODE)* gauzatzeko bi deialdi egin dira.
- Arlo bakoitzeko gida metodologikoa
- Eskola 2.0 web ataria, honako utilitate hauekin:
 - . Informazioa partekatzea
 - . Edukiak ekartzea: multimedia, prestakuntza
 - . Ikasgelako proiektuak erraztea: ikasgelako bloga
 - . Jarduera egokiak jakinaraztea
 - . Jarduera osagarriak
 - . Familientzako laguntza

3.1.2.3. Bizikidetzaren Plana

Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako euskal planaren (2008-2001) aginte organoak, Kontsulta Batzordea eta Behatokia, 2009. urtean zehar sortu ziren.

Geroago plana *Bizikidetzaren demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea (2010-2011)* plan bezala birformulatu zen. Bere izapide parlamentarioa zela eta, komunikabideetan oso eztabaida handia sortu zenez, Kontseiluak akordio bat onartu zuen aho batez. Akordioaren lerro nagusiak geroago aztertuko dira.

Azkenik, plan berrian dauden zenbait ekimen biltzen dira, plana 2010-11 ikasturtean abian jartzeko erantsitako arau eta neurri orientagarri batzuekin batera.

Giza eskubideetan eta bakean hezteko Aholku Batzordea 31/2009 Dekretuaren (EHAA, 2009/03/10) bidez sortu zen. Geroago, planaren birformulazioaren ondorioz, 1/2011 Dekretuan, beste zenbait aldaketarekin batera, *Bizikidetasun demokratikoa*

*sustatzeko eta indarkeria deslegitimatze*ko Aholku Batzorde izena eman zitzaion.

Erakundeek eta hezkuntza arloko elkarteek, bereziki bakearen aldeko hezkuntzakoek, ordezkari zabalak dute Aholku Batzordean (ikus 3.3 eranskina).

Batzordearen helbururik behinena planaren lerro estrategikoen eta arlo horretako politiken eguneroko garapenari buruzko iritziak ematea da, eta era berean planari edo plana garatzeko politikari egin dakioken edozein aldaketari buruzko iritziak ematea. Bere bigarren helburua Giza Eskubideen Zuzendaritzari arlo horren inguruko aholkuak ematea da

Eskola Bizikidetzaren Behatokia 85/2009 Dekretuaren (EHAA, 2009/05/13) bidez sortu zen, erakundeen ordezkari zabalarekin eta honako hiru eginkizun hauekin:

- a) Bizikidetzaren ikerketa, analisisa, balorazioa eta jarraipena gauzatzea
- b) Errespetuan eta elkarrizketan oinarritutako bizikidetzaren sustatzea
- c) Ikastetxeetako bizikidetzari buruzko ikuspegi orokorra zehaztea, eta horrez gain, prebentzio-ekintzak eta hobekuntza-neurriak proposatzea.

2010eko martxoan Kontseiluak *Bizikidetasun demokratikoa sustatzeko eta indarkeria deslegitimatze*ko planaren (2010-2011) zirriborroari buruzko txosten bat egiteko agindua jaso zuen.

Euskadiko Eskola Kontseiluak zirriborro horren inguruan onartutako akordioa, bere arrazoibidean, bizikidetzaren egoerari buruzko oinarritzko diagnostikoa egiten zuen, eta planaren ekimenak ikastetxe bakoitzeko curriculuma eratzeko finkatutako prozedura multzoaren barruan sartzen zituen.

Akordioan, Kontseiluak bizikidetzaren lau adierazle positibo identifikatu zituen gure hezkuntza sisteman:

- Ikastetxeetan ardura handia ikusten da bizikidetzaren hobetzeko proiektuak gauzatzeko, ikastetxe mota eta etapa edozein delarik ere.
- PISA 2003 ikerlanean (15 urteko ikasleak) Euskadi eskola-giroan ELGAko batez bestekoaren gainetik zegoen, irakasleen pertzepzioaren arabera eta bereziki ikasleen pertzepzioaren arabera.
- Ikastetxe publikoetan zuzendaritza taldeek eskola-giroa eta eskola komunitatearen elementu ezberdinen arteko harremanak eta partaidetza azken hamarkadan hobetu egin direla nabaritu dute, Kontseilu honek duela gutxi egindako ikerlan baten arabera.
- Euskadin ikasleen eskubideen eta betebeharren berariazko araubideak izaera hezigarri argia du, inklusibitatea helburu duen, eta lehentasuna ematen die hizketatutako konponbideei ezarritakoen gainetik.

Ikastetxeek plana gauzatzeko duten ekintza-esparruari dagokionez, eta legebiltzarrean eta komunikabideetan gai batzuei buruz (biktimen presentzia

ikastetxeetan, biktima motak eta presentzia nola gauzatu) sortutako eztabaidari dagokionez, Kontseiluak iritzi zuen ikastetxeetan *biktimaren kontzeptua eta bere trataera pedagogikoa* nola landu arautu behar zuen markoa aldeztetik finkatuta zegoela, Oinarrizko Hezkuntzaren aurreko curriculumak aldatu zuen 97/2010 Dekretuan (ikus 3.4 eranskina). Ondorioz, curriculumaren dekretuan xedatutako irizpideak zehazteko erabakia ikastetxeen eskuetan geratzen da, bere autonomiaren barruan.

Bizikidetasun demokratikoa sustatzeko eta indarkeria deslegitimatuzko plana 2010eko maiatzean onartu zen Eusko Legebiltzarrean, eta 9.3 azpiatalean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak gauzatu beharreko zenbait ekintza aurreikusten ziren, 2010-11 ikasturteetik aurrera abian jartzekoak, besteak beste:

- 15 ikastetxerentzako mintegia
- Garatu ikastaroak
- Esku-hartze sozio-komunitarioerako proiektua (UEPI) 4 ikastetxerentzako
- Guraso elkarteentzako ekintzak
- Baliabideen gune bat sortzea eta kudeatzea. Horretarako 2 pertsona kontratatuko dira.
- Baliabide digitalen gune bat (Bakegune), Euskadiko gatazka politikoaren biktimek egindako argitalpen eta lekukotasun idatziak, eta bideoan edo audioan grabatutakoak barne hartzen dituelarik.

Ondoren, 185/2010 Dekretuak *irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa* onartu zuen, eta 85. artikuluan bizikidetzako neurriei lotutako ekintza multzo bat planifikatu zuen, hala nola:

- a) Bizikidetzaren planak prestatzea eta bizikidetzaren behatokiak sortzea EAeko ikastetxe guztietan (eskola txikietan, Haur Hezkuntza soilik ematen duten ikastetxeetan, kontserbatorioetan, HEOetan eta arte eskoletan izan ezik). Hori egiteko, gehienez ere, bi ikasturteko epea ematen da.
- b) Orientabide eta jardueraren egokien gida bat aurkeztea. Gida hori prestatzeko, kontuan izan dira Ikuskaritzak eta bizikidetzako aholkulariek bizikidetzaren planak eta behatokia 3 edo 4 urtez oso emaitza onez gauzatu dituzten ikastetxeetan egindako ebaluazioa.
- c) EAeko bizikidetzaren Behatokia sortzeko dekretua berregitea.

Azkenik, Hezkuntza Sailordek *2010-11 ikasturtearen hasierarako zenbait orientabide* eman ditu bizikidetzaren planak egiteko eta aurretiaz egindakoak eguneratzeko; bizikidetzaren behatokiaren betebeharrak ere zehaztu ditu.

Ez kasu batean ezta bestean ere, inon ez da aipatzen indarkeria-egoerei espresuki lotutako edukirik; abiapuntua, aitzitik, ikastetxeko bizikidetzari buruzko diagnostikoa da, eta ikasleei gatazkak modu integratzailean konpontzen irakasten zaie.

3.2. Irakasleen hasierako prestakuntza

Europako Goi Mailako Hezkuntza Eremuaren sorrerak irakaskuntzara bideratutako ikasketak bultzatzea eta berrantolatzea ekarri du, eta bi alderditan nabaritu da bereziki: alde batetik, ikasketen esparrua asko zabaldu da, eta beste aldetik, irakasleek lanerako behar dituzten gaitasunen markoa definitu da.

Plan berrien arabera, graduko ikasketek 4 ikasturteko iraupena izan behar dute. orain arteko Magisteritza diplomekin konparaturik, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle graduak ikasturte bat gehiago irauten dute. Praktiketarako denbora ere askoz luzeagoa da orain.

Bigarren Hezkuntzako irakasle izateko gaitzen duten masterrek urte bateko iraupena dute, eta hilabete batzuetako iraupena zuen Irakaskuntzarako Egokitze Ikastaroa (IEI) ordezkatu dute. Kasu horretan ere Practicuma luzatu egin da.

Titulu berriek eskatzen dituzten lanerako gaitasunen paradigmak ahalegin handia eskatzen die unibertsitate ikastetxeetako klustroei, curriculum berria gaur egun dituzten baliabideekin –giza baliabideak zein baliabide materialak– planifikatzeko.

3.2.1. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle graduak

Irakaslanean jarduteko gaitzen duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle graduko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 eta ECI/3857/2007 aginduek (BOE, 29/12/2007) xedatu zituzten, hurrenez hurren.

Curriculumak 3 **moduluren** inguruan egituratzen da. Haur Hezkuntzaren kasuan, oinarrizko prestakuntza moduluak aurreko ikasketa-planetan ageri ez ziren aukera batzuk ditu, hain zuzen ere, “Gizartea, familia eta eskola”, “Haurtzarora, osasuna eta elikadura”, “Behaketa sistematikoa eta testuinguruen analisisa” eta “Haur Hezkuntzako eskola”.

Lehen Hezkuntzan jakintza arloei eta didaktikari buruzko moduluak garrantzitsuagoak dira oinarrizko prestakuntzari buruzkoak baino, etapa horretan hasten baitira eskuratzen LOEn eta Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) euskal curriculumaren Dekretuan xedatzen diren oinarrizko kompetentziak.

Ikasketa-planek 240 kredituren iraupena dute –kreditu bat 250 orduren baliokidea da–. Kreditu horietatik 210 derrigorrezkoak dira, Haur Hezkuntzako graduan oinarrizko prestakuntzari buruzko moduluak garrantzitsuagoak (100) izanik, eta Lehen Hezkuntzako graduan, berriz, didaktikari eta jakintza arloei buruzko moduluak pisu handiagoa (100) dutelarik.

Derrigorrezko moduluak irakasle graduatan

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA		LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA	
Modulua	Kredituak	Modulua	Kredituak
Oinarrizko prestakuntza <ul style="list-style-type: none"> • hezkuntza prozesuak, ikaskuntza eta nortasunaren garapena (0-6 urte) • Ikasteko zailtasunak eta garapenaren nahasteak • Gizartea, familia eta eskola • Haurtzaroa, osasuna eta elikadura • Eskola espazioaren antolamendua, materialak eta irakasteko trebetasunak • behaketa sistematikoa eta testuinguruaren analisia • Haur hezkuntzako eskola 	100	Oinarrizko prestakuntza <ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza prozesuak eta testuinguruak • Gizartea, familia eta eskola • Ikaskuntza eta nortasunaren garapena 	60
Didaktika eta jakintzagaiak <ul style="list-style-type: none"> • Natur zientzien, Gizarte zientzien eta Matematikaren ikaskuntza. • Hizkuntzen ikaskuntza eta Irakurketa-idazketa • Musika, adierazpen plastikoa eta gorputz adierazpena 	60	Didaktika eta jakintzagaiak Honako hauen irakaskuntza eta ikaskuntza: <ul style="list-style-type: none"> • Zientzia esperimentalak • Gizarte zientziak • Matematika • Hizkuntzak • Musika, plastika eta ikus-hezkuntza • Gorputz heziketa 	100
Practicuma <ul style="list-style-type: none"> • Eskolako praktikak, Graduaren bukaerakoproiektua barne 	50	Practicuma <ul style="list-style-type: none"> • Eskolako praktikak, Graduaren bukaerakoproiektua barne 	50

Graduko tituluari esleitutako ordu kopuru orokorraren % 40 aurrez aurrekoak dira eta gainerako % 60 ikaslearen bakarkako lanari dagokio. Lau irakaste-modalitate bereizten dira:

- Eskola magistralak: ikastalde handiko eskolak dira (100 ikasle gehienez), gai teorikoak azaltzeko.
- Mintegiak: alde z aurretik irakurritako edo sortutako dokumentuak talde txikitara (20 ikasle gehienez) eztabaidatzen dira.
- Ikasgelako praktikak: teoriari lotutako kasu praktikoak, eztabaidak... tamaina ertaineko taldeetan (60 pertsona gehienez) aurkezten dira; talde lana eta ahozko komunikaziorako trebetasunen garapena bultzatzen da.
- Ordenagailuko praktikak: talde txikitako lan bezala planteatzen dira (24 pertsona gehienez) datuak bilatzeko, egituratzeko eta aztertzeko, eta ikus-entzunezko materialak aukeratzeko.

Practicuma hezkuntza administrazioen eta unibertsitateen arteko akordioen bidez prestakuntza-praktikak gauzatzeko aitortutako Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan egingo da. Txosten hau onartzen denean, akordioa oraindik sinatu gabe egongo da. Akordioak, bestalde, planteamendu berria eskatzen du aurreko akordioekiko.

Practicuma aurrez aurre egin behar da, eta unibertsitateko irakasleen eta praktiketako tutore bezala onetsitako Lehen Hezkuntzako irakasleen tutoretzapean. Practicuma Haur Hezkuntzan eta lehen Hezkuntzako hiru zikloetan egingo da. Ondoren, eta Practicumari loturik, ikasleek Graduaren bukaerako proiektua egin behar dute.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle graduko tituluei lotutako **lanbide-konpetentzien** barruan ikaste-prozesuen planifikazioaren, gauzapeanaren eta ebaluazioaren inguruko alderdi tekniko-profesionalak sartzen dira, eta horrezaz gain, ikasleei eta dagokion etaparen antolamenduari buruzko berariazko ezagupenak; zehar konpetentziak abian jartzea, parte hartzerako estrategiak, irakaskuntzaren dimentsio etikoaren garapena eta etorkizuneko irakasleen jarrera positiboa aldaketen aurrean.

Graduak arautzen dituzten ministerioaren bi aginduetan lanerako 12na konpetentzia finkatzen dira, gehienak berdintsuak bietan bai literalki (5 kasutan) bai bakoitzaren ingurunera egokiturik (ikus deskripzio osoa 3.5 eranskinean).

Irakasle graduko tituluei dagozkien lanbide-konpetentziak.

<i>Haur Hezkuntzako Gradua</i>	<i>Lehen Hezkuntzako Gradua</i>
Helburuak curriculumeko edukiak eta ebaluazio irizpideak ezagutzea	Curriculum arloak ezagutzea
Ikastea sustatzea eta erraztea	Diseinatzea, planifikatzea eta ebaluatzea
Ikasteko espazioak diseinatzea eta arautzea	Ikasteko espazioak diseinatzea eta arautzea
Hizkuntzaren garapena ezagutzea	Hizkuntzen ikaste-egoerei aise aurre egitea
Haur dietetikaren eta higiearen oinarriak ezagutzea	Haur dietetikaren eta higiearen oinarriak ezagutzea
IKT teknologiek hezkuntzan duten eragina ezagutzea	IKT teknologiak ezagutzea eta ikasgelan erabiltzea
Bizikidetzaren sustatzea	Bizikidetzaren sustatzea
Arauen onarpenaz gogoeta egitea taldeka	Erantzukizuna balioestea
Gurasoen orientatzaile bezala aritzea	Komunitatearen sektoreekin lan egitea
Haur hezkuntzako eskolen antolamendua ezagutzea	Ikastetxeen antolamendua ezagutzea
Ikasgelako jardueri buruz gogoeta egitea berritzeko	Ikasgelako jardueri buruz gogoeta egitea berritzeko
Hezkuntzaren eginkizuna, aukerak eta mugak ulertzea	Hezkuntzaren eginkizuna, aukerak eta mugak ulertzea
	Jakintzarekin harreman kritikoa eta autonomia edukitzea

EHU-UPVko ikastetxeek konpetentzia batzuk erantsi dituzte, hiru Haur Hezkuntzan eta bat Lehen Hezkuntzan. Bi kasuetan komunikaziorako konpetentzia indartu nahi izan da, eta Haur Hezkuntzaren kasuan haurren garapen emozionala eta berrikuntza-espiritua hartu dira kontuan (3.5 eranskina).

Irakasle titulu bietan berria da gradudunek ikasketak bukatzean atzerriko hizkuntza batean Hizkuntzen Erreferentzia Marko Europar Bateratuko B1 maila

egiaztatu behar izatea. Oro har, ikasleentzako eskaintza Atzerriko hizkuntzaren didaktika irakasgaira mugatzen da, eta Mondragoneko unibertsitatean bakarrik irakasten dira derrigorrez eskaini beharreko irakasgai batzuk ingelesez.

Magisteritza ikasketen eskariari dagokionez, sartzeko eskatzen diren kalifikazioak batez bestekoa baino altuagoak dira, areago oraindik unibertsitateko ikastetxe publikoetan, eta ondorioz, oro har, hautaketa zorrotza egiten da ikastetxe horietan.

EHU-UPVren 2009-10 ikasturteko Estatistika Urtekaritik Magisteritzako ikasleei buruzko zenbait datu atera ditugu. Ordura arte irakasten ziren 6 espezialitateen multzoan –orain bi graduetara murrizturik– 4.360 ikasle matrikulatu ziren, hiru irakasmaitan banaturik.

EHU-UPVko Irakasleen Eskoletako ikasleak, espezialitatearen eta sexuaren arabera. 2009-10

<i>Magisteritzako espezialitateak</i>	<i>Nesak</i>	<i>Mutilak</i>	<i>Guztira</i>
Hezkuntza Berezia	309	29	338
Gorputz Hezkuntza	122	269	391
Haur Hezkuntza	1.166	133	1.299
Musika Hezkuntza	188	97	285
Lehen Hezkuntza	1.184	375	1.559
Atzerriko Hizkuntza	391	97	488
Espezialitate guztietan	3.360	1.000	4.360

Horietatik 1.226 ikasle 1. mailan matrikulatu berriak ziren. 2010-11 ikasturterako proiektzioa egiteko erabilitako datuetan oinarriturik, titulu berriekin ikaspostuak mugatu beharko direla aurreikusten da (3.6 eranskina). Euskadiko 5 irakasleen unibertsitate eskoletako ikasle guztien % 80k baino apur bat gehiagok euskaraz egiten ditu ikasketak.

Unibertsitate eskola publikoetako matrikularen bilakaera aztertzen bada, oro har ez da aldatu azken hamarkadan zehar; azken urteotan Donostiako Eskolako matrikula igo egin da, eta Bilboko Eskolako, berriz, jaitsi.

EHU-UPVko Irakasleen Eskoletako ikasleen bilakaera azken hamarkadan campusen arabera

	2000-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10
Vitoria-Gasteiz	1.004	1.119	1.098	1.162	1.230	1.233	1.235	1.261	1.247	1.258
Donostia	1.376	1.183	1.204	1.168	1.246	1.282	1.253	1.240	1.271	1.381
Bilbo	1.876	1.705	1.853	2.014	2.080	1.931	1.868	1.739	1.704	1.721
EHU-UPVko I. E. guztira	4.256	4.007	4.155	4.344	4.556	4.446	4.356	4.240	4.222	4.360

Azken bi ikasturteotan EHU-UPVko hiru eskola publikoetan 923 gizon eta 968 emakumezko graduatu dira, batez ere Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako espezialitateetan, gradu horiek orain arteko 6 espezialitateen bi heren hartzen baitute.

EHU-UPVko Irakasleen Eskoletan graduatutako ikasleak, espezialitatearen arabera. 2008-09 eta 2009-10 ikasturteak

<i>Titulua</i>	2008-/09	2009-10
Hezkuntza Berezia	77	76
Gorputz Hezkuntza	72	100
Haur Hezkuntza	300	317
Musika Hezkuntza	53	48
Lehen Hezkuntza	316	335
Atzerriko Hizkuntza	105	92
Espezialitate guztietan	923	968

Azken hamar urteotan titulazioen bilakaera, oro har, nahiko egonkorra izan da.

EHU-UPVko Irakasleen Eskoletan graduatutako ikasleen bilakaera azken hamarkadan campusen arabera

	2000-01	01-02	02-03	03-04	04-05	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10
Vitoria-Gasteiz	237	192	172	177	240	230	231	198	231	242
Donostia	417	334	338	250	280	310	317	328	315	356
Bilbo	552	366	401	359	419	410	442	398	377	370
EHU-UPVko Irakasle Eskolak guztira	1.206	892	911	786	939	950	990	924	923	968

3.2.2. Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza masterra

Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntzari dagokionez, orain arteko sisteman irakasle gaiak lizentziatura ikasketak bukatu ondoren Irakaskuntzarako Egokitze Ikastaroa (IEI) egin behar zuten, eta esperientzia hori ez da batere emankorra izan. Lizentziadun berriak lanbideari eta ikasleei buruzko ezagupen urriekin sartu izan dira irakaskuntzara.

Oraintsuago LOEk, DBHren irakaskuntza Bigarren Hezkuntzako irakasleei esleitzen dienean, irakasle horien gaitasun pedagogikoa eta hezkuntzarakoa sendotzera behartzen du.

Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza garrantzi handiko gaia da, eta curriculum berrian egindako aldaketak nahikoak izan beharko lukete aurreko ikasketan mugak, neurri handi batean, gaintzeko. Hala eta guztiz ere, ikasketan plan berrian etapa horretako irakaskuntzarako prestatzeko erabiltzen den denborak unibertsitateko 5 irakasmiletako azkena bakarrik hartzen du; graduari dagokion hasierako lau irakasmiletan berriazko konpetentziak, komunak bestalde lanbide batzuetarako, garatzen dira.

Ondoz ondoko izeneko eredu hori minoritarioa da Europan, hegoaldeko herrialdeetan (Italia, Frantzia edo Espainia) ohikoa den arren. Erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetan (Alemania, Suedia edo Polonia), berriz, *aldibereko* izeneko

eredua da nagusia. Eredu horretan irakaslegaiak batera jasotzen dute alderdi pedagogikoei buruzko prestakuntza eta jakintzagaiaren edukiei buruzkoa.

Ondorioz, masterraren azken ikasturtea nahikoa izan beharko luke aurreko urteetan irakasteko lanbide-konpetentziak landu ez izana orekatzeko.

ECI/3858/2007 Aginduak (BOE, 2007/12/29) Bigarren Hezkuntzako irakasle master tituluak arautzen ditu. Gutxienez 60 kredituko iraupena izan behar dute. Horietatik 16 kreditu gutxienez Practicumari dagozkio, *Masterraren bukaerako proiektua* egiteko denbora barne. Curriculum hiru modulutan egituratzen da, eta modulu bakoitzerako gutxienerako kreditu kopuru bat finkatzen da.

Bigarren Hezkuntzako irakasle Masterrak. Derrigorrezko moduluak eta gutxienerako kredituak.

<i>Modulua</i>	<i>Kredituak</i>
Generikoak <ul style="list-style-type: none"> • Ikasketa eta nortasunaren garapena • Hezkuntza prozesuak eta testuinguruak • Gizartea, familia eta hezkuntza 	12
Espezifikoak <ul style="list-style-type: none"> • Jakintzagaiari buruzko prestakuntzaren osagarriak • Dagozkion jakintzagaien ikasketa eta irakaskuntza • Berrikuntza irakaskuntzan eta hezkuntza-ikerketaren hastapenak 	24
Practicuma <ul style="list-style-type: none"> • Espezialitateko Practicuma, Masterraren bukaerako proiektua barne 	16

Aginduak 11 lanbide-konpetentzia aipatzen ditu eta beste 6 konpetentzia Practicumerako (3.7 eranskina). Practicum-aldiaren helburuak honako hauek dira hain zuzen ere: espezialitateari dagozkion jakintzagaien planifikazioan, irakaskuntzan eta ebaluazioan esperientzia hartzen erraztea; irakaslanean ahozko eta idatzizko adierazpena egoki menperatzen duela egiaztatzea; eta ikasketa eta bizikidetzatza errazten dituen giroa sortzeko behar diren gizarte-trebetasunak menperatzea.

Euskadiko hiru unibertsitateek –EHU-UPV, Deustu eta Mondragon– 2009-10 ikasturtetik eskaintzen dituzte master horiek. Hasierako ikasturtean 200 ikasle baino apur bat gutxiago –matrikularen igoera aurreikusten da– matrikulatu dira honako titulu hauetan banaturik:

- Natur Zientziak eta Matematika
- Zientifiko-teknologikoa: Matematika, Informatika, Teknologia
- Musika Hezkuntza
- Prestakuntza eta lanbide-orientazioa
- Gizarte Zientziak
- Heziketa Teknologikoa
- Hizkuntza eta Literatura
- Giza eta Gizarte zientziak
- Hizkuntza modernoa: Ingelesa
- Gaztelania eta Literatura
- Euskal Hizkuntza eta Literatura

- Ikasketa-orientazioa
- Zientzia esperimentalak

*Practicum*aren antolamenduari dagokionez, oraintsu argitaratu da eskolak Practicuma antolatu ahal izateko eta irakasleek Practicumeko tutoreak izateko bete beharreko baldintzak arautzen dituen Agindua (EHAA, 2010/09/24). Estatu mailako arauak garatuz, Aginduak xedatzen du parte hartzen duten hezkuntza-elkarteez praktika-eskola bezala aitortuak izan behar dutela, eta ikasleen orientazioaren eta tutoretzaren ardura duten irakasleek ere horretarako aitortpena izan behar dutela. Kontseiluaren 10/08 irizpenean aipatzen diren zenbait planteamendu geroago bilduko ditugu ondorioetan.

Era berean, beste bi analisi eta proposamen iturri hartu dira kontuan: alde batetik, estatu zein erkidego mailan Magisteritza eta Hezkuntza tituluak ematen dituzten ikastetxeetako Dekanoen Biltzarrak hezkuntza gaietako eskumena duten erakundeei egindako proposamenak, 2010eko urrian hain zuzen ere. Eta beste aldetik, *La dimensión práctica en la formación inicial del profesorado de Secundaria: orientaciones para el reconocimiento de centros de buenas prácticas* (2009) izeneko txostena, Estatuko Eskola Kontseiluaren ekimena, Filosofia eta Letretako eta Zientzietako Doktoeen eta Lizentziadunen Kontseilu Orokorrak, Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak eta Kalitatearen Ebaluazioaren eta Kreditazioaren Agentzia Nazionalak (ANECA) batera egindakoa.

3.3. Ondorioak eta proposamenak

Irakasleen prestakuntzaren eta ikastetxeetako berrikuntzaren gaiei dagokienez, Kontseiluak aldaketa prozesu horietan mota askotako ekimenak eta interes eta parte hartze handia ikusten ditu, eta bere iritzian garrantzitsua da antolamendu-baldintza batzuk mantentzea, berrikuntzarako ekimen berriak aldi berean garatu ahal izateko eta ikastetxeetako eguneroko jardunean finkatu daitezen.

(P13) *Kontseiluak uste du, irakasleak berrikuntzan eta aldaketan konprometitu daitezen, ezinbestekoa dela irakastorduetatik kanpoko denbora nahikoa izatea eta denbora hori egoki erabiltzen dela bermatzea.*

(P14) *Halaber, Kontseiluak prestakuntza-jarduerak ikastetxearen plangintzako dokumentuetan txertatu beharra ikusten du. Hain zuzen ere, ebaluazio diagnostikotik eratorritako hobekuntza planak berrikuntzaren antolamenduaren ardatz nagusietako bat izan behar du, ikastetxearen gainontzeko ebaluazio-elementuak ere erreferentzia bezala harturik.*

Ikastetxeek prestakuntzarako eta berrikuntzarako hautatutako gaiei dagokienez, Kontseiluak oso positibotzat jotzen du gaitzat curriculumaren berrikuntza eta hezkuntza kompetentzien markoa hautatu izana. Era berean,

Berritzeguneen ekimenak nora bideratu diren aztertu ondoren, Kontseiluak oso begi onez ikusten du ikastetxeetan bertan burutzen diren prestakuntza-ekintzen gehikuntza.

Eskola 2.0 programari dagokionez, Kontseiluak uste du aurrerapauso kualitatiboa dela gure hezkuntza sistemak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ikastetxeetan sartzeko egin behar duen bide luzean, eta horren seinale ikastetxeek arlo horretan burutzen dituzten berrikuntza proiektuen ugaritasuna eta aniztasuna.

Ikasgelan ordenagailu pertsonalak barne sarean konektatzeak eta pantaila digitala partekatzeak oso aukera ona eskaintzen du ikasleek informazio iturriekin duten harremanean eta informazioaren prozesaketan aldaketa metodologikoak egiteko, eta irakaslearen eginkizunari alderdi berriak ematen dizkio.

Bigarren ondorioa hezkuntza sistemako ikastetxe guztietan baliabide horietarako sarbidea unibertsalizatzea da, hau da, etxean horrelako baliabiderik ez duten ikasle askok teknologia horiek erabiltzen ikasteko eta erabiltzeko aukera izango dute. Horrek *amildegi digitala* murrizten eta gizarte kohesioa handitzen lagunduko du.

Sistema ezartzeko unean, 2009-10 ikasturtearen hasieran, zenbait arazo sortu ziren informatika-hornidura ikastetxeetara bidaltzean atzerapenak izan baitziren; izan ere, jardueren programa aldatu behar izan zuten, Haur Hezkuntzako 5. mailako irakasleentzako prestakuntza, berarekin liberazioa zekarrena, txertatu ahal izateko.

(P15) Geroari begira, Kontseiluak uste du Eskola 2.0 programa eraginkortasun handiagoarekin ezarri ahal izateko bi baldintza bete behar direla:

- Konektagarritasun eskasak edo apalak sortzen dituen arazoak konpontzea.*
- Ikastetxeko IKT teknologien koordinatzailearen eginkizuna sendotzea: lanak definitzea, prestakuntza egokia ematea eta ordu-kopurua zehaztea.*

Hezkuntza Marko Hirueleduna (MET) gure hezkuntza sisteman, hiru urteko epe laburrean, ingeles hizkuntza bultzatzeko esperientzia pilotu bezala planteatzen da; esperientzia horretan hiru hizkuntzak dira curriculum-hizkuntzak edo irakas-hizkuntzak, gainontzeko curriculum arloetako oinarrizko konpetentziak garatzeko erabiltzen baitira.

Hezkuntza Marko Hirueleduna, aldi berean, irakasteredu elebidunen sistemaren ordezkotako aukera potentzial bezala formulatzen da, baldin eta aurreko sistemak izan duen bezain atxikimendu maila altua, gutxienez, sortzen badu, behar den ebaluazioa egin ondoren.

Kontseilu honi iritzia eskatu zitzaion bere garaian Hezkuntza Sailak, Eusko Legebiltzarrak hala eskaturik, irakasteredu elebidunen sistema aldatzeko zuen asmoa

zela eta. Gure iritzian, duela hiru urte adostea lortu ziren analisia eta proposamenak erabilgarriak izan daitezke oraingo eztabaidan.

Helburuen esparruan, Kontseiluak beharrezkotzat jotzen zuen Administrazioak Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran euskarazko hizkuntza-gaitasunak ebaluatzeko erreferentzia-mailak zeintzuk izango ziren finkatzea. Hala eta guztiz ere, geroago, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma arautzen zuen Dekretuan, bai hasierako bertsioan (EHAA, 2007/11/13) bai 2010eko zuzenketan, helburu, eduki eta ebaluazio irizpide berdinak finkatu dira bi hizkuntza ofizialetarako bi zikloetan, irakasteredu elebiduna edozein delarik. Eta hori ez dator bat ebaluazio diagnostikoan egiaztatutako errealitatearekin.

(P16) *Hori dela eta, Kontseiluak berresten du curriculumeko hiru hizkuntzetarako erreferentzia-mailak finkatu beharra, ikastetxe bakoitzak bere beharren erronkari aurre egin ahal izan diezaion. Hezkuntza Marko Hirueledunak ebaluazio ereduak finkatzen ditu prozesuaren hasierako eta bukaerako ebaluazioetarako, ebaluazio diagnostikoak egin izan duen bezala.*

Euskararen kasuak garrantzi berezia du, hezkuntza sisteman hizkuntzarik hautatuena delako; gaurko egunean, Oinarrizko Hezkuntzan oro har, irakasgai eta arlo guztien % 60 euskaraz irakasten dira, % 25 gaztelaniaz, eta % 15 ingelesez. Aurreko atalean egiaztatu den bezala, curriculumaren parte handi bat euskaraz ikasten duten ikasleen kopuru nahiko handia hasierako gaitasun-mailetan dago hizkuntza horretan.

(P17) *Ondorioz, Kontseiluak, Hezkuntza Marko Hirueleduna hezkuntza sistema osora zabaldu nahi den neurrian, Sailari honako gomendio hauek eman nahi dizkio: zonaldeko errealitate soziolinguistikoa eta ebaluatu diren hizkuntzetan ikastetxean lortutako emaitzak kontuan har ditzan, eta ikastetxe bakoitzean hezkuntza sistemako ikastetxe guztietarako finkatutako helburu komunekiko hobekuntzarako aukerarik handiena duen hizkuntzari (edo hizkuntzei) lehentasuna eman dakion, gainerako oinarrizko hezkuntza-kompetentziekin erabiltzen den logika bera erabiliz.*

Azken urteotan zehar ikastetxeek, Berritzeguneen laguntzaz, hizkuntza proiektua gauzaten ihardun dute, eta horrek helburuei eta metodologiari buruzko gogoeta sakona eskatzen du. Ikusmolde komunikatiboa ez da erabat errotu hizkuntzak irakasteko erabiltzen ditugun metodoetan, hainbat kasutan oraindik ikasketa gramatikaletan oinarritzen baitira.

Hezkuntza Marko Hirueledunari esker sendotzen ari den beste alderdi bat *irakasleen* atzerriko hizkuntzetako *prestakuntza* da. Hasiera batean, Sailaren xedea proiektuan parte hartzen duten ikastetxeetan ingelesezko gaitasuna duten irakasle nahikoak egotea bermatzea da, eta hizkuntza ofizialetan duten didaktika-gaitasuna indartzea.

Curriculuma irakasteko marko hirueleduna hezkuntza sistema osora zabaltzeari begira, Kontseiluak irizten du irakasleen ingelesezko prestakuntza beharrak askoz handiagoak direla gaur egun dauden baliabideak baino.

(P18) Hori dela eta, Kontseiluak jakintza-arlo bat bigarren edo hirugarren hizkuntza batean irakasteko konpromisoa hartzen duten irakasle guztiei parte hartzeko aukera ematen dieten prestakuntza formulak azter ditzan eskatzen dio Sailari. Formula horiek, eraginkortasun handiagoa lortzearen, gaur egun dauden erakunde-baliabideak erabili beharko lituzkete, eta aldi berean parte hartzeko baldintza erakargarriak eskaini beharko lituzkete.

Baliabideen beste alderdi bati gagozkiola, hizkuntza bateko gaitasuna erabilerari lotu-loturik doa, eta, beraz, ahozko gaitasuna indartzen duten jarduerak bermatu behar dira, jarduera horiek planifikatzearen bidez eta talde txikietako lanen bidez.

Aldi berean, ikasle guztientzako gutxieneko maila komunak lortzeko helburuari lehentasuna eman nahi badiogu, maila sozio-ekonomiko baxuko edo ertain-baxuko ikasleak matrikulatzen dituzten ikastetxeei arreta handiagoa eta baliabide osagarriak eskaini behar zaizkie.

(P19) Ondorioz, Kontseiluak, hizkuntzen etorkizuneko markoaren plangintza egiterakoan, kalitate handiko hezkuntzak aurrekontuetan izan dezakeen eragina kontuan izan dezan eskatzen dio Sailari, kalitateko hizkuntzak askotariko baliabideak eskatzen baititu: elkarrizketa-irakasleak, hizkuntzen didaktikako ikastaroak eta baliabide gehiago ISEK indize apaleko ikastetxeentzako.

Ikastetxeek 2010-11 ikasturteko hasierako deialdiari eman dioten erantzuna aztertzen badugu, eskabideen murrizketa ekarri duten bi elementu izan direla ikus daiteke: alde batetik, deialdiaren estutasuna, parte hartzea erabakitze oso epe laburra ematen baitzuen, eta, aldi berean, Klaustroaren eta Kontseiluaren akordioak eskatzen baitzituen. Beste alde batetik, D ereduko ikastetxe askoren iritziz, hizkuntzaz aparteko arlo bat gaztelaniaz irakasteko eskakizuna ez zegoen justifikaturik beren ikasleen gaitasun-maila kontuan izanik.

Hondo-irudi gisa, hizkuntzen auziak oso argi islatzen du Euskadiko gizarteak nola proiektatzen dituen bere helburuak hezkuntza sistemaren gainean. Gizarte heldua da, gehiengoan gaztelaniazko elebakarra, belaunaldi batean edo denbora tarte apur bat luzeagoan hirueledun funtzional bihurtu nahi duen gizartea, horretarako tresna ia bakar bezala hezkuntza sistema erabiliz.

Izan ere, oso herrialde gutxitan erabiltzen dira hiru hizkuntza derrigorrezko eskolaldi osoan zehar, eta erreferentziatzat har litekeen inongo herrialde ezagunean ez dira erabiltzen hemen haien artean duten hizkuntza-distantzia handiarekin.

Beste alde batetik, gure hezkuntza sisteman dauden hizkuntza-aukerak irizpide ideologikoekin interpretatzen dira, eta interpretazio horrek zaildu egiten du, itxaropenen tamaina kontuan izanik, ezinbestekoak diren helburu argiak eta komunak finkatzea.

Hori guztia dela eta, Euskadiko Eskola Kontseiluak gure hezkuntza sistemako agente sozial eta politiko guztiei dei egiten die herritarren hizkuntza-gaitasunen auzia ikuspegi zientifikotik eta akordioetara heltzeko asmoarekin azter dezaten, eta, baita ere, gaitasun horiek gizartean garatzerakoan erantzukizunak zentzu zabalean hezkuntza-agente guztien artean bana ditzaten, komunikabideetatik hasita.

Bizikidetza demokratikoa eta indarkeriari legitimazioa kentzea (2010–2011) plana dela eta, Kontseiluak atsegin handiz ikusten du ikastetxeek bizikidetza planak egiten eta gauzatzen jarraitzen dutela, ikuspuntu guztiak eta interes guztiak kontuan hartzen dituzten prozeduren bidez ikastetxeko partaide guztiak hezteko gune komun bat aurkitzeko asmotan.

Kontseiluak atsekabez ikusten du, planaren birformulazioaren inguruan sortutako eztabaidan, iritzi publikoan ikastetxeek ikasleen gizarterako konpetentziak garatzeko erabiltzen dituzten prozedurei buruzko uste okerrak sortu izana. Sarritan, bakea edo bizikidetza bezalako balioen izenean, aldarrikatutako balioekin bat ez datozen jarrerak edo portaerak adierazi dira.

Kontseiluak pozez ikusi du planean azkenean proposatu diren garapen-lerroek ikastetxeetako aurretiko esperientziei segida ematen dietela eta baliabide eta aholku multzo bat eskaintzen dutela, batez ere planak ekiten zion arazo garrantzitsu bati buruz: gatazketako biktimen lekukotasunak, eta gure gizarteko biktima eta pertsona baztertu guztien lekukotasunak testuinguru egoki batean izan dezakeen balio hezigarria.

Euskadiko Eskola Kontseilua planaren gauzapenerako sortu diren organoetan – Aholku Batzordea eta Bizikidetzaren Behatokia– ordezkaturata dago, eta organo horien hasierako emaitzak ezagutzen dituenean, ikastetxeetako bizikidetzaren egoera eta egindako lanaren emaitzak hobeto ulertu ahal izango ditu.

Gaiari bukaera emateko, Euskadiko Eskola Kontseiluak berriro azpimarratu nahi du agente sozialen eta erakundeen arteko elkarlanak zenbait balio positibo (justizia, elkartasuna, enpatia eta errukia) sustatzeko duen garrantzia, herritarrek balio horiek onartuko dituztelakoan.

Irakasleen hasierako prestakuntzari dagokionez, Kontseiluak oso egokitzat jotzen du ikasketak zabaltzen eta profesionalizatzen dituen unibertsitate ikasketen marko berria.

Irakasleen hasierako prestakuntzaren marko berria konpetentzien garapenean oinarritzen da, eta markoa behar bezala ezartzeak ikasteko eta egokitzeko denbora bat eskatzen du unibertsitateko erakundeen aldetik.

Gradu berriek ordezkatu dituzten marko arau-emailea eta ikasketetako esperientzia oso ezberdinak dira unibertsitate batetik bestera, eta horrezaz gain,

egitura-elementuak aurreikusteko eta behar berrietara egokitzeko gaitasuna, bereziki irakasleei dagokielarik.

Ondorioz, eskolak ahalegin handia egiten ari dira marko berria bereganatzeko – hasierako fasean tituluen diseinuan– eta jarduteko prozedura berriak ikasteko, baina intentsitate eta parte hartze maila ezberdinekin. Titulu berriek irakasleen elkarlana eskatzen dute zenbait kompetentzian. Aldatzeko borondatea antzematen da; eskola handietan irakasle talde txikiak ari dira lanean modulu bat ezagutzaren askotariko ikuspegietatik garatzeko zeharkako kompetentzien bidez.

Estatuko erakunde batzuen txostenak titulu berrien (gradu zein master) diseinua baloratzeko hiru elementu finkatzen ditu, lehen aipatu den bezala:

- a) Oinarrizko kompetentzien presentzia zehaztea
- b) Irakasleek, Gradu eta Masterreko jakintzagaien eta irakasgaien diseinua egiterakoan eta beren irakaslanean, talde lana egin duten eta diziplinarteko ikuspegia erabiltzen duten jakitea, kompetentziak garatzeko benetako paradigma osatzeko.
- c) Masterreko eta Gradu jakintzagaiak irakasten dituzten irakasleek beren irakaslana oinarrizko kompetentzien paradigmaren arabera egiten duten jakitea.

Irakasmaita bakoitzeko irakaslea izateko gaitzen duten tituluei lotutako kompetentzien zerrenda aztertzen bada, praktiketako irakaslegaiak hartzen dituzten ikastetxe batzuek aurretiaz antzemanda zituzten zenbait eskasari erantzuna ematen zaiela ikus daiteke diseinuan. Izan ere, Lehen Hezkuntzan garatu beharreko alderdi bezala honako hauek azpimarratu zituzten:

- Ikastetxearen antolamendu orokorra eta, baita ere, talde-lanerako eta koordinaziorako estrategiak ezagutzea.
- Teknologia berrien erabilera pedagogikoa.
- Hezkuntza sistemaren egitura ezagutzea: Berritzeguneak, talde multiprofesionalak, proiektuak...
- Kompetentziak eta konpetentziak garatzeko prozedurak ezagutzea.
- Hezkuntza emozionalaren arloa.
- Jarreraren esparruan, ikastetxeko proiektu eta jardueraren orokorretan parte hartze urria antzematen zen.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariei galdetu zaienean, master berrien diseinuarekin ados daudela adierazi dute, eta, baita ere, honako hauen inguruko edukiak indartu beharra:

- Psikologia, pedagogia eta didaktika
- Tutoretza eta orientazioa
- Erreferentziazko eredu pedagogiko berritzaileak

Eduki horiek kontuan izanik, masterretan garrantzi estrategikoko helburuak hauek izan beharko lirateke:

- Ikasgelako aniztasunari erantzuna ematea
- Berriazko jakintzagaiari dagozkion lan-metodologiak menperatzea
- Ikastetxeko bizikidetza planifikatzea, eskola giro egokia lortzeko.

(P20) Oro har, Euskadiko Eskola Kontseiluak oso garrantzitsutzat jotzen ditu irakasle gradu eta master tituluen planek diseinuan dituzten hobekuntzak, eta dei egiten die unibertsitate eskolei gogo berritzailearekin lanbide-kompetentzien paradigma berrira egoki daitezen. Horrezaz gain, hezkuntza administrazioari eta unibertsitate eskolei beraiei eskatzen die curriculum diseinu berriak progresiboki abian jartzeko behar diren baliabideak gara ditzaten.

Practicumari dagokionez, aipatutako alderdi interesgarriez gain, titulu baterako zein besterako praktikak egin behar dituzten irakaslegaien kopurua asko handitzen da, ikastetxeetan eman beharreko denbora orokorrarekin gertatzen den bezalaxe.

Plan berria oso-osorik aplikatzen denean, ikasturte guztietan batez beste 3 hilabetetan zehar Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduko 4.000 irakaslegai inguru praktikak egiten egongo dira, eta horrek esan nahi du milaka tutore arituko direla lanean ehunka ikastetxeetan, gutxienez 5 unibertsitate eskoletako ehunka irakaslerekin koordinaturik.

(P21) Aurretik egindako eskari bat errepikaturik, Kontseiluak irizten du praktikaldia luzatzeak irakaslegaien prestakuntza-eskolen eta ikastetxeen arteko koordinaziorako, prestakuntzarako eta ebaluaziorako egitura bat sortzea eskatzen duela, bertan Administrazioaren prestakuntza eta ebaluazio organoek parte hartzen dutelarik. Halaber, irakaslegaien ordezkariak ere parte hartzea bermatu beharko litzakete.

Bigarren Hezkuntzako irakasle masterretako Practicumerako ikastetxeak irakasle-tutoreak aitortzea arautzen duen Aginduari dagokionez (EHAA, 2010/09/24), Kontseiluak emandako irizpenean helburuekiko bere adostasuna adierazi zuen eta, bestalde, bere zalantzak deialdira ikastetxe eta irakasle nahikorik aurkeztuko ote zen, arrazoia, besteak beste, deialdiaren eragingarri-sistema zelarik.

Kontseiluaren iritziz, bai Practicumaren auzirako bai hasierako lan-urteetako lanbide-hobekuntzarako –lehen kasuan, aipatutako aginduak eta Estatuko legeak xedatzen duten bezala–, hezkuntza administrazioek ikastetxe batzuk gaitu behar dituzte, bertan irakaslegaien prestakuntza ahalik onena izan dadin sistemaren baliabideak kontuan izanik.

(P22) Ildo horretatik, Kontseiluak uste du jarduera egokiak gauzatzen dituzten ikastetxeak aitortzeko unea heldu dela, eta horretarako Sailari eta ikastetxeen eta irakasleen elkarreei eskatzen die ikastetxe batzuk irakasleen hasierako

prestakuntzan modu esperimentalean laguntzaile bezala aitortzeko modua azter dezaten.

Ikastetxeak hautatzerakoan –hasierako deialdian edo izendatze-prozesuan 100 baino gehiago izan beharko lirateke, praktikan ari diren graduiko ikasleen parte handi bat hartu nahi bada–, Kontseiluaren iritziz honako irizpide orokor hauek hartu beharko lirateke kontuan: ikastetxeak intereseko berariazko proiektuak gauzatu egin duen ibilbidea edo ebaluazio diagnostikoan behin eta berriro lortutako emaitza onak. Horrez gain, Kontseiluak uste du printzipio batzuk kontuan hartu beharko liratekeela, hala nola, inklusioa edo ekitatea, bikaintasuna edo emaitzak onak guztientzat, eta eraginkortasuna baliabideetatik emaitzetara pasatzean (ikastetxeen adierazleak 3.8 eranskinen aipatzen dira)

Ikastetxeetako praktiketako irakasle-tutoreei dagokienez, oraindik ez dute berariazko prestakuntzarik jaso, eta ez dute lan hori egiteko denborarik izan. Gainera, ikastetxeetan tutoretza hori burutzeko prozedurak falta dira. Laburbilduz, profesionaltasun falta antzematen da, norberaren ahalegin handiarekin eta irakasteko gaitasun handiarekin ordezkatu dena, praktiketako irakaslegaiak tutoreei buruz egindako balorazioari begiratzen badiogu.

Kontrapuntu gisa, praktiketako irakaslegaiak jardura batzuetan irakasle-tutorearen benetako laguntzaile bihurtzen da, eta horren ordainez, oso kalifikazio altuak lortzen ditu. Titulazioak ematen dituzten unibertsitate eskoletatik bertatik adierazten denez, praktikaldiaren ebaluazioan akats bat dago, egitura faltarekin bat datorrena. Egitura falta horren barruan unibertsitateko tutorek eta ikastetxeko tutoreak praktiketako irakaslegaien ebaluaziorako partekatu beharko lituzketen irizpideak falta dira.

Kontseiluaren iritziz, ikastetxeetan hasierako prestakuntzarako egitura hori ikastetxeetan antolatzea ezinezkoa da ikastetxeentzako eta irakasleentzako sustapen-neurriak jasotzen dituen aurrekontu bat egokitu gabe.

(P23) Aurretik egindako eskari bat berriro eginez, Euskadiko Eskola Kontseiluak ezinbestekotzat jotzen du ikastetxeentzako ordu-ordainak eta irakasle-tutoreentzako diru-pizgarriak finkatzea, tutoretza-lanetan emandako eta egiaztatutako denborak irakasleen lan baldintzei buruzko Erabakiko gutxienezko jardura gainditzen duen heinekoak eta lan horretarako eskatzen den kalifikazio altua kontuan hartzen dutenak.

Kontseilua halaber Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle graduiko ikasketetako Practicum arautzen duen legearen zain dago, 2010-11 ikasturtean plan berriarekin hasiko baita eta hurrengo hiru ikasturteetan praktikak ikastetxeetan gauzatu beharko baitira.

Marko horren barruan ere, unibertsitateen eta ikastetxeen arteko erlazioen esperientzia ez da behar bezain ona izaten, oro har, erakunde batetik bestera alde handia dagoela egiaztatu ahal izan den arren. Batzuetan erlazio bikoitza izaten da,

aurrez aurre eta telefonoz, unibertsitateko eta ikastetxeko tutoreen artean; beste zenbait kasutan, unibertsitate eskolak ate irekietako jardunaldiak antolatzen ditu ikastetxeetako zuzendarientzako.

Proposatutako koordinazio-egituraren barruan, Kontseiluak uste du praktiketako irakaslegaiak hartzen dituzten ikastetxeek unibertsitate eskolekin komunikatzeko eta informazioa trukatzeko prozeduren diseinuan parte hartzeko aukera izan behar dutela, eta baita prozesu horien funtzionamendua ebaluatzeko aukera ere.

Bi erakundeetako tutoreek partekatzen dituzten lanei dagokienez, biek azpimarratzen dute irakaslegaientzat berrikuntzarako, didaktikarako eta antolamendurako konpetentzia handiko irakasleen ekarpenak aurrez aurreko esperientzian duten garrantzia.

(P24) Ildo horretatik, Kontseilua bat dator hezkuntza-agenteen proposamenarekin, hau da, oso interesgarria litzateke, bere ustez, Hezkuntzako irakasle graduatan eta masterretan ikastetxeetan gaur egun lanean diharduten irakasleek irakastea.

Hobetu eta garatu beharreko beste alderdi bat Graduaren bukaerak oproiektuetatik sor daitekeen lankidetzarako bide berria da, hasierako prestakuntzan orain arte ez bazeuden ere, etorkizunari begira ahalmen handikoak izan baitaitezke.

(P25) Ikerlan partekatuei dagokienez, Kontseiluak ikerketa eta berrikuntza proiektuetarako deialdi publiko berezien beharra ikusten du, ikastetxeak eta unibertsitatea elkarrekin aurkeztu ahal izan daitezen.

Azkenik, Kontseiluak irakaskuntzarako prestakuntzaren lehen zatia lehen lan-jarduera bezala kokatu nahi du, ikerlanek erakutsi dutenez, irakasleak askotariko ikaste eta irakaste-prozesuetan duen rola taxutzeko berebiziko garrantzia duelako. Hemen aztertzen ari garen gaia kontuan izanik –oinarrizko hezkuntza konpetentziak eta lanbiderako konpetentziak–, irakasleak prozesu horietan duen rolaren taxutzea oso garrantzitsua da.

Lehen lan-praktikari loturik, LOEren 101. artikulua honela dio: “ikastetxe publikoetan irakaslanean ematen den hasierako ikasturtea esperientzia handiko irakasleen tutoretzapean gauzatuko da”. Ikastetxeetako zuzendariak neurri hori abian jartzea eskatu dute, eta horrekin batera, tutoretza figura hori praktiketako tutoretzarekin lotu dadin”.

Bistan denez, tutoretza hori arautzeak zailtasun handiak ditu, irakaspostuak betetzeko oraingo sistema kontuan izanik. Ikastetxe batean lor daitekeen lehenengo lanpostua iraunpen aldakorreko ordezkapenen bidez izaten da, zenbaitetan denbora luzean itxaron ondoren; egoera horretan zaila izaten da irakaslegai bakoitzari behar bezalako arreta eskaintzea eta antolatzea, aldi berean ikastetxeetako plangintzen barruan egituratzen ez bada.

Zentzu zabalagoan, gure erkidegoan garai batean maiz erabili zen eta, beraz, berria ez den planteamendu bat, *Irakasle berrientzako Harrera Plana* alegia, kontuan har daiteke. Ikerlanik berrienak aztertu ondoren, plan horietarako honako helburu hauek finkatu dira:

- Praktiketako irakasleei eta irakasle berriei erakundeetatik laguntza-egiturak eta partaidetza-foroak eskaintzea beren prestakuntza-prozesuak ebaluatu ahal izateko (aldizkako bilerak, kasuen analisia, prestakuntzari buruzko mintegiak ikastetxeetan, irakaslanaren analisiari buruzko lan-saioak, irakasle berrientzako material didaktikoak sortzea...).
- Ikastetxeko irakasle berrien prestakuntzarako koordinazioa ezartzea, mintegi buruekin, ikasketa buruekin eta abarrekin elkarlanean.
- Irakasle berriek ikastetxeko organu kolegiatuetan parte har dezaten bultzatzea.

(P26) *Praktiketako ikastetxeak aitortzea eta titulazio berrietako Practicumak gauzatzeko erakundeen arteko koordinazioa dela eta, Kontseiluak ikastetxeak Irakasle berrientzako Harrera Plana egitera bultzatu nahi ditu, irakasle berriek ikastetxeko irakaste-estiloa, metodologia, parte hartzeko, koordinatzeko eta curriculumak integratzeko egitura formalak eta ez-formalak ezagut ditzaten.*

Kontseiluak Sailari proposatzen dio irakasleen hasierako prestakuntzak une honetan duen garrantzi handia kontuan izan dezan, eta horretarako berrikuntza estrategikoaren lerro bezala har dadin eta antolamenduaren aldetik eta aurrekontuaren aldetik behar bezala hornitu dadin.

4. ATALA. HEZKUNTZA SISTEMAREN FINANTZAZIOA ETA BALIABIDEAK

2008. urtetik, finantza sistemaren erorikoak eragindako ekonomia sistemaren krisialdi orokor eta sakonean sarturik gaude, merkatuak egoki arauturik ez zeudelako eta, estatu mailan, etxegintzaren garapena ez zelako jasagarria.

Ondorioz, garapen ekonomikoa moteldu egin da, eta erakunde publikoek oinarrizko gizarte zerbitzuak, hezkuntza barne, eskaintzeko behar dituzten baliabideak murriztu egin dira.

Atalaren lehen azpiatalean arazoa azaltzen duten zenbait aldagai ekonomiko gure inguruneri begira kuantifikatzen dira, Euskadi, Espainia eta Europako estatistika erakundeek (EUSTAT, INE eta Eurostat) argitaratutako informazioan oinarriturik.

Jarraian, 2008-2010 biurtekoan hezkuntzara xedatutako aurrekontu publikoen bilakaera aurkezten da, ikastetxe pribatuekiko ituna barne delarik. Egindako gastuari dagokionez, Ekonomia eta Ogasun Sailaren informazioa bildu da eta baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena ere. Hezkuntzako gastuaren estatistikari buruzko informazioa geroago sartuko da, behin ikastetxe publikoetako 2009ko informazioa eskuragarri dagoenean. 2011ren bukaerarako argitaratuta egotea espero da. Estatistika honetan finantziario publikozko beste iturri batzuk jasotzen dira, udalak bereziki, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen mantenua, garbiketa eta zaintza haien gain hartzen dutenak.

Eskuragarri dagoen informazioan oinarriturik, 3. azpiatalean sare publikoko irakasle plantilen egoera aztertzen da. Atala bukatzeko, aurretiaz deskribatutako testuinguruaren barruan egin daitezkeen balorazioak eta proposamenak aurkezten dira. Kontseiluak ez du jaso itunpeko ikastetxeetako plantilei buruzko informazio garrantzitsurik.


4.1. Testuinguru sozio-ekonomikoa

Erakunde publikoek gure hezkuntza sistemaren finantziario-mailak mantentzeko sor dezaketen baliabideen bolumena kontuan harturik, lau aldagai neurtu dira: hazkunde ekonomikoa, (BPG) barne produktu gordinaren bidez adierazia; langabezia; fiskalitatea eta zor publikoa.

4.1.1. BPGaren bilakaera Euskadin


Euskadin biztanleko aberastasuna Europako herrialdeen artean handienetakoa da, 2010eko datuen arabera batez bestekoa baino % 37 handiagoa, aurretik Luxenburgo bakarrik duelarik.

BPGa biztanleko Europako herrialdeetan erosteko ahalmenaren parekotasun unitateetan. 2010 (UE-27=100)




Biztanleko BPGari dagokionez, Espainia (101) ia Europako batez bestekoan (100) dagoenez, Euskadik, Estatuko gainontzeko autonomia erkidegoekiko konparazioan ere, bere lehentasunezko toki mantentzen du.

BPGa biztanleko Espainiako autonomia erkidegoetan erosteko ahalmenaren parekotasun unitateetan. 2010 (UE-27=100)



2008ko krisialdiaren aurreko 12 urteetan, Euskadiko ekonomia igotzen joan zen, % 10 baino gutxiagoko diferentzial batetik hasita; aldi hartan zehar Europako ekonomiekiko aldea % 30 hazi zen eta Estatuko autonomia erkidegoekikoa, % 10 inguru hazi zen.


Biztanleko BPGaren bilakaera erosteko ahalmenaren parekotasun unitateetan. (UE-27=100)



Hori gure ekonomiaren hazkunde handiagoren isla da, BPGaren igoera tasa 2005etik 2007ra bitartean % 4koa edo handiagoa izan baitzen. 2010ean izan zen lehenengo susperraldian, berriz, igoera tasa % 0,3koa izan zen, eta horrek, kontinenteko ekonomia nagusiek (Alemania buru) erkatutik, ahultasun estrukturala islatzen du.

BPGaren bilakaera azken hamarraldian zehar (urtetik urterako gehikuntza)

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Europar Batasuna (27)	% 2,1	% 1,4	% 1,5	% 2,7	% 2,2	% 3,5	% 3,2	% 0,7	% -4,1	% 1,8
Espainia	% 3,6	% 2,7	% 3,1	% 3,3	% 3,6	% 4,0	% 3,6	% 0,9	% -3,7	% -0,1
Euskadi	% 3,2	% 2,3	% 3,1	% 3,6	% 4,0	% 4,4	% 4,2	% 1,3	% -3,8	% 0,3




4.1.2. Langabeziaren bilakaera Euskadin

Zerbitzu publikoen finantziazioaren ikuspuntutik, langabeziak beste gizarte zerbitzu batzuei esleitu ahal zitzaizkien baliabideak erabiltzen ditu. Gizarte eta giza ikuspuntutik, langabezia estrukturalak eragin kaltegarria du haurrek eta nerabeek familian duten hezkuntza-egoeran, eta gabezia horiek hezkuntza sistemak konpentsatu behar ditu.

Ekonomiaren ikuspuntutik, lanpostuak sortzea logikoki ekonomiaren bilakaerarekin lotu-loturik dago; gaur egun erabiltzen den interpretazio-ereduaren arabera, termino garbietan, lanpostu berriak sortzeko ekonomiaren urteko hazkundeak BPGaren terminoetan % 2koa baino handiagoa izan behar du.

Ondorioz, langabeziak Euskadin aurreko urteetan % 3 inguruko tasa baxua izan bazuen ere, 2008. urtetik, eta 2009. urtetik bereziki, ekonomia % 3,9 uzkurtu zen urtetik, handitzen joan da, 2010. urtean % 9 gainditu arte —Europako batez bestekoan, Espainiakoaren nahiko azpitik—, eta goranzko joera duelarik.




4.1.3. Euskadiko herri administrazioen diru-sarrerak

Euskadik zerga tasak finkatzeko eta administrazioetako aurrekontuei eusten dien zerga bilketa finkatzeko abantaila bat du, kontzertu ekonomiko, alegia. Hala eta guztiz ere, kontzertu ekonomikoak Estatuko gainontzeko sistemetatik bereizten duen arren, espainiar ekonomiarekin ezaugarri erkide bat ere badu, sortutako errentaren eta metatutako ordareen gaineko zerga tasa baxua alegia. Joan den hamarraldian izan den ekonomia ziklo hedakorren azken urteetan zehar, jarduera ekonomiko sustatzeko argudioaz zerga tasaren jaitsiera bat izan da, eta ondorioz, erakunde publikoek eskuragarri dituzten baliabideen eta sortutako aberastasunaren arteko ratioa –zerga ratio orokorra– Espainian, eta Euskadin bereziki, Europako baxuenetakoa da.


2008ko datuetan oinarriturik, Europako batez besteko presio fiskala % 40koa baino handiagoa da, Espainiakoa, % 34koa, eta Euskadikoa % 32koa baino baxuagoa. Europatik aldentzen gaituen 8 puntuko alde hori hezkuntzako inbertsio edo gastu publiko guztiaren bikoitza da, gure kasuan gastua, geroago ikusiko den bezala, ez baita % 4ra heltzen.

Presio fiskal orokorra Europar Batasunean, BPGaren ehuneko bezala adierazita. 2008. urtea




Zerga biletaren bilakaerak ekonomiaren gorabeherak areagoturik islatzen ditu. Hartara, 2009. urtean Euskadiko BPGa % 3,8 jaitsi zen, eta urte hartan zerga bilketa orokorrak % 15,9ko jaitsiera izan zuen; BPGak 2010. urtean izan zuen susperraldi arinari (% +0,3) zeharkako zergak, funtsean BEZa, igotzearen ondorioz diru sarreraren % 8,4ko gehikuntza orokorra egokitu zitzaion.

Zerga itunduen bilakaera Euskadin (milioi €tan)



Termino absolutuetan, 2007an Euskadin zerga itunduen bilketa osoa 13.772 milioi eurotara iritsi zen, itxitako azken bi ekitaldiotan, 2009an eta 2010ean, diru sarrera publikoak 10.792 eta 11.700 milioi eurokoak izan ziren hurrenez hurren.


Zerga itunduen zenbateko orokorra Euskadin (milioi €tan)



4.1.4. Herri administrazioen zorrak


Herri administrazioetan zorpetzea oso ohiko jarduera izan da betidanik. Metatutako zorraren bolumenak BPGaren % 100 gainditzen du zenbait herrialdetan, adibidez Grezian eta Italian 2009ko datuen arabera, eta beste herrialde batzuk (Estatu Batuak, Frantzia, Portugal eta Irlanda) ehuneko horretatik gertu daude. Espainiako zorra bere BPGaren % 60 baino handiagoa da.

Beste alde batetik, aldagai hori handiarazten duen magnitudea aurrekontuko defizita da, eta Europako agintariak euroguneko herrialdeetan magnitude hori 2012. urterako % 3ra jaistea erabaki dute. Bi faktore horiek eskakizun maila ezberdinetan konbinatu ondoren, zenbait herrialdek (Grezia, Irlanda, Portugal, eta hein txikiagoan Italia eta Espainia) gastu publikoa murriztu egin behar izan dute zergen bidezko diru-sarrerak handitu gabe. Aldi berean, zorraren merkatuen presioak gero eta garestiago bihurtzen du finantziazio bide hori.




Euskadiren kasuan, ekonomiaren eta zerga bilketaren portaera egokiak Euskadiko erakundeen zorra oso maila apalean mantendu dute 2007. urtera arte. 2009 eta 2010eko ekitaldietan, berriz, arestian aipatutako zergen bidezko diru-sarreraren murrizketa konpentsatu ahal izateko, zorpetzera jo behar izan dute, metatutako zenbatekoa 4.000 milioi eurokoa izan delarik.

Euskadiko herri administrazioek metatutako zorra. 2000-2010 aldian (milioi eurotan)




Termino konparatiboetan, 2010ean metatutako 4.916 milioiak gure BPGaren % 7,5 dira, Espainiako autonomia erkidegoetako batez bestekoa % 11,1 delarik.

Euskadiko zor publikoa eta autonomia erkidegoetako batez bestekoa BPGaren ehunekoetan. 2002-2010 aldiko bilakaera.




Egoera urrun samar dago estatuko batez bestekotik eta bereziki kanpotiko finantziario maila handiagoa duten erkidegoen egoeratik, zenbait kasutan (Valentzia, Katalunia, Gaztela-Mantxa, Balear uharteak) zorra bertako BPGaren % 15 baino handiagoa baita.

BPGaren ehunekoetan zorrik handiena duten 5 autonomia erkidegoak. 2007-2010 aldiko bilakaera



Hala eta guztiz ere, Euskadik arlo horretan zuen abantailazko tokia galdu egin du, eta gaur egun Kantabria, Madril edo Asturiaseko erkidegoek baino zor handiagoa du.

BPGaren ehunekoetan zorrik txikiena duten 5 autonomia erkidegoak. 2007-2010 aldiko bilakaera



Edozein modutan ere, aurrekontuen orekaren aldeko akordio berriek ezinezko egiten dute epe laburrean eta, batez ere, epe ertainean zorrik zenbateko handian hartzea.

4.2. Hezkuntzaren finantziazioa Euskadin

Azpiatal honetan Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan hezkuntzako gastuaren kontu-sailik nagusienak aztertzen dira, bai erkidegoko aurrekontu orokorretan zehazten direnak (hasierako aurrekontuak), baita bukaeran gauzatzen direnak ere (betearazitako aurrekontuak).

Sarrera gisa, hezkuntzako gastuari dagokion aldagai estandar bat erabiltzen da bertoko aurrekontu-ahalegina Europako beste herrialdeetakoekin konparatu ahal izateko.

4.2.1. Gastu publikoa hezkuntzan BPGaren ehunekoetan

ELGAK hezkuntzako gastua neurtzeko erabiltzen dituen adierazleek kasuan kasuko herrialdeko hezkuntzako gastua eta herrialdeko aberastasuna erlazionatzen dituzte, BPGaren ehunekoetan adierazirik. Euskadin, Eustatek *Hezkuntzaren Kontua* agirian eskainitako azken neurketa 2007koa da, eta gastu orokorrari dagokionez, beheranzko joera arina adierazten du, bai herri administrazioek egin duten gastuan baita familiek egindako gastuan ere. 2001. urtetik 2007. urtera bitartean guztizko gastua 3 hamarrenez jaitsi da, BPGaren % 4,9tik % 4,6ra pasa delarik.


Hezkuntzako gastuaren osagarririk garrantzitsuenari dagokionez, finantziazio publikoa aldi horretan egonkor mantendu da % 3,7ren inguruan.

Hezkuntzaren finantziazio publikoan eta pribatuan erabilitako BPGaren ehunekoa Euskadin 2001-2007 aldian. Eustat (Hezkuntzaren kontua)

	2001		2003		2005		2007	
	(milioi €)	BPG %	(milioi €)	BPG %	(milioi €)	BPG %	(milioi €)	BPG %
BPG (milioi eurotan)	43.931	--	49.242	--	57.289	--	66.427	--
Hezkuntzako guztizko gastua	2.145	% 4,9	2.387	% 4,8	2.661	% 4,6	3.087	% 4,6
Finantziazio publikoa	1.681	% 3,8	1.859	% 3,8	2.120	% 3,7	2.468	% 3,7
Finantziazio pribatua	464	% 1,1	527	% 1,1	541	% 0,9	620	% 0,9

Europar Batasuneko gainontzeko herrialdeetako ehunekoekin konparaturik, balio hori baxua da, Europako batez bestekoa 2006. urtean % 5 izan baitzen. Espainiak 2006an % 4,28 erabili zuen (2008an, % 4,6), autonomia erkidegoen artean alde handiak badaude ere.

Hezkuntzako gastu publikoa BPGaren ehunekoetan Europar Batasunean. 2006. urtea.



4.2.2. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuak.

Hezkuntzako 2008ko, 2009ko eta 2010eko aurrekontua Euskadiko aurrekontu orokorren ildo betetik doa, eta horiek hasierako atalean deskribatutako krisialdi ekonomikoaren ondorioak atzerapen txiki batez adierazten dituzte.

4.2.2.1. Hasierako aurrekontua eta betearazitako aurrekontua

Eusko Jaurlaritzaren betearazitako aurrekontuetan 2008. urtean gastuaren euspina izan zen, zerga-bilketaren jaitsieraren hasierako sintomekin ados zetorrena. Hala eta guztiz ere, 2009. urtean diru sarreren jaitsiera handia izan zen arren,

gehikuntza nabaria gertatu zen (% 10,6) betearazitako gastuan, zorpetzearen ondorioz. Azkenik, 2010. urtean aurrekontua orekatu egin zen.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak (milioi €) eta urtetik urterako gehikuntza 2008tik 2010era

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Hasierako aurrekontua	9.940	10.487	10.315	% 5,5	% -1,6
Betearazitako aurrekontua	9.317	10.304	10.327	% 10,6	% 0,2
Betearazpena %	% 93,7	% 98,3	% 100,1		

Era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2009an aurreko urteetako joera mantendu zuen, hasierako aurrekontukoa baino gastu handiagoa (% 8,3) betearazi zuelarik eta aurreko ekitaldiarekiko % 10,6eko benetako hazkundearekin.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuak (milioi €) eta urtetik urterako gehikuntza 2008tik 2010era

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Hasierako aurrekontua	2.435	2.635	2.751	% 8,2	% 4,4
Betearazitako aurrekontua	2.589	2.860	2.784	% 10,5	% -2,7
Betearazpena %	% 106,3	% 108,6	% 101,2		

2010. urtean, Europar Batasunak, aurrekontuen oreka eta defizit publikoaren euspena zela eta, estatu kideei jarri zizkien mugen ondorioz, Espainiako gobernuak 8/2010 Errege Dekretuaren bidez funtzionarioen soldata-masa murrizteko neurriak arautu zituen. Euskadiren kasuan, 3/2010 legeak 2010erako aurrekontuen legea aldatu zuen. Legearen ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren guztizko gastua % 2,7 murriztu zen, 2009an 2.860 milioikoa izatetik 2010ean 2.784 milioikoa izatera pasa zelarik.

Ikasleko benetako gastua jakiteko zenbateko horiek bi faktoreekin doitu beharko lirateke:


- a) Inflazioa. KPIa 2009an% 0,3 igo zen eta 2010ean, % 1,7.
- b) Ikasle kopuruaren igoera, urtean % 3 ingurukoa.

Ondorioz, 2009an benetako gastua ikasleko 2008ko gastuarekiko % 6 igo zela esan daiteke, baina 2010ean aurreko urtekoarekiko % 7 inguru jaitsi zela.

Arestian esan den bezala, Eusko Jaurlaritzak 2010ean betearazitako aurrekontu orokorrak aurreko ekitaldikoarekiko aldaketarik izan ez zuenez, hezkuntzan izan zen jaitsiera Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurrekontu orokorrean parte hartze txikiagoa izan zuelako gertatu zen, % 27,0koa, azken hamarraldiko ehunekorik apalena hain zuzen ere.

Hezkuntza Sailak betearazitako aurrekontua Eusko Jaurlaritzak betearazitako guztizko aurrekontuarekiko (milioi eurotan)

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
Hezkuntza Saila	1.701	1.820	1.890	2.022	2.140	2.403	2.589	2.860	2.784
Eusko Jaurlaritzaz*	6.026	6.392	6.725	7.312	7.770	8.584	9.317	10.304	10.327



4.2.2.2. Aurrekontuaren banaketa kontu-sailetan

Aurrekontuen legeen arabera, 2009. eta 2010. urteetarako inbertsioek gehikuntza izan zuten, % 7,8koa eta % 4,4koa hurrenez hurren. Hala ere, gastuan alde handia izan zen bi kontu-sailen artean: alde batetik, administrazio publikoari dagozkion langile-gastuak (% 9,4), eta bestetik, parterik handienean itunpeko ikastetxeei dagozkien diru-laguntza arruntak (% 2,2).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hasierako aurrekontuaren bilakaera kontu-sailen arabera (mila €tan).

Kontu-saila		2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
1	Langile-gastuak	1.055.804	1.125.264	1.230.867	% 6,6	% 9,4
2	Funtzionamendu-gastuak	151.138	162.265	163.420	% 7,4	% 0,7
3	Finantza-gastuak	0	0	100	--	--
4	Diru-laguntza arruntak	1.074.610	1.131.593	1.156.241	% 5,3	% 2,2
6	Ikastetxe publikoetako inbertsioa	91.295	132.341	112.131	% 45,0	% -15,3
7	Kapitaleko diru-laguntzak	67.012	80.025	85.588	% 19,4	% 7,0
8	Langileen maileguak eta diru-aurrerapenak	4.808	3.410	3.000	% -29,1	% -12,0
Guztira		2.444.667	2.634.898	2.751.347	% 7,8	% 4,4

Benetako betearazpenari dagokionez, 2010ean jaitsiera ikusten da, handiagoa diru-laguntza arruntan kasuan (% 3,0; langile-gastuetan, % 1,2), beste kontu-sail batzuetan, ikastetxe publikoetako inbertsioa kasu, jaitsiera handia izan delarik. Bi urte haietan hazi zen kontu-sail garrantzitsu bakarra kapitaleko diru-laguntzak izan ziren, aipatutako bi urte haietan metatutako gehikuntza % 81,5ekoa izan baitzen.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontuaren betearazpenaren urtetik urterako bilakaera kontu-sailen arabera (mila €tan).

Kontu-saila		2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ↔10/09
1	Langile-gastuak	1.136.388	1.217.696	1.203.205	% 7,2	% -1,2
2	Funtzionamendu-gastuak	205.915	237.515	228.383	% 15,3	% -3,8
3	Finantza-gastuak	126	371	141	% 194,4	% -62,0
4	Diru-laguntza arruntak	1.089.191	1.175.606	1.140.801	% 7,9	% -3,0
6	Ikastetxe publikoetako inbertsioa	93.343	111.184	95.463	% 19,1	% -14,1
7	Kapitaleko diru-laguntzak	61.344	97.689	111.345	% 59,2	% 14,0
8	Finantza-aktiboen gehikuntza	2.864	20.429	4.302	% 613,3	% -78,9
	Guztira	2.589.172	2.860.491	2.783.639	% 10,5	% -2,7

4.2.2.3. Aurrekontuaren banaketa programen arabera.

Programen araberako banaketan, aldaketa batzuk, *Ikerketa* programari dagokiona esate baterako, diru horniduraren benetako gehikuntzak dira, beste programa batzuetan, berriz, (*Egitura eta laguntza* eta *Etengabeko ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza* programak kasu) sailkatzeko moduaren ondorioak dira.

Hiru programarik garrantzitsuenek (Haur eta Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Unibertsitate Hezkuntza), 2008tik 2009ra oso bilakaera ezberdina izan ondoren, murrizketa bat izan dute betearazitako aurrekontuetan, batez bestekoa baino apur bat handiagoa, % 3,1 eta % 3,7 bitartekoa.

Ekitaldiaren bukaeran betearazitako aurrekontuaren urtetik urterako bilakaera programen arabera (mila €tan)

Programa	2008	2009	2010	Δ 08/09	Δ09/10
Egitura eta laguntza	60.067	41.598	38.181	% -30,7	% -8,2
Haur eta Lehen Hezkuntza	934.102	1.100.557	1.066.889	% 17,8	% -3,1
Bigarren Hezk., Konpentsaziozko Hezk. eta Lan. H.	934.335	995.091	957.801	% 6,5	% -3,7
Unibertsitate Hezkuntza	329.661	368.662	356.518	% 11,8	% -3,3
Araubide Bereziko Hezkuntza	56.224	64.664	60.658	% 15,0	% -6,2
Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Prestakuntza	39.303	41.613	38.479	% 5,9	% -7,5
Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza	73.112	49.438	42.609	% -32,4	% -13,8
Hezkuntza sustapena	102.372	110.478	127.496	% 7,9	% 15,4
Sistemaren euskalduntzea	32.717	33.181	27.369	% 1,4	% -17,5
Ikerketa	25.377	43.354	47.162	% 70,8	% 8,8
Euskadi 2003/Euskadi Informazioaren gizartea	--	--	1.570	--	--
Berriztatzerako fondoa (2009)	--	11.855	18.908	--	% 59,5
Azpiegiturak eta OIBZ egiturak	1.900	--	--	--	--
Guztira	2.589.172	2.860.491	2.783.639	% 10,5	% -2,7

4.2.3.4. Unibertsitatez kanpoko hezkuntzako programak eta azpi-programak

- **Egitura eta Laguntza programa**

Programaren xedea hezkuntza administrazioaren egitura eta funtzionamendua finantzatzea da. 2009rako hasierako aurrekontuan murrizpen bat izan zen, komunikazioei eta informatika-aplikazioen mantentzeari zegozkien bi kontu-sail, biak batera 14,2 milioi, *Haur eta Lehen Hezkuntza* eta *Bigarren Hezkuntza* programetara pasa zirelako.

Egitura eta Laguntza programaren betearazpena (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ10/09
Betearazitakoa guztira	60.067	41.598	38.209	% -30,7	% -8,1
<i>Hasierako aurrekontua</i>	53.124	38.144	39.653	% -28,2	% 4,0
<i>Betearazpena %</i>	% 113,1	% 109,1	% 96,4		

- **Haur eta Lehen Hezkuntza programa.**

2009an gehikuntza handia izan zuen.

Haur eta Lehen Hezkuntza programaren betearazpena (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Betearazitakoa guztira	934.102	1.100.557	1.066.889	% 17,8	% -3,1
<i>Hasierako aurrekontua</i>	814.857	900.248	977.730	% 10,5	% 8,6
<i>Betearazpena %</i>	% 114,6	% 109,1	% 109,1	--	--

- **Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa programa**

Biurtekoan oro har, Lanbide Heziketan % 5eko jaitsiera izan da, DBHn eta Batxilergoan gehikuntza izan bada ere. Gehikuntzarik handiena Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Hastapena azpi-programan izan da.

Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa programaren eta azpi-programen betearazpena (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
DBH	299.343	330.421	314.327	% 10,4	% -4,9
Batxilergoa	335.237	353.474	352.630	% 5,4	% -0,2
Lanbide Heziketa	283.862	291.175	268.769	% 2,6	% -7,7
Konpentsaziozko Hezk., Lanb. Hast. eta beste batzuk	15.891	20.021	22.076	% 26,0	% 10,3
Betearazitakoa guztira	934.335	995.091	957.801	% 6,5	% -3,7
<i>Hasierako aurrekontua</i>	895.864	939.779	959.851	% 4,9	% 2,1
<i>Betearazpena %</i>	% 104,3	% 105,9	% 99,8		

- **Araubide Bereziko Irakaskuntzak**

2010ean kirol irakaskuntzak lehenengoz sartu ziren aurrekontuetan. Hizkuntzen irakaskuntzari dagokion zenbatekoa handitu egin da ekitaldi guztietan, hiru ikastetxe berri (Basauri, Tolosa, Zalla) sortu baitira. Arte irakaskuntzei dagokien zenbatekoaren gora beherak Bilboko Kontserbatorioa eraikitzeari loturik daude.

Araubide Bereziko Irakaskuntzak programaren eta azpi-programen betearazpena (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Arte irakaskuntzak (arte, musika)	35.015	41.291	35.157	% 17,9	% -14,9
Hizkuntzen irakaskuntza	21.210	23.373	24.348	% 10,2	% 4,2
Kirol irakaskuntzak	0	0	1.152	--	--
Betearazitakoa guztira	56.224	64.664	60.658	% 15,0	% -6,2
<i>Hasierako aurrekontua</i>	52.433	66.905	57.832	% 27,6	% -13,6
<i>Betearazpena %</i>	% 107,2	% 96,6	% 104,9		--

- **Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Etengabeko Prestakuntza programak**

Betearazpena Hezkuntza Saileko batez bestekoaren azpitik geratu da bi ekitaldietan, 2010ean % 7,5eko jaitsiera izan baita. Bi urte horietako betearazpen maila apala izan da, hasieran aurreikusitakoaren % 85era ez baita heldu.

2009. urtean, Irakasleen Prestakuntza programan izan zen jaitsiera Berrikuntzaren eta kalitatearen sustapena azpi-programa berriaren sorrerarekin orekatu da.

Hezkuntza Berriztatzea eta Irakasleen Etengabeko Prestakuntza programen eta azpi-programen betearazpena (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Irakasleen prestakuntza	10.843	7.539	6.148	%-30,5	% -18,5
Laguntza zerbitzuak (IVEI eta Berritzeguneak)	28.460	31.634	30.503	% 11,2	% -3,6
Berrikuntzaren eta kalitatearen sustapena	--	2.440	1.828	--	% -25,1
Betearazitakoa guztira	39.303	41.613	38.479	% 5,9	% -7,5
<i>Hasierako aurrekontua</i>	48.066	49.083	46.791	% 2,1	% -4,7
<i>Betearazpena %</i>	% 98,1	% 84,8	% 82,2		--

- **Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza programak**

Etengabeko Ikaskuntza azpi-programako aurrekontuaren murrizpena Lanbide Prestakuntza programa Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Hobetuz fundaziora pasatzearen ondorioa izan da. Aldaketa bi fasetan egin zen 2009an eta 2010ean.

Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza programen betearazpena (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Etengabeko Ikaskuntza	36.884	10.296	4.833	% -72,1	% -53,1
Helduen Hezkuntza (HH)	36.228	39.142	37.775	% 8,0	% -3,5
Betearazitakoa guztira	73.112	49.438	42.609	% -32,4	% -13,8
<i>Hasierako aurrekontua</i>	45.641	48.156	38.828	% 5,5	% -19,4
<i>Betearazpena %</i>	% 160,2	% 102,7	% 109,7	--	--

- **Hezkuntza sustatzeko programa**

Aurrekontuetako zenbatekoen gehikuntza handia –eta hein txikiagoan betearazitakoen gehikuntza– ezin da argi eta garbi azaldu eskuratutako informazioaren argitan. Konparatutako hiru ekitaldietako aurrekontuetako zenbatekoen betearazpen maila oso apala ere (% 75 baino gutxiago) nekez azal daiteke.

Bestalde, gehikuntza handiak izan dira Jantokia eta Garraioa eta Unibertsitate Hezkuntzako garraioaren kontu-sailetan.

Hezkuntza sustatzeko programaren betearazpena (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Garraioa eta jantokia	38.900	35.742	40.897	% -8,1	% 14,4
Diru-laguntzak eta laguntzak	61.329	71.930	84.963	% 17,3	% 18,1
Jardueren sustapena (Guraso elk.)	2.143	2.806	1.635	% 30,9	% -41,7
Betearazitakoa guztira	102.372	110.478	127.496	% 7,9	% 15,4
<i>Hasierako aurrekontua</i>	130.074	148.305	172.297	% 14,0	% 16,2
<i>Betearazpena %</i>	% 78,7	% 74,5	% 74,0		--

Unibertsitatez kanpoko hezkuntzari dagokionez, Eskola garraioa eta Diru-laguntzak azpi-programak aipatu behar dira. Eskola jantokien finantziazioa Haur eta Lehen Hezkuntza programan sartuta dago, Funtzionamendu-gastuak izeneko II. kontu-sailean, eta 2008-09 ikasturtean gehikuntza nabarmena izan zuen (% 37,9).

Hiru azpi-programaren betearazpena (mila €tan)

	2007-08	2008-09	2009-10	Δ 09/08	Δ 10/09
Eskola garraioa unibertsitatez kanpoko hezkuntzan	23.654	25.020	25.508	% 5,8	% 2,0
Diru-laguntzak unibertsitatez kanpoko etapetan	39.895	44.947	47.256	12,7%	% 5,1
Eskola jantokien finantziazioa	27.350	37.712	38.952	% 37,9	% 3,3

Familiak ikastetxeetan parte hartzeko laguntzaren hiru kontzeptu nagusiak handitu egin dira azken bi ikasturteotan.

Ikasleen gurasoen elkarreentzako laguntzak (mila €tan), 2007-08 eta 2009-10 ikasturteen artean

Laguntzak	2007-08	2008-09	2009-10	Δ 2 ikasturtetan
Elkarteen federazioak (publikoak eta itunpekoak)	569	585	623	% 9,7
Elkarteen eskolaz kanpoko jarduerak (publikoak eta itunpekoak)	719	831	831	% 15,7
Irakaskuntza kooperatiben eskolaz kanpoko jarduerak	36	43	45	% 24,2

• **Euskalduntze programa**

Betearaziko aurrekontua 2010ean % 12 jaitsi zen (% 17,5 Irale azpi-programan) eta hasierako aurrekontuekiko betearazpen maila (% 55,9) aurreko ikasturteetan baino apalagoa izan zen.

Sistema euskalduntzeko programaren eta azpi-programen betearazpena (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Irale	24.265	24.286	19.671	% 0,1	% -19,0
EGA/EIMA	2.496	2.519	1.701	% 0,9	% -32,5
Nolega	5.586	5.976	5.550	% 7,0	% -7,1
Glotodidaktika/EGB	371	399	447	% 7,5	% 12,0
Betearazitakoa guztira	32.719	33.181	27.369	% 1,4	% -17,5
Hasierako aurrekontua	48.633	53.371	48.918	% 9,7	% -8,3
Betearazpena %	% 67,3	% 62,2	55,9%		

4.2.2.5. Azpiegiturak eta hornikuntza

Aurrekontuen VI. atalak ikastetxe publikoetako eraikuntzetan eta hornikuntzan egindako inbertsioak jasotzen ditu.

Eraikuntzetan igoera handia izan zen 2009an eta murrizketa handia 2010ean, azkenean 2008ko mailetara jaitsi zelarik. Hornikuntzarako aurrekontuen gehikuntza ikastetxeetan Eskola 2.0 plana dela eta informatika tresneria jartzeari lotuta dago.

Ikastetxe publikoetako inbertsioaren banaketa (VI. atala), bi kontzepturen arabera (mila €tan)

VI. atala	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Eraikuntzak	61.533	78.262	58.244	% 27,2	% -25,6
Hornikuntza	31.810	32.922	37.219	% 3,5	% 13,1
Inbertsioetan betearazitakoa guztira	93.343	111.184	95.463	% 19,1	% -14,1
Hasierako aurrekontua	91.295	132.341	112.131	% 45,0	% -15,3
Betearazpena %	% 102,2	% 84,1	% 84,4		

Etapen araberrako banaketan, 2009ko inbertsio-ahalegina Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetara zuzendu zela ikus daiteke.

Eraikuntzetan betearazitako aurrekontua programen arabera (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	38.183	57.766	40.993	% 51,3	% -29,0
Bigarren Hezk., Konpentsaziozko Hezk. eta Lanb. Hez.	22.712	20.144	17.047	% -11,3	% -15,4
Beste programa batzuk	638	352	204	% -44,8	% -42,0
Eraikuntzak guztira	61.533	78.262	58.244	% 27,2	% -25,6

Era berean, Hornikuntza programan egindako inbertsioaren gehikuntza Eskola 2.0 planari zor zaio, plana urte haietan batez ere Lehen Hezkuntzan gauzatu baitzen.

Hornikuntzan betearazitako aurrekontuaren bilakaera programen arabera (mila €tan)

	2008	2009	2010	Δ 09/08	Δ 10/09
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	11.737	18.247	20.794	% 55,5	% 14,0
Bigarren Hezk., Konpentsaziozko Hezk. eta Lanb. Hez.	14.570	10.766	11.123	% -26,1	% 3,3
Beste programa batzuk	5.503	3.909	5.302	% -29,0	% 35,6
Hornikuntza guztira	31.810	32.922	37.219	% 3,5	% 13,1

Udalek ere eraikitze-lan txiki batzuk egiteko aurrekontuaren parte bat ordaintzen dute, EHAAn argitaratutako dagokien aginduetan arautzen den bezala. Ohiko deialdietan udalak % 40 ordaintzen du, eta 2009ko deialdi ez-ohikoan % 10 ordaindu zuen. Hezkuntza Sailak eta udalek egindako ekarpenak honela banatu ziren urte haietako deialdietan:

	2008	2009 (ohikoa)	2009 (ez-ohikoa)	2010
EHAako erabakiaren data	2008/09/05	2009/06/09	2010/02/17	2010/12/17
Udal kopurua	101	108	51	100
Ikastetxe kopurua	200	202	114	183
Lan kopurua	436	384	119	336
Sailaren ekarpena (mila €tan)	14.231	16.061	10.000	11.586
Udalen ekarpena (mila €tan)	9.487	10.708	1.111	7.724

4.2.3. Ikastetxe pribatuekiko ituna

Gure lege-esparruak espresuki xedatzen du pertsona guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea dutela, oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa dela, hezkuntza-askatasuna eta ikastetxeak sortzeko askatasuna aitortzen dituelarik. Botere publikoen, Euskadiko Herri Administrazioaren, betebeharretako bat da, irakaskuntzaren programazio orokorraren bidez eta dagokien sektore guztien partaidetza errealaz, hezkuntza pertsona guztiek jasotzen dutela bermatzea.

Euskal hezkuntza sistema bere osotasunean begiratu behar da, oso-osorik gizartearen hezkuntza-beharrak asetzera bideratuta baitago. Oinarrizko hezkuntza euskal hezkuntza sistema osatzen duten bi hezkuntza-sareen bidez gauzatzen da: ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxeak.

Lege-esparru horren barruan eman behar den erantzuna gure haurrei, gure gazteei eta gizarte osoari kalitate handiko hezkuntza bat eskaintzea izan behar da, eta bere erreferentzia-puntua ahalik eta hezkuntza-eredu bidezkoena eta zuzenena bilatzen duen gizarte-kohesioa izan behar da.

Sare pribatuaren finantziakzioa batez ere hezkuntza-itunen bidez gauzatzen da, kontu-sail batzuk laguntzen edo diru-laguntzen bidez finantzatzen diren arren, hala nola, 0-3 tartea irakasten duten haurreskolak, plantilak osatzen dituzten irakasle bereziak, hornikuntza, proiektuak, prestakuntza edo inbertsioak.

• **Itunaren modulua**

Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia modulua Eusko Legebiltzarrak urtero onesten dituen Aurrekontu Orokorretan finkatzen da. Ikasgela edo unitate bakoitzaren finantziakzio publikoa honako kontzeptu hauek osatzen dute:

- a) Langile irakasle eta ez-irakasleen gastuak, Gizarte Segurantzako kuotak barne.
- b) Funtzionamendu-gastuak.
- c) Mantentze eta zaintze gastu arruntak.
- d) Gauzazko inbertsioak berrosatzea.

Kontzeptu nagusiei dagozkien urteko zenbatekoak honako hauek izan dira hezkuntza maila bakoitzean:

Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia modulua bilakaera ikasgela edo unitate bakoitzeko (€tan)

	2008	2009	2010 hasiera	Δ 09/08	Δ 10/09 hasiera	Δ 10/09 bukaera (espero daitekeena)
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	58.849	61.094	63.835	% 3,8	% 4,5	% 2,5
Lehen Hezkuntza	61.752	64.097	66.891	% 3,8	% 4,4	% 2,4
DBH (Lehen zikloa)	77.576	81.515	84.789	% 5,1	% 4,0	% 2,0
DBH (Bigarren zikloa)	95.551	100.423	104.266	% 5,1	% 3,8	% 1,8
LOGSE Batxilergoa	98.200	103.137	107.047	% 5,0	% 3,8	% 1,8

3/2010 Legeak bere 7. Xedapen Gehigarrian moduluak langile-gastuei dagokien osagaian murriztu egin zituen, ikastetxe publikoetako funtzionarioen lansarietarako aurreikusitakoaren pareko proportzioan. Ikastetxe publikoetako murrizketak zazpi hilabete-sariri eta gehigarri bati eragin zien. Datu zehatzik gabe, oro har modulua murrizketa % 2 ingurukoa izan zela jo daiteke.

Itunpeko ikastetxeen finantziakzio publikoaren gehikuntza metatua 2007-08 ikasturteetik 2009-10 ikasturtera % 6tik % 7ra bitartekoa izan zen, etapen arabera, KPIak 2009an eta 2010ean izan zuen gehikuntza metatua (% 2) baino nabarmenki handiagoa. Hori tutoretzako eta aholkulari-orientatzaile lanpostuko plusak finantzatzearen ondorioa da. Tutoretza figurari esleitutako plusa 2010etik aurrera erdira mugatu da.

- **Itunpeko ikastetxeetako ikasgela kopuruaren bilakaera**

2007-08 ikasturtetik 2009-10 ikasturtera itunpeko ikastetxeetako ikasgelen kopurua handitu egin zen Lehen Hezkuntzan (63 ikasgela gehiago) eta Haur Hezkuntzako 2. zikloan (39 ikasgela gehiago); ikasgela kopurua DBHn (35 ikasgela gutxiago) eta Lanbide Heziketan (31 ikasgela gutxiago) murriztu egin zen.

Itunpeko ikastetxeetako ikasgela kopuruaren bilakaera 2007-08 ikasturtetik 2009-10 ikasturtera (modulu osoa edo partziala)

	2007-08		2008-09		2009-10		Δ 2 ikasturte	
	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.	Osoa	Partz.
Haur Hezkuntza	1.254	0	1.290	0	1.293	0	39	0
Lehen Hezkuntza	2.361	0	2.390	0	2.424	0	63	0
Hezkuntza Berezia (Lehen Hezk., irekiak)	202	0	210	0	220	0	18	0
Hezkuntza Berezia (Lehen Hezk., itxiak)	116	0	111	0	108	0	-8	0
DBH 1. zikloa	810	0	806	0	808	0	-2	0
DBH 2. zikloa	849	0	836	0	816	0	-33	0
Helduen Hezkuntza	34	0	30	0	18	0	-16	0
Hezkuntza Berezia (Bigarren Hezk., irekiak)	210	0	210	0	215	0	5	0
Hezkuntza Berezia (ZII: Bigarren Hezk., itxiak)	21	0	23	0	22	0	1	0
Batxilergoa	236	341	238	335	241	321	5	-20
Erdi Mailako Lanbide Heziketa	38	213	121	125	45	198	7	-15
Goi Mailako Lanbide Heziketa	85	371	102	338	96	337	11	-34
LHIK-Gizarte Garantia	124	0	53	0	0	0	-124	0
HLPP	0	0	33	0	65	0	65	0

Lanbide Hastapenerako ikastetxeak (LHIK) Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programa berriak (HLPP) bihurtu direnean, itunpeko ikasgelen kopurua jaitsi egin da.

- **Finantziazioaren baldintzak**

Euskadin, Lehen Hezkuntza eta DBH derrigorrezko etapak ematen dituzten ikastetxe pribatu guztiek, hiruk izan ezik, bete-beteko ituna dute etapa horietan. Eta hori ikastetxeentzako muga bat da kuotak finkatzeko orduan edo familiei kobratzeko orduan; kontzeptu gutxi geratzen dira itunetik kanpo, eta geratzen direnak borondatezkotasunaren baldintzapean.

LOEk oso argi azaltzen du 88. artikuluan (doakotasun-bermeak).

1. Ikasle guztiak arrazoi sozio-ekonomikoengatik diskriminatu gabe eskolatzeko aukera bermatzeko, ikastetxe publikoek edo itunpeko ikastetxe pribatuek ezin izango dute, ezein kasutan, doako irakaskuntzak jasotzeagatik familien diru-kopururik jaso, ez eta ikasleen familiei fundazioetarako edo elkarteetarako ekarpenak egiteko betebeharra eta familia horiei ekarpen ekonomikoak egitea eskatzen dieten irakaskuntza-arloko nahitaezko

zerbitzuak ezarri. Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 51. artikuluan xedatutakoaren esparruan, kategoria horretatik salbuetsita geratzen dira eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriak eta eskola-zerbitzuak. Horiek, nolahi ere, borondatezkoak izango dira.

2. Hezkuntza-administrazioek doako irakaskuntzen doakotasuna ahalbidetzeko beharrezkoak diren baliabideak emango dizkiete ikastetxeei.

Oinarrizko araudi horren garapena 293/1987 Dekretuak xedatzen duen Hezkuntza-itunei buruzko Araudian dago. Bi aldeek –ikastetxea eta Administrazioa– bete beharrek konpromisoa ituna arautzen duten ondorengo agindu guztietan aipatzen da.

293/1987 Dekretuaren arabera, autonomia-araudi horren xehetasunak oinarrian honako hauek dira:

5. Atala.- Honako hauek ditugu Itune-Jaurpidearen xede:

- a) Nahitaezko eta dohango oinarrizko hezkuntzarako eskubidea, benetan gauzatzea norbanako-alorreko Ikastegietan, Itune orokorrak direla horretarako bide.
- b) Ikastegi horietan, nahitaezko ez den hezkuntzara iristeko bide ematea, beti ere, Dekreto honetan jartzen diren baldintzak betetzen ba dituzte, osoko edo zatikako Itune berezien bidez.

17. Atala.- Diruegitamu horietan, irakaskuntza-maila bakoitzeko ikasgela bakoitzerako, itunepeko ikastegiei eusteko izendatzen den diru-zenbatekoa zehaztuko da. Zenbateko horretan, Erresumako Diruegitamu Nagusiei buruzko Legean, une bakoitzean, adierazitako oinarrizkoa eta, horrela izanez gero, Euskadiko Autonomia-Elkartek izendatu dezan osagarria bilduko dira.

18. Atala.- Ikasgela bakoitzaren euste diru-zenbatekoa, herri-irakaskuntzaren gosteetarako egiten den bezalaxe, honako osagai hauek bereiztuz aterako da:

- a) Lanarigo-xahupenak, Gizarte-Segurantzarako ugazaba ordainsariak barne sartuz, irakasle eta irakasle ez direnen xahupenak bereiztuz.
- b) Ihardutze-xahupenak eta tresnazaingo eta iraunarazpen-agizko xahupenak.
- c) Gauzetango diru-ezarketak berregiteko xahupenak.

19. Atala.- Legebiltzarraren dagokion erabakia hartu baino lehen, Jaurlaritzak, urte bakoitzean erabiliko den zenbateko-neurriaren zehazte eta banatze-modus aurkeztuko du, lan-alor horretan izan dadin bateango lan-hitzarmenaren ondorioak ikusi eta doakien gizataldeei entzun ondoren.

Horren kaltetan gabe, Arduralaritzak ezin izango du bere gain hartu, Autonomia-Elkarteko Diruegitamuei buruzko Lege Orokorrean adierazi daitezten lansari-diruzenbatekoen gehikuntza-ehuneko gaingitu dezaten bateango lan-hitzarmenei darizkien irakaslego-lansariaren aldaketak.

Irakaslegoarentzako zenbateko-neurriaren zatiak bide emango du herri-irakaslegoarekin, arian-arian, berdintzeko

42. atala.- Ekintza osagarriak edo zerbitzuak direla eta, hezkuntza-administrazioak eman beharko du ikasleengandik edozein diru-zenbateko jasotzeko baimena.

43. atala.- Ikaslearen hezkuntzari bideratuta egon eta dagozkien ikasketa-egitamueta edo hauek garatzen duten egitarauetan sartuta ez dauden kultura, kirol, atsedean edo gizarte-alorrekoak dira ekintza osagarriak.

44. atala.- Jantoki eta eskola-garraio, sendagile edo psikopedagogia-urgazlaritza, norbanako edo bakoitzarekiko zaingo-alorrekoak edo horien antzeko beste edozein alorrekoak dira zerbitzu-ekintzak.

45. atala.- 43. eta 44. ataletan adierazitako ekintzak ez dira eskola-orduetan sartuko, borondatezkoak eta bereizketarik gabekoak izango dira eta hezkuntza-jardunak bezalaxe, irabazte xederik gabekoak. Ekintza horiek, balio-neurketa egiterakoan, ezin izango zaie eskatu ikasleei ikasketa-egitamuak osatzen dituzten irakaskuntzak gainditzeko.

46. atala.- Aurreko atalean adierazitako ondorioetarako, eskola-orduei eskola-jardunaldi osoak hartzen dituenak iritziko zaizkie, bata bestearen ondoren eman beharreko bi klaseren artean finkatu daitezten atsedenaldiak barne..

Hezkuntza administrazioari dagokionez, itunak arautzeko ondorengo aginduek, azkena 2008ko maiatzaren 20koa (EHAA, 2008/06/04), ituna beteko delako berme-klausula bat finkatzen dute, 17. Xedapenean:

Hamazazpigarrena.– Ikastetxeak itundutako izaerari buruz eman beharreko publizitatea, ikasleei kobratutako kuotei buruz indarrean dagoen legeria bete izana ikuskatzea eta funts publikoak itundutako helburuarekin erabiltzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak arautuko ditu agindu baten bitartez, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion zuzendaritza eta ikuskaritza eginkizunak betez.

Euskadiko Eskola Kontseiluak egiaztatu du aipatutako agindua ez dela argitara eman.

4.3. Ikastetxe publikoetako irakasleen plantilak

Kontseiluaren txostenetarako lehenengoz izan da eskuragarri Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilei buruzko informazio osoa, eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetakoei buruzko informazio orokor zehatza, 2009-10 ikasturtetik aurrera.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, unitate edo ikasgela bakoitzeko irakasle kopuruaren ratioa kalkulatu da, eta ondoren ratioaren banaketa aztertu da ikastetxearen tamainaren eta kokagunearen arabera, horretarako lehen atalean aztertutako ISEK indizearen aldagaiak aintzat hartu direlarik.

Horrez gain, ikastetxeetako plantilak arautzen dituen 185/2010 Dekretua (EHAA, 2010/07/16) aztertu da, eta 2009-10 eta 2010-11 ikasturteetako plantilen konparazioa egin da; 2010-11 ikasturteko plantila 2009-10 ikasturteko azken hiruhilabetean negoziatu zen ikastetxeekin, akordio arautzaile berriaren irizpideen arabera eta dekretua argitaratu baino lehen.

4.3.1. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako irakasle/ikasgela ratioaren azterketa

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza irakasten duten 328 ikastetxe hartu dira kontuan, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza batera irakasten duten 2 ikastetxe, Haur Hezkuntzako 2 ikastetxe eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe bat; guztira 333 ikastetxe.

Ikastetxe horietako plantila 2009-10 ikasturtean 9.461 irakaslek osatu zuten⁵, haien arteko 8.100 EHAAn argitaratutako (RTP) Lanpostuen Zerrenda organikokoak zirelarik. Multzo orokor horretan ikastetxean edozein motako lana egiten zuten irakasleak sartu dira; irakaslanaz eta irakasleei dagozkien beste lan batzuez gain, zuzendaritzakoak, administraziokoak –ikastetxe horiek ez dute administrazio-langilerik– edo zerbitzu osagarrietarako laguntzakoak (adibidez, eskolako jantokiaren antolamendua) sartzen dira.

Unitateen zenbatekoaren barruan ikastetxe horietan irakasten diren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasmila guztietako araubide orokorreko 5.433 unitateak sartzen dira⁶, Hezkuntza Bereziko 36 ikastalde itxiek batera; guztira 5.469 unitate.

333 ikastetxeetako batez besteko ratioa 1,73 da, eta ikasgelako ikasle kopuruaren batez besteko ratioa, 17,8.

Ikastetxearen tamainaren arabera banaketa egiten bada, unitate edo ikasgela kopurua kontuan izanik, alderantzizko korrelazioa ikus daiteke aldagai horren eta irakasle/ikasgela ratioaren artean: irakasle/ikasgela ratorik handiena (1,85) lerro bateko edo gutxiagoko ikastetxeei dagokie –lerroa 2 urtekoen mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailaraino dauden 10 unitate edo ikasgelak dira, maila bakoitzeko bat–; beheranzko progresioa jarraituz, irakasle/ikasgela ratorik txikiena (1,62) 3 lerro baino gehiagoko ikastetxeei dagokie.

Azaldu beharrekoa da ratio horretan hamarren bateko aldeak 10 unitateko lerro bakoitzean irakasle bat gehiago edo gutxiago egotea adierazten duela.

⁵ Erljioko irakasleak ez dira sartu, horiei buruzko informaziorik ez dagoelako.

⁶ Logikoki, Haur Hezkuntza irakasten duten beste mota bateko ikastetxe publikoetako 1. zikloko unitateak ez dira sartzen (adibidez, Udal Haur Eskolak eta Haurreskolen sarekoak).

Irakasle/ikasgela eta ikasle/ikasgela ratioak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, ikastetxearen tamainaren arabera. 2009-10 ikasturtea.

Ikastetxearen tamaina	Ikastetxe kopurua	Irakasleak Lanpostuen Zerrendan	Plantila osagarria	Plantila osoa	Unitate kopurua ⁷	Ikasle kopurua	Irakasle/ikasgela ratioa	Ikasle/ikasgela ratioa ^{*8}
1-10 unit.	108	1.074	183	1.257	681	9.294	1,85	13,8
11-20 unit.	118	2.907	546	3.453	1.949	32.957	1,77	17,1
21-30 unit.	71	2.738	442	3.180	1.880	36.098	1,69	19,3
> 30 unit.	26	1.381	190	1.571	970	19.072	1,62	19,8
Guztira	333	8.100	1.361	9.461	5.469	97.391	1,73	17,8

Horrez gain, ikastetxerik handienetan ikasle kopurua ikasgelako ikastetxe txikiagoetan baino handiagoa dela ikus daiteke, ikastetxe txikietan irakasmaila bat baino gehiago elkartzen baitira ikasgela berean. Aipatu beharrekoa da kalkuluak egiteko erabiltzen den gehieneko ikasle/ikasgela ratioa ez dela 25, Lehen Hezkuntzan izango litzatekeen bezala. Haur Hezkuntzako ikasgelekin batzen direnez –gehieneko ratioa 2 urtekoen ikasgeletan 18 da eta 2. zikloan, 23–, kalkulatzen ari garen gehieneko ikasle/ikasgela ratioa 23,7 litzateke.

Hiru lurralde historikoetako banaketan, Gipuzkoak gainontzeko lurraldeek baino irakasle/gela ratio apalagoa du (1,67), honako faktore hauen ondorioa izan daitekeena: homogeneotasun sozial eta ekonomiko handiagoa eta inmigrazio txikiagoa.

Irakasle/ikasgela eta ikasle/ikasgela ratioak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, lurraldeen arabera. 2009-10 ikasturtea.


	Ikastetxe kopurua	Plantila osoa	Unitate kopurua	Ikasle kopurua	Irakasle/ikasgela ratioa	Ikasle/ikasgela ratioa	Unitate kopurua ikastetxean	ISEK indizea
Araba	56	1.576	895	16.059	1,76	17,9	16,0	
Bizkaia	169	4.821	2.747	48.602	1,76	17,7	16,3	
Gipuzkoa	108	3.063	1.838	32.760	1,67	17,8	17,0	
Euskadi	333	9.461	5.469	97.391	1,73	17,8	16,4	

Laburpen eta oroigarri gisa, 4.1 eranskinean eskola-guneak aurkezten dira taula batean, honako adierazle hauen arabera sailkatuz: eskolako ISEK indizea, errenta, inmigratio indizea, hezkuntza premia bereziko ikasleak, euskalduntze-maila eta sarrera-irakasmaitetan eskaintza nahikoa egotea.

⁷ Tamainaren eta eskola-guneen arabera egindako ratioaren banaketan, zenbateko orokorrean baino 11 unitate eta 30 ikasle gehiago ageri dira, informazio iturri ezberdinak erabiltzearen ondorioz. Dena den, alde horrek ez dio emaitzari eragiten.

⁸ Ikasle/gela gehieneko ratioa lerro oso batean 23,7koa da.

11. mapa. Irakasle/ikasgela ratioa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, eskola-guneen arabera. 2009-10 ikasturtea



Taulan hezkuntza premia bereziak (h.p.b.) dituzten ikasleen lurraldekako banaketa sartzen da, ratioari eragiten diolako: hezkuntza bereziko bi espezialitateetako –pedagogia terapeutikoa (PTE) eta entzumena eta hizkuntza– irakasleen kopuruarekiko zuzenki proportzionala da. 4.3 eranskina ere gehitzen da.

Eskola-gunearen araberrako banaketan, ratioaren baliorik handiena (1,96) Andoaini dagokio. Ikastetxe bakarra du, eta adierazleen azterketan ere aipatu da (11. mapa eta 4.2 eranskina).

Premiarik larrienekotzat izendatutako eskola-guneen multzoaren barnean, gehienek batez bestekoa baino ratio handiagoa dute, hala nola Errekalde (1,93) bereziki, Sestao, Txurdinaga-Otxarkoaga (1,87), Barakaldo, Portugalete, Santurtzi (1,85) edo Ibaiondo (1,83).

Aurrekoen antzeko ezaugarriekin, Ibaiondok (1,77), Gasteiz-Iparaldeak (1,77) eta Donostia-Ekialdeak (1,75) batez bestekoaren antzeko plantila dute. Zenbait kasutan, adierazle batzuen azterketan, ISEK adierazlearenean bereziki, markatutako eskola-guneak, adibidez, Erandio (1,72) edo Ermua (1,73) ozta-ozta hurbiltzen dira batez bestekora. Azkenik, kontraesankorra dirudi, baita ere, eskola-gune batzuk, adibidez Hernani⁹ (1,57) edo Errenteria (1,63), euren ezaugarri sozio-ekonomikoak kontuan izanik, batez bestekotik oso urrun geratzeak.

4.3.2. Ikastetxe publikoetako plantilen bilakaera

Irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen 185/2010 Dekretua 2010eko uztailean argitaratu zen, eta ikastetxeetako plantilei lotutako 4 helburu finkatzen ditu:

- Irakasleen plantila sendotzea, horretarako ikastetxeetako Lanpostuen Zerrendetan hiru urteko epean 2.500 lanpostu gehituko direlarik: 1.000, 800 eta 700, 2010., 2011. eta 2012. urteetan hurrenez hurren. Sendotze hori bat dator Euskal Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean 2009ko azaroan sinatutako akordioarekin.
- Zuzendaritza taldeak sendotzea. Askotariko neurriak aurreikusten ditu, besteak beste, ikastetxeen kudeaketarako baliabideen arrazoizko erabilera, Haur

⁹ Hernaniren kasuan, sare publikoa oso errotuta dago (ikastetxe guztien % 92), eta beraz, ikastetxe publikoetako ikasleen ISEK indizea eta eskola-guneko ikasle guztiena oso hurbil daude (txosten honetan guztiena hartzen da kontuan). Gauza bera esan daiteke gainontzeko aldagaiei buruz (hizkuntzakoak, hezkuntza premia bereziko ikasleak, matrikula eskaintza orokorra...)

Sare publikoa erroturik ez dagoeneko eskola-guneetan, berriz, gune horietako ikasleen ISEK indizea txosteneko batez besteko ISEK indizea baino nahiko apalagoa da. Kasu horietan plantilan goranzko zuzenketa bat egingo litzateke. Hernaniren kasuan, edozein modutan ere, beheranzko zuzenketa ez du azaltzen eskola-guneko balio apala.

Ikastetxearen ezaugarrien, ikasleen ezaugarrien eta plantilaren arteko korrelazioa zehatz-mehatz aztertu ahal izateko ezinbestekoa litzateke erabilitako adierazle guztien banaketa hezkuntza-sarearen arabera edukitzea.

Hezkuntzako eta Lehen hezkuntzako ikastetxeetan administrazio-langileak apurka sartzea, ikastetxeei prestakuntza-plan bat ematea eta ebaluazio-elementuak finkatzea.

- Hezkuntza-eskaintza optimizatzea, ikastaldeak antolatzea eta irakasle-hornikuntza.
- Aniztasunaren trataera eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arreta arrazionalizatzea eta sendotzea.

a) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak

Ikastetxeetako plantilak finkatzeko irizpideak arestian aipatutako 185/2010 Dekretuaren 24. artikuluan biltzen dira, eta baita 27., 28. eta 31. artikuluetan ere. Irizpide horiek aurreko 182/2007 Dekretuak xedatzen zuena hainbat alderditan ordezkatu dute:

- Irakasle/gela ratioa ikastetxearen tamainaren arabera finkatzea ez da aipatzen. Horren barnean aipatzen ziren betebeharrak batzuk, bakoitzari dagokion irakaspostu kopuruaren arabera zehatzen dira dekretu berrian.
- Haur Hezkuntzako 2 urtekoen irakasmilaren kasuan, aurreko dekretuak finkatzen zuen kalkulu-prozedurak ratio osoari eragiten zion. Oraingo dekretuan irakaspostu kopurua irakasmila horretako unitate kopuruaren arabera finkatzen da. Irizpide berdina erabiltzen da 2 eta 3 urtekoen irakasmiletako unitate kopuruak kopuru jakin bat gainditzen duenean.
- Akordio berrian ratioen beste gehikuntza txiki batzuk zehatzen dira 8 ikastalde baino gutxiago duten ikastetxeen kasuan eta baita ikasle/gela ratio handia duten ikastetxeen kasuan ere. Horrez gain, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen kopuru handia duten ikastetxeetan gainerako PTE irakaspostu bat dute.
- Zuzendaritzari dagokionez, zuzendaritza-proiektua aurkeztu ondoren prozedura ofizialaren bidez hautatutako zuzendaritza duten ikastetxeei ratio gehigarri bat ematen zaie. 40 unitate baino gehiagoko ikastetxeek zuzendaritza-postuen gehigarri bat izan dezakete. Horrez gain, zuzendari-laguntzailearen lanpostua sortu da.
- Bizikidetzaren planak eta teknologia berriak lantzeari begira irakasle/lerro ratio bat finkatu da: 0,33 irakasle/lerro, proiektu orokorrak dituzten ikastetxeen kasuan 0,5eraino igo daitekeelarik. Aurreko akordioan irakasle/ikastetxe ratioa (0,5) erabili zen aipatutako bi planetarako, 2007-08 ikasturtean 115 ikastetxetan eta 2009-10 ikasturtean "ikastetxe ia guztietara" hedatzeko asmoarekin.

185/2010 Dekretu berriak, aurreko dekretuarekin konparaturik, ikastetxeetako plantila orokorrean nolako eragina izan duen zehaztasunez aztertu ahal izateko datu

bat falta da: Dekretuak ez du finkatzen espezialisten kopurua. Dekretuaren eragina, hala ere, 2010-11 ikasturteko plantilaren bidez neur daiteke.

Hurrenez hurrengo bi ikasturteetako datuak konparatzerakoan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan irakasle/gela ratioa 0,05 jaitsi dela ikus daiteke, 1,73tik 1,68ra. Aurreko paragrafoan azaldu den bezala, ratioaren hamarren bateko jaitsierak lerro bakoitzeko irakasle bat gutxiago egotea esan nahi du; beraz, bost ehuneko jaitsierak bi lerro oso bakoitzeko irakasle bat gutxiago egotea esan nahi du.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako plantila osoen bilakaera*

	2008-09**	2009-10	2010-11	Δ azken ikasturtea
Irakasleak Lanpostuen Zerrendan RPT	7.920	8.100	8.729	629
Plantila osagarria	---	1.361	663	-698
Plantila osoa	---	9.461	9.392	-69
Unitate kopurua	5.415	5.469	5.586	+117
Irakasle/ikasgela ratioa*	---	1,73	1,68	-0,05

(*) *Irakasle guztiak sarturik daude, Erlijioak izan ezik*

(**) *Kontseiluak ez du 2009-10 ikasturtea baino lehenagoko informaziorik irakasleen plantila osagarriari buruz.*

b) Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak

Bigarren Hezkuntzako plantilen kasuan, bi akordio arautzaileen artean honako ezberdintasun hauek azpimarra daitezke:

- Irakasleen lan-ordutegiaren aipamenik ez da ageri dekretu berrian. Aurreko 2007ko Dekretuan espezialitate bakoitzean 17 irakastordu bakoitzeko –edo 12 orduko edo gehiagoko hondar bakoitzeko– irakaspostu bat esleitzen zen .
- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuen antzera, bizikidetzaren planak edo teknologia berriak bultzatzeko hornikuntza osagarriak arlo horretako esperientzietan jarduten zuten ikastetxeei ematen zitzaizkien, baina orain ikastetxe guztiei ematen zaizkie bakoitzak duen unitate-kopuruaren arabera.
- Curriculum ezberdinak eratzeko programetan:
 - Ikastaldea sortzeko gutxieneko ikasle kopurua 6tik 8ra igo da.
 - Ikastaldea 10 ikasle baino gutxiagokoa bada, irakasleak beste ikastalde batzuetan osatu behar du bere lan-ordutegia; lehen, curriculum materialak sortzen osatzen zuen.
- Bikoizketak mugatu egin dira DBHn eta Batxilergoan:

- DBHn ikastaldeko gutxieneko ikasle kopurua 15etik 20ra igo da.
- Batxilergoan asteko bikoizketa-orduak 3tik 2ra jaitsi dira.
- Lanbide Heziketan hiru aldaketa izan dira:
 - Ikastaldeko gutxieneko ikasle kopurua 10etik 12ra igo da.
 - Bikoizketak egiteko ikastaldeko gutxieneko ikasle kopurua 15etik 20 igo da.
 - Sail bakoitzari ordu kopuru bat esleitzen zaio.
- Hezkuntza premia bereziak: horrelako 15 ikasle edo gehiago badaude PTE lanpostu bat gehiago sortzen da.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan oro har irakasle/gela ratioa kalkulatzeko, aurreko akordioan erabiltzen zen antzerako prozedura erabiltzen da, baina oraingoan erlijioiko irakasleak ikastetxeetako Lanpostu Zerrenda (RTP) organikoetan sarturik daude. Unitate kopurua kalkulatzeko ohiko ikastaldez gain, DBHko Hezkuntza Bereziko ikastalde itxiak eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntzako zereginen ikaskuntzako ikastaldeak (SAT) sartzen dira.

Aipatutako aldaketak gauzatzeak ratioa 0,07 irakasle/gela baino apur bat gehiago jaitea dakar, termino erlatiboetan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan izandako antzerako jaitsiera.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantila osoen bilakaera*

		2008-09	2009-10	2010-11	<i>Δ azken ikasturtea</i>
Bigarren Hezkuntza osoko kidegoak		7.132	7.276	7.251	-25
Maisu-maistren kidegoa	RTP Lanpostuen Zerrenda organikoa	1.520	1.444	1.402	- 153
	Plantila osagarria**	---	111		
Plantila osoa		---	8.831	8.653	- 178
Unitate kopurua		3.347	3.394	3.424	30
Irakasle/ikasgela ratioa		---	2,60	2,53	-0,07

(*) Erlijioiko irakasleak sarturik daude.

(**) Kontseiluak ez du 2009-10 ikasturtea baino lehenagoko informaziorik irakasleen plantila osagarriari buruz.

4.4. Ondorioak eta proposamenak

Euskadiko Eskola Kontseilua, gizarte osoa bezalaxe, oso kezkatuta dago gure herria pairatzen ari den krisialdi ekonomiko sakona dela eta, Europa eta mundu mailako ekonomia, gizarte eta politika sistemaren krisialdiaren barruan. Honek baliabide ekonomiko eskuragarrien murriztea dakar hezkuntzako arlo guztietan.

(p27) Kontseiluak beharrezko ikusten du gure hezkuntza sistemaren kalitatean eta ekitatean aurrera egiteko behar diren baliabide publikoak bermatzea, eta aldi berean hezkuntza-eragile guzti-guztiei, salbuespenik gabe, dei egiten die baliabide horiek ahalik eta eraginkortasunik handienaz erabil ditzaten, sistemaren iraunkortasuna helburu.

Kalitatearen edo bikaintasunaren ikuspuntutik, guztientzako onura lortzeko helburu bezala ulerturik, kanpoko ebaluazioaren emaitzek hobetu beharrari aurre egitera bultzatzen gaituzte, batez ere emaitzarik apalenak izan dituzten ikastetxeetan. Kontseiluaren iritziz, langabezia-tasaren igoera nabariaren aurrean, eta ikasketamailarekin duen lotura ikusirik, gero eta beharrezkoago bihurtzen ari da herritar guztiak pertsona bezala eta lanbide mailan gaitzea, inolako salbuespenik gabe.

(p28) Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du profil sozio-ekonomikorik apalena duten ikastetxeei, publiko zein pribatu, baliabide egokiak ematea, eskola arrakasta handiagoa lor dezaten gaitzeko.

Ekitatearen ikuspuntutik, Kontseiluak egiaztatu du bi hezkuntza-sareetako ikasleen arteko status-aldea denbora aurrera joan ahala gero eta handiagoa dela, txosten honen 1. atalean azaldu den bezala.

Hori zela eta, zenbait lekutan eskolatzearen hasierako irakasmaitetako eskaintza publikoren urritasuna alde hori areagotzen zuen faktorea zela. Aurreko txostenetan aipatu da kuotak kobratzea, bereziki itunpeko ikastetxeetan, ikasleak zentzu horretan bereizten laguntzen duen beste faktore bat dela.

Zalantzarik gabe, familiek ikastetxeak mantentzeko egiten dituzten ekarpenak era askotako gastuei aurre egiteko erabiltzen dira eta askotariko zenbatekokoak izaten dira. Horrek eta arestian aipatutako bi alderdiek, gizarte-integrazioaren ikuspuntutik, bi errealitate ezberdin islatzen dituzte.

Edozein kasutan ere, Kontseiluak berriro adierazi nahi du araudi bat dagoela familiei doako derrigorrezko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatzeko. Araudia 4.3.2 puntuan aipatu da.

(p29) Doako hezkuntza jasotzeko eskubidea bermatzeari begira, Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatzen dio agindu baten bidez ikasleei kobratutako kuotei buruz indarrean dagoen legeria bete izana ikuskatzea arautzeko, hezkuntza-itunak formalizatzeke 2008ko maiatzaren 20ko Aginduak xedatzen duen bezala.

Eraginkortasunari dagokionez, Kontseiluak eskola-emaitzen eta etapen finantziazioaren analisiaren bidez egiaztatu izan du sare publikoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek gainontzekoek baino behar konparatibo handiagoak izaten dituztela, ikaste-arazoei irtenbidea emateko baliabiderik gehienak (adibidez, bikoizketak eta curriculum ezberdina eratzeko ikastaldeak) Bigarren Hezkuntzan erabiltzen baitira.

(p30) Ondorengo hezkuntza-prozesua oztopa dezaketen ikaste-arazoei ekiditeko asmoz, Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatzen dio baliabidez hornitzerakoan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza etapen lehentasuna kontuan izan dezan, bereziki ikastetxe publikoetan.

Krisialdi egoeretan aurrekontu murrizketak izaten dituen lehenengo kontu-saila azpiegiturak izaten dira. Euskadin jaiotza-tasaren igoerak ikastetxe berriak eraikitzea behartzen du.

(p31) Hori dela eta, Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatzen dio ikastetxe publiko berriak eraikitzea premia handikotzat har dezan, 1. atalean aipatutako udalerrri eta barrutietan, eta azpiegitura plan berrian dagokion beharren analisia egin dezan gurasoek etxetik gertu dagoen ikastetxe publiko batean eskola-leku bat izateko eskubidea bermatzeko, Euskal Eskola Publikoaren legeak xedatzen duen bezala.

Aspaldion ezartzen ari diren sistema berrien eskakizunen artean irakasleen hasierako prestakuntza azpimarratu beharko litzateke. Prestakuntza horrek, Unibertsitateari dagokion ardura alde batera utzirik, ikastetxeei eragiten die praktiken tutoretza egiterakoan, praktikaldia oraingo sisteman asko luzatu baita.

Kontseiluaren iritziz, irakaste-jardunaren ereduak finkatzerakoan hasierako lan-esperientzia garrantzi handikoa da, eta, gaur egun, Irakasle Eskoletako eta Bigarren Hezkuntzako masterretako ikasleen praktikan gainbegiratzen dituzten irakasleek ez dute inolako aitorpen praktikorik. Egoera berean daude funtzionarioa izateko praktikak egiten dituzten irakasleen tutoreak ere.

(p32) Kontseiluak Hezkuntza Sailari eskatzen dio ikastetxeetan praktiketako ikasle zein irakasleen tutoretza egiten duten irakasleen lanaren ordainak eta hasierako prestakuntza-prozesuen eraginkortasuna hobetzeko koordinazio-egitura sortzeak aurrekontuetan nolako eragina izango luketen azter dezan.

Euskadiko Eskola Kontseilua jakitun da hasierako aurrekontu hertsia kudeatzeko zailtasunaz, batez ere nekez aurreikus daitezkeen garapen-aldagaien menpean dagoenean.

(p33) Irakasleei dagokienez, Kontseiluak irizten du ikastetxeetako plantilak osatzeko egiten diren lan-eskaintza publikoak aurrerapauso bat direla egonkortasunerako bidean. Egonkortasuna irakaspostu organiko edo aurrekontuko konfiguratzeko diren irakaspostuekin osatzen jarraitu behar da, oraingo eta etorkizuneko behar formatiboak egokituz.

Edozein modutan ere, Kontseiluak Hezkuntza Sailari gomendatzen dio plantilaren murrizketa berezi batzuek berriztatzearen antolamenduan eta abian dauden hobekuntza-prozeduretan zer nolako ondorio praktikoak ekar ditzaketen ahalik eta arinen azter ditzan.

Kontseiluak txosten hau egiteko izan duen *informazioari* dagokionez, ikastetxe publikoetako plantilei buruzko datu guztiak lehenengoz eskuratu ditu, baina oraingoz ez dugu jasotzen itunpeko ikastetxeetako plantilei buruzko inolako daturik. Hezkuntza Sailaren aurrekontuei buruzko informazioari dagokionez, datu orokorrek ikuspegi orokor argia eskaintzen dute, baina aurreko urteetako aurrekontuen betearazpen-mailak ez du aukerarik ematen gastu-aldeak zein kontu-sailetan gertatu diren ikusteko.

(p34) Ondorioz, Kontseiluak berriro eskatzen dio Hezkuntza Sailari hurrengo txostenari begira informazio osoagoa eta zehatzagoa.

Ikuspegi orokor batean, hasierara itzulirik, Euskadi etorkizunerako zein gizarte mota nahi duen erabakitze bidegurutzean dago. Euskadiko presio fiskal orokorra, BPGaren ehunekoetan, Europar Batasuneko batez bestekoa baino nabarmenki baxuagoa da, eta berdin gertatzen da gizarte-zerbitzuetako gastuarekin, adibidez hezkuntza eta osasuna.

(p35) Kontseilua hezkuntzak krisialditik irteteko duen eginkizun estrategikoaren jakitun delarik, Euskadiko erakundeei proposatu nahi die oraingo finantziario-mailak sendotzea eta ahal delarik igotzea, Europako mailetara hurbiltzeko eta horrela derrigorrezko etapetako ikasle guztiek gaitasunak ahalik gehien garatzeko aukera izan dezaten eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko gai izan daitezten bermatzeko.